



EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

TXOSTEN EXEKUTIBOA

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO 2. MAILA



ISEI-IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



**Egilea: Irakaskuntza Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea
(ISEI-IVEI)**

2014ko otsaila

AURKIBIDEA

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILBURUAREN SARRERA	5
I. 2013KO APLIKAZIOAREN EZAUGARRIAK ETA DATUAK	9
I.1. APLIKAZIO PROZESUA	12
I.2. EBALUATUTAKO POPULAZIOAREN DESKRIBA-PENA	14
I.3. EMAITZEN AURKEZPENA	23
I.4. KONTUAN IZAN BEHARREKO ZENBAIT IRIZPIDE	24
2. EMAITZAK, OINARRIZKO KONPETENTZIEN ARABERA	27
2.1. EUSKARAZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA	31
2.1.1. Emaita orokorren bilakaera	31
2.1.2. Ikasleen banaketaren bilakaera errendimendu mailen arabera	32
2.1.3. Emaitzak geruzen arabera hizkuntza eredua eta hezkuntza sarea	32
2.1.4. Emaitzak familia-hizkuntzaren arabera	37
2.1.5. Emaitzak konpetentziako dimentsioen arabera: entzumena eta irakurmena	39
2.1.6. Emaitzak idazmenean	40
2.2. GAZTELANIAZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA	43
2.2.1. Emaita orokorren bilakaera	43
2.2.2. Ikasleen banaketaren bilakaera errendimendu mailen arabera	44
2.2.3. Emaitzak geruzen arabera: hizkuntza eredua eta hezkuntza sarea	44
2.2.4. Emaitzak familia-hizkuntzaren arabera	48
2.2.5. Emaitzak konpetentziako dimentsioen arabera: entzumena eta irakurmena	49
2.2.6. Emaitzak idazmenean	50
2.3. MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA	53
2.3.1. Emaita orokorren bilakaera	53
2.3.2. Ikasleen banaketaren bilakaera errendimendu mailen arabera	53
2.3.3. Emaitzak geruzen arabera: hizkuntza eredua eta hezkuntza sarea	54
2.3.4. Emaitzak probako hizkuntzaren eta familia-hizkuntzaren arabera	59
2.4. ZIENTZIA-, TEKNOLOGIA-, ETA OSASUN-KULTURARAKO KONPETENTZIA	65
2.4.1. Emaita orokorren bilakaera	65
2.4.2. Ikasleen banaketaren bilakaera errendimendu mailen arabera	66
2.4.3. Emaita orokorrak geruzen arabera: hizkuntza eredua eta hezkuntza sarea	67
2.4.4. Emaitzak probako hizkuntzaren eta familia-hizkuntzaren arabera	71
2.5. GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO KONPETENTZIA	75
2.5.1. Emaita orokorren bilakaera	75
2.5.2. Ikasleen banaketaren bilakaera errendimendu mailen arabera	76
2.5.3. Emaita orokorrak geruzen arabera: hizkuntza eredua eta hezkuntza sarea	77

2.5.4. Emaitzak probako hizkuntzaren eta familia-hizkuntzaren arabera	81
3. EMAITZAK, ZENBAIT ALDAGAIEN ARABERA	87
3.1. EMAITZAK IKASLEEN SEXUAREN ARABERA	91
3.1.1. Emaiza orokorren bilakaera sexuaren arabera	91
3.1.2. Ikasleen banaketaren bilakaera sexuaren arabera errendimendu mailetan	94
3.2. DAGOKION IKASMAILAN EGOTEA.....	99
3.2.1. Emaiza orokorren bilakaera jaiotza urtearen arabera	99
4. HOBKUNTZA-PROZESUEN AZTERKETA DBHKO 2. MAILAN, 2009TIK 2013RA BITARTE	103
4.1. AZTERKETA EMAITZA OROKORRETATIK ABIATUTA.	
Ikastetxeen puntuazioaren murrizketa eta igoera adierazgarria 2009 eta 2013 artean.....	107
4.2. AZTERKETA ERRENDIMENTU MAILETATIK ABIATUTA.....	113
4.2.1. Hasierako mailan eta maila aurreratuan, ikastetxeen arabera, bilakaera ikasleen ehunekoetan	113
4.2.2. Hasierako Ikasleen ehunekoen arteko aldeak errendimendu mailen eta konpetentzien arabera 2009 eta 2013 artean euskadin.....	114
5. IKASTETXEEN AZTERKETA EMAITZEN ETA ERAGINKORTASUNAREN ARABERA.....	119
5.1. IKASTETXEEN ERAGINKORTASUNA: BALIO ERANTSI HANDIA ETA TXIKIA DUTEN IKASTETXEAK.....	121



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILBURUAREN SARRERA



Ebaluazio diagnostikoa baliogarria da ezagutzeko bai ikasleen konpetentzi mailak bai eta ezagutzeko ikastetxeen egoera eta hezkuntza sistemaren egoera globaltasunez. 2008-09an egin zen lehen aldiz azterketa hau, eta ordutik, azterketa honen lau edizio egin dira. Horrek esan nahi du ebaluazio-prozesu hau gure hezkuntza-sistemaren eta ikastetxe bakoitzaren hobekuntzarako tresna estrategiko gisa hartu dela. Euskal hezkuntza komunitatean eta parlamentu alorrean bada ebaluazio-sistema on eta sendoa izatearen garrantziari buruzko oinarritzko akordio bat, bere ezaugarriekin, eta gure behar eta prozesuetara egokitua.

Tresna honek hezkuntza-administrazioari informazio zabala, zehatza eta iraunkorra ematen dio, eta bestetik, erreferentzia garrantzitsu bihurtu da hezkuntza-politikaren joera zehazteko eta ikastetxeen eta irakasleen arreta-estrategiei, prestakuntzari eta aholkularitzari koherentzia emateko. Sailaren hiru zerbitzuek, hau da, Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak (ISEI-IVEI), Hezkuntza Ikuskaritzak eta irakasleei laguntza emateko zerbitzuak (Berritzegune) elkarrekin garatutako ebaluazioa da; guztiak Hezkuntza Sailburuordetzak koordinatzen ditu. Hiru zerbitzu horien arteko lankidetzak sinergiak sortzen ditu laneko prozesuetan eta jarduerari koherentzia ematen laguntzen du.

Ebaluazio diagnostikoak ikastetxeei beren egoerari buruzko informazio erakargarria eta testuinguruari egokitutakoa eskaintzen die, eta lau edizioen ostean, emaitzen bilakaerari buruzko informazioa ere eskaintzen du. Gainera, antzeko errealitateak alderatzen ditu, bai egoera sozioekonomikoa eta kulturalaren arabera, bai hezkuntza-sarea eta hizkuntza-ereduaren arabera.

Txosten exekutibo hau argitaratuz, ebaluazio honetan parte hartu zuten eta funts publikoak jaso zituzten Lehen Hezkuntzako 524 ikastetxeri bidalitako ikastetxeko txostenekin, eta familiei entregatutako 20.000 txosten indibidual baino gehiagorekin batera, faserik garrantzitsuenari eman zaio hasiera: Ikastetxearen hobekuntza-planen inguruko gogoeta egitea eta plan horiek berritzatzea. Hori da ebaluazio-prozesu honen guztiaren azken helburua.

Ebaluazio diagnostikoaren bidez, euskal gizarteari hezkuntza-sistemaren egoerari eta aurrerapenari buruzko kontuak eman nahi dizkiogu. Horretarako, eskolak bizitzarako nola prestatzen duen baloratu dugu eta gure ikasleak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasleak ordezkari gisa hartuta, gizarte moderno, ireki, aldakor eta gero eta konplexuago honetan herritar gisa jokatzeko zenbateraino dauden prestatua ikusiko dugu.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburua
Cristina Uriarte





I. 2013KO APLIKAZIOAREN EZAUGARRIAK ETA DATUAK



Ebaluazio-diagnostikoak oinarritzko gaitasunak neurtzen ditu. Hori dela eta, gure ikastetxe bakoitzean egindako curriculum-garapen zehatzetik bereizita dago. Ez dago kontzeptuaren onarpen unibertsalik; hala ere, konpetentzia garrantzitsutzat, beharrezkotzat edo oinarritzkotzat hartu ohi dira edonorentzat eta gizartearentzat beharrezkoak eta onak direnak; beharrezko konpetentzia horiek "gizarteko kide aktibo gisa bizitza egokia eduki ahal izateko banako guztien beharrezko ezagutzen, trebezien eta jarrearen multzo" gisa ulertzeko denen adostasuna dago.

Ikuspegi honetatik, alor edo jarduera batean trebea izateak alor horrekin lotutako egoera eta arazo jakin batzuei aurre egin ahal izateko ezagutza garrantzitsuak aktibatzeke eta erabiltzeko gai izatea esan nahi du. Hau da, ezagutzez gain, hauek egiteko gaitasuna duela esan nahi du: eskuratutako ikaskuntzak modu fidagarrian aukeratzeko eta aplikatzeko, egoera zehatzetan erabiltzeko eta bere esperientzia pertsonaletik eta hezkuntza-esperientziatik hurbil dauden egoeretan eta testuinguruan arazoak konpontzeko.

2009an sortu zenetik, ebaluazio diagnostikoaren antolaketa bi alorretan egituratzen da: batetik, alderdi finkoa. Bertan, izaera instrumentalena duten hiru konpetentzien –*Euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia eta Matematikarako konpetentzia*– edizio guztietan egiten da ebaluazioa, betiere, egoera ahalik eta zehatzen eta ondoren neurtzeko. Bestetik, alderdi aldakorragoa. Bertan, oinarritzko irakaskuntzen martxoaren 30eko 97/2010 Dekretuan zehaztutako gainerako konpetentziak ebaluatzen dira jarraian.

Ebaluazio diagnostikoaren aurtengo edizioan (ED13), aurreko hiru edizioetan ebaluatutako oinarritzko konpetentzia finkoez gain (*Euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia eta Matematikarako konpetentzia*), bigarren aldiz ebaluatu dira *Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzia* (2009an ebaluatu zena) eta *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia* (2010ean ebaluatu zena). Gainera, lehen aldiz ebaluatu da *Ikasten ikasteko konpetentzia*. Hori horrela, aplikazio honetan egindako eskemaren bidez, emaitza alderagarriak izan ditzakegu bost konpetentzietan, eta erreferentzia-puntu berri bat izango dugu orain arte ebaluatu gabeko konpetentziaren bidez.

Hurrengo taulan, oinarritzko konpetentzia bakoitzaren egoera ikus daiteke ebaluazio-prozesuari dagokionez:

OINARRIZKO KONPETENTZIAK		ED09	ED10	ED11	ED13
Euskarazko	hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia	✓	✓	✓	✓
Gaztelaniazko	hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia	✓	✓	✓	✓
Ingeleseko	hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia			✓	
Matematikarako konpetentzia		✓	✓	✓	✓
Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzia		✓			✓
Gizarterako	eta herritartasunerako konpetentzia		✓		✓
Ikasten ikasteko gaitasuna					✓
Informazioaren trataera eta gaitasun digitala					Pilotua
Kultura humanistikorako eta artistikorako konpetentzia					
Autonomia eta ekimen pertsonala					

I.I. APLIKAZIO PROZESUA

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Ebaluazio diagnostikoa 2013ko apirilak 15 eta maiatzak 17 artean egin zen. Probako itemak konpetentzia bakoitzeko aditu taldeak egin zituen, eta ISEI-IVEIko teknikariek koordinatu zituzten. Ikasleen proben aplikazio-lanak ikastetxetik kanpoko langileek egin zituzten eta haien kalitate-kontrolaren ardura Hezkuntzako Ikuskaritzarena eta ISEI-IVEIrena izan zen.

Ikastetxeetan probak bi egunez jarraian aplikatu zituzten. Horien iraupena, gutxi gorabehera, egunean hiru ordu eta erdikoa, eta lau ordu artekoa izan zen. Egun haietako bakoitzean, ikasleek errendimenduko hiru proba egin zituzten. Konpetentzia jakin baten inguruko proba batetik bestera 20 eta 30 minutu arteko atsedenaldia izan zuten. *Euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziari* dagozkion bi probak egun ezberdinetan egin zituzten, beti ordena berdinean.

Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako eta Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziak batera ebaluatu ziren bien itemez osatutako bi koadernotan banatutako proba misto baten bidez. Ikasleek, bi konpetentzia horietan, ez dituzte galdera berberak erantzun. Izan ere, koaderno bakoitzean, zati bat komuna edo berdina zen, eta beste zati bat desberdina. Horrela, konpetentzia bakoitza zabalago ebaluatu ahal izan da, baina ezin dira banakako emaitzak eman.

Ikasten ikasteko konpetentziari dagokion probako itemak erantzuteko, ebaluazio honetan parte hartu duten ikastetxe bakoitzeko ikasleen % 50en (gutxienez) lagina aukeratu zen. Lagin honen bidez, euskal hezkuntza-sistemako geruza bakoitzaren eta komunitate mailako emaitzen emaitza fidagarriak izan ditzakegu; hala eta guztiz ere, laginen ezaugarriei erreparatuz, ezinezkoa da ikastetxe mailan eta banakako mailan datuen ekarpena egitea. Txosten Exekutibo honetan ez daude konpetentzia honen emaitzak eta txosten monografiko batean emango dira ezagutzera.

Konpetentzia finkoetan gertatzen ez den bezala, *Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako eta Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia* neurtzeko modua, 2013ko edizioan, ez da bi konpetentziak lehen aldiz ebaluatu zireneko berdina izan. Lehen, konpetentzietako bakoitza modu independentean eta ikasle guztientzako koaderno komun bakarrarekin ebaluatu zen, eta 2013an elkarrekin ebaluatu ziren. Egoera hori emaitzei eragin ziezaiekeen faktorea izan zitekeen. Hala ere, zaila da zenbatera arte eragin dien jakitea.

Idazmenari dagokionez, Komunitate mailako emaitzak lortu nahi zirenez, proba horiek lagin batean aplikatu ziren modu kontrolatuan. Aurreko konpetentziaren kasuan, ikastetxe bakoitzeko ikasgela bateko ikasleen % 50ez zegoen osatuta, % 25eko banaketarekin hizkuntza bakoitzean, hau da, euskara eta gaztelania. Hezkuntza Sailak ISEI-IVEIk emandako ereduak, irizpideak eta adibideak bidali zizkien ikastetxeei, haiek egin zezaten, baina borondatez, betiere.

Ebaluatutako oinarrizko kompetentziak		Proben iraupena
Hizkuntza-kompetentzia: Entzumena eta irakurmena.	Euskara	55 minutu
	Gaztelania	55 minutu
Matematikarako kompetentzia		55 minutu
Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako kompetentzia		55 minutu
Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia		
Ikasten ikasteko gaitasuna (lagina).		45 minutu
Euskarazko eta gaztelaniazko irakurmeneko kompetentzia (lagina)		45 minutu

Errendimenduko probaren aplikazio-ordena, 2011ko proban erabilitako ordenari jarraituz gauzatu zen. Honako hau izan zen:

Aplikazioaren lehenengo eguna	Aplikazioaren lehenengo eguna
Lehenengo proba: <i>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia</i>	Lehenengo proba: <i>Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia</i>
Bigarren proba: <i>Matematikarako kompetentzia</i>	Bigarren proba: proba mistoa hurrengo itemekin: - <i>Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako kompetentzia.</i> - <i>Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia</i>
Hirugarren proba: zenbait proba, lagina batean egindakoak, eta item berriez osatutako pilotajea.	Galdera-sorta.

Errendimendu-probez gain, ikasleek familiarekin lotutako informazioa biltzen zuen 30 minutuko galdera-sorta ere bete zuten gai hauen inguruan: jabetzak, kultur ondasunak, gurasoen ikasketak, familiaren egoera eta abar. Beste galdera batzuek familiaren jatorria eta hizkuntzari buruzko informazioa biltzen zuten. Horrekin batera, ikastetxez kanpoko alderdiak, ikastetxeari buruzko alderdiak, ikasleak ikasketekiko duen jarrera edo arlo jakin batzuekiko nahiak ere aztertu ziren. Era berean, aplikazio honetan, zientziekin eta hezkuntza bereziko ikasleekiko jarrerarekin lotutako zenbait iritzi bildu dira.

Ikasleak emandako informazioaren fidagarritasun osoa bermatze aldera, ISEK (indize sozioekonomikoa eta kulturala) indizea (aitaren eta amaren ikasketak eta egungo enplegua, liburu kopurua, etxeko baliabideak: Internet, entziklopediak, literatura klasikoko liburuak, egunkariak edo aldizkari espezializatuak) eraikitzeke familia guztiek galdetegiko galdera guzti hauek erantzun zituzten. Horretarako ikasleek etxera galdetegia eraman zuten beraien gurasoek betetzeko. Galdera-sorta osoa erantzuteko unean, probako bigarren egunean, ikasle bakoitzak ordenagailuko galdetegian kopiatu zituen beraien familiak emandako erantzunak.

Galdera-sorta hauetan bildutako informaziotik abiatuta, eta emaitzekin elkarren arteko harremanak ezartzeko helburuarekin, hainbat aldagai ezarri dira txosten honetan: ikaslearen sexua, jaiotza-urtearen arabera eskolatuta dagoen mailaren egokitasuna, eta probako hizkuntzak eta familia-hizkuntzak hizkuntza-komunikaziokoak ez diren kompetentzien emaitzetan duen eragina.

Azkenik, ebaluazio diagnostikoen aplikazio guztietan gertatzen den moduan, hainbat kompetentzietako item berriak probatzeko aprobetxatu zuten, beste batzuen artean, *Informazioaren trataera eta gaitasun digitala*, hurrengo edizioan ebaluatzeko, betiere.

Ebaluazio honetako edizio bakoitzean aldaketak txertatu dira, baina ez die 2008-09 ikasturtean hasitako ereduaren oinarritzko ezaugarriei eragin: zentsua, estandarizaturia, kanpo-aplikazioarekin eta konfidentzialtasun-bermeekin. Hala eta guztiz ere, 2013ko edizioan, bi egoera berri gertatu dira:

- Lehenengo aldiz, aplikazio guztia euskarri informatikoan egin da, Eskola 2.0. ekipamenduaren bidez, kanpoko USB gailu baten bidez. Papera ordenagailuarekin ordezkatzeari, Ebaluazio diagnostikoa hezkuntza-prozesuetan teknologia berrien erabilera izan duen gorakadarekin batera kokatu behar da, eta gainera, ebaluazioaren nazioarteko eredu estandarrera hurbiltzen gaitu (PISA 2015ean aplikazio osoa ordenagailuan egingo da). Gainera, paperaren kontsumoa nabarmen murriztu da. Horrek ingurumenean duen eragina gutxitu da eta hezkuntza-behar bereziak dituzten zenbait ikasleri parte hartzeko baldintza hobekiak eskaini dira.
- Hau izan da ikasleen emaitzen luzetarako alderaketa gauzatu ahal izan den lehen aldiz; izan ere, 2009an lehen ebaluazioan parte hartu zutenek, Lehen Hezkuntzako 4. mailan zeudenean, ED13an hartu dute parte DBHko 2. maila egiten ari zirela. Datu horiek biltzea zaila izan da; izan ere, ez zegoen lehen edizioan parte hartu zuten ikasleen identifikazio-koderik eta ikasleen galdera-sortaren arabera egin behar izan da.

I.2. EBALUATUTAKO POPULAZIOAREN DESKRIBAPENA

Zentsuko ebaluazioa zenez, 2013ko proban, aurreko edizioetan bezala, diru publikoarekin mantendutako ikastetxeetan (publiko zein itunpeko) eskolatutako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasle guztiak parte hartu zuten. Honelakoa izan da EDko lau edizioetan ebaluatutako populazioa:

DBHKO 2. MAILA				
	ED09	ED10	ED11	ED13
Ikastetxe kop.	335	333	330	324
Talde kop.	839	858	870	905
Ikasle kop.	17.550	18.021	18.279	19.241

Ikus daitekeen moduan, 2013ko edizioa da edizio guztien artetik ikasle kopuru handieneko edizioa, 2009ko lehen edizioan baino 1.700 gehiago, eta 2011ko azken edizioan baino 1.000 gehiago. Maila honetan eskolatutako ikasle guztiak probak egin ahal izatea bermatzeko ahalegin berezia egin da, egoera edo ezaugarri pertsonala edozein izanda ere. Hain zuzen ere, proba euskarri informatikoan egiteak ikasle horien parte-hartze baldintzak hobetzea ahalbidetu du, entzumen-zailtasunak dituzten ikasleen kasua, esate baterako. Horientzat, zehazki, zeinu hizkuntzara egokitutako bideo bat prestatu zen entzumen-probarako. Ikusmen-zailtasunak dituzten ikasleentzat berriz, programak hizkiaren tamaina handitzeko aukera ematen zuen.

Hala eta guztiz ere, Ebaluazio diagnostikoaren araudiak adierazten duen moduan, eta nazioarteko ebaluazio guztietan ohikoa den moduan, zenbait ikaslek lortutako puntuazioa ez da kontuan hartu ikastetxeetako eta taldeetako batez besteko puntuazioa kalkulatzeko garaian¹.

Jarraian, Euskadiko ikastetxe guztietako DBHko 2. mailan matrikulatuta dauden ikasleen inguruko datuak biltzen dituzten taulak ageri dira; beste nolabait esanda, maila horietan 2013. urteko Ebaluazio diagnostikoa egiteko zentsua osatu zuten ikasleak dira.

Zutabeetan ageri diren datuak ulertu ahal izateko, alderdi hauek zehaztuko ditugu:

1. *Ikasleak, guztira*: maila bakoitzean matrikulatutako ikasleen kopurua zehazten du. Datu horiek ikastetxeetako zuzendaritzek eman zituzten.
2. *Proban bilduta dauden ikasleak*: Printzipioz probak egiteko betebeharrak guztiak betetzen zituzten ikasleak dira.
3. *Puntuazioan bilduta ez dauden ikasleak*: ebaluatutako taldeetan eskolatutako ikasleak dira, baina haien emaitzak ez dira kontuan hartu ikastetxeko edo taldeko datu orokorren azterketa egiteko garaian. Horretarako arrazoiak hauek izan daitezke: ebaluatutako konpetentziarekin zuzenean lotutako alderdian CEIren bat zuten, euskara salbuetsia zuten, edo nahiz eta probara joan, maiz joaten ez direnen taldekoak ziren; etorkinak ziren urtebeteko eskolatzeari baino gutxiagorekin, eta gainera, ez zuten aplikazio-hizkuntza ezagutzen; eskolatzeari osagarria zen programa bat ari ziren egiten.
4. *Aurkeztu ez diren ikasleak edo haien datuak galdu diren ikasleak*: proban sartuta dauden eta ebaluazioa egin beharko zuketako ikasleak dira, baina gorabehera ezberdinak direla eta, proba-egunean ez ziren bertan izan, edo datuak galdu egin dira informatika-aplikazioaren prozesuan.
5. *Proba egin zuten ikasleak*: probak egin zituzten ikasleen behin betiko kopurua da. Haien puntuazioak kontuan hartu dira ikastetxeko eta komunitateko emaitza orokorretan.
6. *2013an proba egin zuten ikasleen ehunekoa*: 2013an proba egin zuen ikasleen ehunekoa. Horien puntuazioak kontuan hartu dira ikastetxeko eta komunitateko emaitza orokorretan.
7. *2011n proba egin zuten ikasleen ehunekoa*: 2011n proba egin zuen ikasleen ehunekoa. Horien puntuazioak kontuan hartu dira ikastetxeko eta komunitateko emaitza orokorretan.

¹ Hauek ziren puntuazioan txertatuta ez egoteko arrazoi bakarrak: probak egitea galarazten zien Curriculum Egokitzapen Indibidualdua (CEI) zutenei, duela urtebete baino gutxiago iritsitako etorkina izateari, eta probako hizkuntza ezagutzen ez zutenei, eskolatzeko-programa osagarri bat egiten ari zirenei edo euskaratik salbuetsia izateari.

Konpetentziak	Ikasleak, guztira	Ikasleak barne	Puntuazioan bilduta ez dauden ikasleak	Galdutako edo bertan ez dauden ikasleak	Proba egin eta puntuazioan sartu ziren ikasleak	Proba egin zuten ikasleen %	Proba egin zuten ikasleen %
<i>Euskarazko hizkuntza-komunikazioa</i>	19.241	17.747	1.494	3.573	14.174	79,9	87,5
<i>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa</i>		18.300	941	4.235	14.065	76,9	91,0
<i>Matematikarako konpetentzia</i>		18.243	998	1.236	17.007	93,2	91,3
<i>Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzia</i>		18.333	908	1.269	17.064	93,1	91,1
<i>Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia</i>		18.332	909	1.272	17.060	93,1	91,1

Ikus daitekeen moduan, 2013ko azken edizioan bi egoera nabarmentzen dira: Hizkuntza-komunikaziokoak ez diren konpetentzien kasuan, puntuazioan txertatutako ikasleen ehunekoa 2011ko ediziokoa baino altuagoa da. Aldiz, bi hizkuntza-konpetentzietan, ehuneko horrek behera egiten du nabarmen.

Bi hizkuntza-komunikazioetarako konpetentzien probak egin ziren lehen ikastetxeetan arazo informatikoak sortu ziren entzumenarekin, *Entzumenari* dagokion zatian. Ondorioz, datu horietako batzuk galdu egin ziren, eta beste kasu batzuetan, ezabatu egin behar izan ziren, proba ez baitzen baldintza egokietan egin. Ez zen egoera hori sortu *Idazmenari* dagokion probaren zatian. Hala eta guztiz ere, ikastetxeko edo komunitateko batez bestekoan ez dira sartu proba osorik egin ezin izan ez zuten ikasle guztien puntuazioa. Ikasle horiek guztiek banakako txostena izango dute *Idazmeneko* puntuazioarekin.

Hizkuntza-komunikaziorako bi konpetentzietan informazioa galtzeak, autonomia erkidego mailan, ez die emaitza orokorrei eragiten; izan ere, eskuragarri dagoen lagina emaitzen kalitatea eta fidagarritasuna bermatzeko bezainbesteko zabala eta indartsua da; hala eta guztiz ere, ikastetxe batzuetako emaitzei eragin die, batez ere, informazio gehien galdu duten ikastetxeei. Kasu horietan, ikastetxeek hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia batean edo bietan emaitzen kalitatearen inguruko informazio zehatza jaso dute, eta kasu batzuetan, ikastetxeko edo ikastetxe taldeen datu orokorra Euskadiko batez besteko puntuazioarekin ordezkatu da dagokion geruzan. Era berean, egoera horrek eragin dieten ikasleen familiek azalpen-ohar batekin jaso dute Banakako txostena.


1.2.1. Geruzen arabera ebaluatutako populazioaren azterketa, ISEKen arabera.

Indize sozioekonomikoa eta kulturala (ISEK) ikasleen galdera sortetan jasotako erantzunetatik finkatzen da eta hainbat alderdi jasotzen ditu, besteak beste, gurasoen maila profesionala, familiakoen ikasketa mailarik altuena eta ikerketek oso adierazgarritzat hartzen dituzten ondasun material eta kultural jakin batzuk edukitzea (liburuak, egunkariak, aldizkari espezializatuak, etxean ordenagailua eta Internet izatea...)

Ikastetxe bakoitzeko ikasleen batez bestekoa banakako datuetatik abiatuta kalkulatzen da. Balio horren batez bestekoa 0an zentratu da —Autonomia Erkidegoko batez bestekoa— eta leko desbideratze tipikoa du. Kontuan izan behar da ez direla maila absolutuak, etapa bakoitzean ebaluatutako lagineko ikasleekin egindako alderaketa baizik. Analisi konparatiboa egin ahal izateko, ISEK indizerako lau maila finkatu dira (baxua, ertain-baxua, ertain-altua, altua) eta mailetako bakoitzean ikasleen % 25 kokatzen da. Hauek dira ISEK indizearen lau balioak: 2013an, hauek dira ISEKen lau balioak:

ED13- DBHko 2. maila. ISEKen balioen tarteak. Ikastetxeak			
ISEK maila	Gutxieneko balioa	Gehieneko balioa	Batez besteko balioa
Baxua	-2,17	-0,41	-0,75
Ertain-baxua	-0,41	-0,09	-0,23
Ertain-altua	-0,09	0,26	0,07
Altua	0,27	1,55	0,64

1.2.1.a. grafikoak, ISEK maila bakoitzaren batez besteko balioez gain, ISEK maila hauetako bakoitzean kokatutako ikastetxeetan eskolatuta dauden ikasleen ehunekoa erakusten du. Egiazta daitekeen moduan, ISEK maila bakoitzean ikastetxeen ehunekoa berbera (% 25) denez, maila baxuko ikastetxeak, ikasle kopuruari dagokionez, tamainaz txikiagoak dira maila ertain-altua edo altuko ikastetxeak baino. Maila baxuko ikastetxeetan populazioaren % 18 eskolatzen da, eta maila altuko ikastetxeek DBHko 2. mailako ikasleen ia herena dute.




Hurrengo taulak ebaluazio honetan aintzat hartutako sei geruzetako² bakoitzaren batez besteko ISEK-en balioa erakusten du, baita 2013ko edizioan geruza bakoitzak duen garrantzia ere.

Itunpeko sarearen geruzak indize honen maila altuan edo ertain-altuan kokatzen dira -jarraian ikusiko dugun moduan, aurreko edizioetan ere gertatzen zen hori-, eta sare publikoko geruzak maila baxuan edo ertain-baxuan kokatzen dira.

Geruza	ISEK indizearen batez besteko balioa		Geruza bakoitzak 2013 aplikazioan duen ehunekoa
A Publikoa	-1,06	Baxua	4,7
B Publikoa	-0,57	Baxua	5
D Publikoa	-0,10	Ertain-baxua	37,8
Itunpeko A	0,34	Altua	7,8
Itunpeko B	0,16	Ertain-altua	22,7
Itunpeko D	0,24	Ertain-altua	22

1.2.1.b. grafikoa, batetik, geruza bakoitzaren ISEK indizearen batez bestekoa erakusten du, eta bestetik, geruza bakoitzak 2013ko edizioan parte hartu duten ikasleen guztizkoan duen ehunekoaren datuak ematen dizkigu. Garrantzi gehien duen geruza D publikoa da, lagin osoaren % 38 inguru ordezkatzen baitu. Aldiz, A publikoa da ordezkapen gutxien duen geruza, % 4,7ko datuarekin. Lagineko ikasleen % 67 inguru D eremuan dago eskolatuta, eta % 12,5 soilik ari da bi sareetako A eremuan ikasten.

² Geruza bat ISEK maila jakin batean egoteak ez du esan nahi geruza horretako ikastetxe guztiek derrigorrez ISEK maila hori izan behar dutenik. Gainera, datuak behar bezala baloratzeko oso garrantzitsua da geruza bakoitzak 2013ko aplikazioan ordezkatzen duen ehunekoa kontuan izatea.




Ebaluazio diagnostikoko lau edizioetan geruza bakoitzeko ISEK indizearen batez besteko mailak alderatzen baldin baditugu, lehen antzemandako hainbat joera berretsiko ditugu:

- A eta B geruza publikoak ISEK indizearen maila baxuan daude oraindik, aurreko edizioetan gertatzen zen moduan. B eredu publikoaren kasuan, ISEK indizearen maila ertainean jaisten jarraitzen du, eta 2013ko da edizio guztien artetik baxuena.
- D geruza publikoarekin ere antzeko zerbait gertatzen da. Azken hiru edizioekin alderatuta, mailak okerrera egin du. Hala ere, erkidegoko batez bestekotik oso gertu kokatzen da.
- Itunpeko sareko A eta B geruzek aurreko edizioetako maila mantentzen dute eta nabarmendu beharrekoa da itunpeko A ereduak gainerako geruzekiko balioaren distantzia handitu egin duela. Itunpeko D ereduak 2011ko ISEK batez besteko balio berbera mantentzen du. Hala ere, 2013ko edizioan maila baxuagoan kokatzen da, maila altutik ertain-altura pasatu baita.

Geruza	ED09 ISEK indizearen batez besteko balioa	ED10 ISEK indizearen batez besteko balioa	ED11 ISEK indizearen batez besteko balioa	ED13 ISEK indizearen batez besteko balioa
A Publikoa	-0,68 Baxua	-1,16 Baxua	-1,33 Baxua	-1,06 Baxua
B Publikoa	-0,35 Ertain-baxua	-0,47 Baxua	-0,50 Baxua	-0,57 Baxua
D Publikoa	-0,12 Ertain-altua	-0,07 Ertain-altua	-0,07 Ertain-altua	-0,10 Ertain-baxua
Itunpeko A	0,24 Altua	0,18 Ertain-altua	0,25 Altua	0,34 Altua
Itunpeko B	0,08 Ertain-altua	0,12 Ertain-altua	0,11 Ertain-altua	0,16 Ertain-altua
Itunpeko D	0,16 Ertain-altua	0,21 Ertain-altua	0,24 Altua	0,24 Ertain-altua

1.2.1.c. grafikoa: BHko 2. maila. ED09-ED10-ED11-ED13. ISEK mailen bilakaera geruzen arabera.




1.2.2. Ikasleen ehunekoa geruzen eta ISEK indizearen mailen arabera

*1.2.2.a grafikoa*an, geruza bakoitzerako ISEK maila bakoitzean dauden ikasleen ehunekoa ageri da. Argi ikus daiteke egoera geruza bakoitzean, ISEK mailen araberrako egoeren aniztasuna eta ikasleen ehunekoen askotariko banaketa daudela.

- A geruza publikoan, ikasleen % 74,2 ISEK indizearen maila baxuan kokatzen da; aldiz, itunpeko D geruzan, % 7,7 soilik kokatzen da maila honetan. % 49,4 maila altuan dago eta A geruza publikoan ez da inor ageri.
- B geruza publikoan, ikasleen % 47,6 maila baxuan dago, eta itunpeko sareko geruza bereberetan % 30 ikasle gutxiago dago maila honetan, hau da, ikasleen % 9 soilik dago maila baxuan. 2010. urteko ehuneko berberak.
- D geruza publikoan, % 14 maila altuan dago; aldiz, itundutako D geruzan % 53 maila honetan dago.


Itunpeko sarean, ikasleen % 49 eta % 78 artean kokatzen da ISEKeko maila altuan, eta sare publikoan, maila horretako ikasleen kopurua ez da % 15era iristen.

1.2.2.a. grafikoa: ED13-DBHko 2.maila. Geruza bakoitzeko ikasleen ehunekoa ikastetxeko ISEK indizearen arabera.



1.2.2.b grafikoa, 1.2.2.a grafikoko datuak ageri dira, baina edizio honetako guztiko laginean geruza bakoitzak duen garrantziaren arabera. 1.2.1.b grafikoa ikusi dugu A geruza publikoak D geruza publikoak baino 8 aldiz ordezkaritza txikiagoa duela.

1.2.2.b. grafikoa: ED13-2ESO. Ikasleen ehunekoa geruzen eta ISEK indizearen mailen arabera.



Aurreko grafikoa ondo ulertzeko, beharrezkoa da 1.2.2.a grafikoa dauden datuak kontuan izatea. Esate baterako, 1.2.2.b grafikoa ikus daitekeen moduan, maila baxuko ikasleen ehunekorik altuena D geruza publikoan dago, laginaren guztizkoaren % 6,4. Hala ere, % 6,4 hori geruza honetako ikasle guztien % 16,8ri dagokio.


Ondorio orokor gisa, hauek hartu behar dira aintzat:

- Lagin osoko ISEK indizearen maila altua duten ikasleen ehuneko altuena itunpeko D ereduari dago, % 10,9, eta itunpeko B ereduari, % 9a dago.
- Ikasle gehienak D geruza publikoaren maila ertain-baxuan biltzen dira % 14,6. Geruza berebereko maila ertain-altukoak datoz jarraian, % 13,4ko ehunekoarekin. Itunpeko D geruzaren eta itunpeko B geruzaren maila altua dator ondoren.
- D geruza publikoa, gainera, oso orekatua da ehunekoetan: bi heren erdiko mailetan eta heren bat muturreko mailen artean. Proporzio altuagoa ISEK indizearen maila baxuan. Aldiz, itunpeko geruzen kasuan, ehunekorik altuenak ISEKeko maila altuan daudela nabari da. Batzuetan gainerako mailen batuketara hurbiltzen dira edo kopuru hori gainditzen dute, itunpeko A eta D geruzen kasuan, esaterako.
- ISEKeko maila baxuko ehunekorik altuenak D geruza publikoan (% 6,4), Itunpeko B geruzan (% 4,3) eta A geruza publikoan (% 3,5) gertatzen dira.

1.2.3. Geruza bakoitzak Ebaluazio diagnostikoan dituen ehunekoaren bilakaera

1.2.3 grafikoan, ebaluazio diagnostikoko lau edizioetan geruza bakoitzak ordezkatzen dituen ehunekoaren bilakaera har daiteke aintzat.

1.2.3. grafikoa: BHko 2. maila. ED09-ED10-EED11-ED13. Geruza bakoitzak EDko lau edizioetan ordezkatzen duen ehunekoa.



Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako Ebaluazio diagnostikoan, D ereduak, bai geruza publikoan, bai pribatuan, igoera izan duela nabari da. 2009 eta 2013ko datuak alderatzen baldin baditugu, honako hau antzemango dugu:



- 2009tik aurrerako laginean, A geruza publikoa oso igoera arina izan du. Hala ere, 2013ko ehunekoa aurreko bi edizioetakoa baino baxuagoa da.
- Itunpeko A geruzak % 30 baino gehiago egin du behera.
- B geruza publikoak zertxobait egin du behera, eta lagineko % 5 inguru dago B geruza publikoan eskolatuta.
- Itunpeko B geruzak ehuneko berberean jarraitzen du 2009tik eta % 23 inguruan kokatzen da.
- D geruza publikoak izan du igoera handiena, % 3,3 2009tik, eta lagin osoaren % 38 biltzen du.
- Bost ikasturte horietan, itunpeko D geruzak ere gora egin du. Hala ere, sare publikoko eredu berberak baino neurri txikiagoan.

1.3. EMAITZEN AURKEZPENA

2013ko probako eta Txostenaren lehen atal honetan egindako laginaren ezaugarrien deskribapenaren ostean, hurrengo atalak oinarritzko konpetentzia bakoitzaren emaitzen aurkezpenez eta hainbat aldagairen azterketaz arduratzen dira. Aurkezpenean, hau da ordena:

- Hasteko, ebaluatuko oinarritzko bost konpetentzien emaitzak erakutsiko dira (dagoeneko adierazitako moduan, *Ikasten ikasteko konpetentziaren* emaitzak laster aurkeztuko dira Txosten monografiko baten bidez).
- Jarraian, emaitzetan eragin argia duten bi aldagairen azterketa aurkeztuko dute: ikasleen sexuaren eta ikasleen egokitasunaren arabera.
- Azkenik, azterketako hainbat edizioaren artean, ikastetxeetako emaitzen bilakaeraren azterketa eta balio erantsiarekin lotuta, eraginkortasun mailen azterketa egingo da.

Txosten honetako bigarren atalean, ebaluatuko oinarritzko bost konpetentzien emaitzak aztertzeraz zuzendutako atalean, beste hainbat gauzaren artean, azterketa hau eskaintzen da:

a) Konpetentzia bakoitzeko batez besteko puntuazioa

Ohikoa izan ohi den moduan, 2013ko ebaluazio diagnostikoaren batez besteko puntuazioa desberdina da ebaluatuko konpetentzia bakoitzean. Gogoratu behar dugu 2009. urteari dagokion lehen ebaluazioan ebaluatutako konpetentzia guztiei batez besteko estatistiko berdina ezarri zitzaizela, 250 puntukoa, 50eko³ desbideratze tipikoarekin, eta hori zen hurrengo probetan alderaketak ezartzeko abiapuntua. Konpetentzia guztietan, aurreko ebaluazioetan lortutako batez besteko puntuazioak 2013ko puntuazioarekin alderaketak egiteko aukera ematen du.

Euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren kasuan, emaitzen hizkuntza-ereduen arabera bilakaera ageri da.

³ Ikasleen errendimendua zehazteko *Itemarekiko erantzunaren teoria (IET)* erabili da. Ikasle bakoitzaren errendimendua ordenatzeko eskala bat sortu da. Eskala honek 250eko batez bestekoa eta 50eko desbiderapen tipikoa ditu. Eskala horretan, erreferentzia-puntu batzuk finkatzen dira (*konpetentzia mailak* edo *errendimendu mailak*). Eskalari zentzua emateko eta oinarritzko konpetentziekin erlazionatzeko, ebakidura-puntu edo konpetentzia maila bakoitzari puntuazio hori edo handiagoa lortu duen ikasleak eskuratuta dituen eduki, trebetasun eta eragiketa kognitibo multzo bat lotu zaio. Hau da, 325 puntuan dagoen ikasle batek puntuazio horri lotutako konpetentziak eta beheragoko mailai lotutakoak ditu eskuratuta.

b) Ikasleen ehunekoen banaketa, errendimendu mailen arabera

Emaitzak errendimenduko hiru mailatan antolatuta aurkeztu dituzte: hasierakoa, ertaina eta aurreratua. Aipatutako maila bakoitzean, ikasle batek aurre egin beharreko egoerei eta arazoei irtenbidea emateko behar dituen ezagutzak, gaitasunak eta trebetasunak zehazten dira. Ikasle bat maila jakin batean kokatuta dagoenean, baieztatu daiteke trebea dela maila horretako eta aurreko mailetako gaitasunetan. Ebaluatutako oinarritzko konpetentzian desberdinak diren proben puntuazio-zatiei lotuta dago bakoitza.

- *Maila aurreratuan* kokatzen dira dagokien konpetentzian garapen maila altua duten ikasleak. Horrek esan nahi du gai direla zereginak behar den autonomiaz eta eraginkortasun maila altuaz garatzeko, eta beren ezagutzak ohikoak ez diren egoeretan edo nolabaiteko konplexutasuna duen egoeretan aplikatzeko gai direla, arrazonamendu landuagoak erabiliz.
- *Erdi-mailan* kokatzen dira beren adina eta hezkuntza mailaren arabera modu egokian proposatutako ariketak eta problemak ebazteko gai diren ikasleak, emandako helburuak ondo lortuz; gainera, ikasketen domeinu egokia erakusten du; hala ere, egoera konplexuagoetan edo oso ohikoak ez direnetan laguntza behar du.
- *Azkenik, hasierako mailan*, oinarritzko ezagutzak dituzten edo proposatutako ariketak eta problemak ebazteko ezagutza osatu gabeak dituzten ikasleak kokatzen dira. Ikasle horiek, gainera, ariketak ez dituzte batera modu autonomoan egiten. Maila honetako ikasleak ez dira maila honekin lotutako gutxienezko puntuaziora iristen.
- Konpetentzia bakoitzaren baitan errendimenduko mailak ezarri ahal izateko, aurretik helburu berarekin nazioarteko beste ebaluazio batzuetan erabilitako prozedura estandarizatu erabili da, *ebaketa-puntuoen identifikazioa* izenekoa. Bertan, dagokien mailako hainbat irakaslek hartu dute parte, baita ISEI-IVEIko langileek, Ikuskaritzakoek eta Laguntza zerbitzukoek, *Berritzegune*.

c) Emaitza orokorren eta konpetentzia mailen arabera bilakaera

Aurreko edizioetako emaitza dugun bost konpetentzietako emaitzen bilakaera eskaintzen da. Hiru konpetentzia finkoen kasuan, egindako lau edizioen arteko alderaketa ezartzen da; *Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako* eta *Gizarterako eta herritartasunerako* konpetentziaren kasuan, emaitzen alderaketa ebalatuak izan ziren dagozkien edizioekin ezartzen da. Bilakaera-datuak puntuazio orokorren arabera edo konpetentziako hiru mailatan ikasle bakoitzaren ehunekoaren arabera aurkezten dira.

I.4. KONTUAN IZAN BEHARREKO ZENBAIT IRIZPIDE

Emaitzak ondo irakurtzeko, ezinbestekoa da bi alor garrantzitsu kontuan hartzea:

a) Ezarritako errendimendu maila bakoitzeko ikasleen konpetentzien eta ehunekoen batez bestekoak ezin dira beren artean alderatu.

Konpetentzia bakoitzeko batez besteko emaitzara iristeko, estatistika-tresna berberak erabiltzen dira; era berean, hiru errendimendu mailetako ebaketa-puntuak identifikatzeko, prozedura berbera jarraitzen da konpetentzia guztietan. Hala eta guztiz ere, konpetentzia bakoitzak bere ezaugarriak ditu eta bilakaera desberdina izan ohi du. Hori dela eta, ezinbestekoa da konpetentzien batez besteko emaitzak edo errendimendu

maila bakoitzean kokatzen diren ikasleen ehunekoak beren artean ez alderatzea. Gauza bera gertatzen da eraikuntza-irizpide eta erreferente antzekoak dituzten *Hizkuntza-komunikaziorako bi konpetentzien* –euskaraz eta gaztelaniaz- kasuan ere, abiapuntua ez baita berbera.

b) Modu objektiboan, ez dakigu euskarri-aldaketak –paperetik ordenagailura-eraginik izan duen emaitzetan. Hori dela eta, alderaketetan zuhurrak izan behar dugu.

Errendimenduko proben informatikako aplikazioarekin lotuta, Hezkuntza Sailak eta ISEI-IVEIk bazekiten probako euskarria aldatzeak emaitzen alderagarritasunari eragin diezaiokeela. Arrisku hori ahalik eta gehien murrizteko, kontu handiz ibili ziren ordenagailu-euskarrian eta paper-euskarrian proben arteko aldaketa ahalik eta txikiena izan zedin. Horregatik, hainbat erabaki hartu ziren:

- lehenik, probetako itemak ordenagailutik paperera zuzenean pasatzearen alde egin zen, alde nabarmenik gabe;
- bigarrenik, proben aplikazio-ordena aurreko urtekoen berbera izan zen;
- hirugarrenik, proba bakoitzean, itemen ordena papereko bertsioaren berdina izan zen (hau da, probaren hasieran edo amaieran zihoazen itemak berberak izan ziren bi euskarrietan);
- eta azkenik, behin betiko aplikazioaren aurretiko errendimendu-proba prestatu zen 2013an ebaluatu ziren konpetentzia guztietako itemekin, eta ikastetxe guztien eskura jarri zen, ikasleek item motak eta ordenagailuan erantzuteko metodologia praktikan ezagut zitzaten;

2013ko emaitzak joan den edizioetan lortutako emaitzekiko koherenteak izan dira. Hala eta guztiz ere, uneotan ezinezkoa da modu objektiboan zenbatzea ordenagailuaren erabilerak zenbateraino eragin duen konpetentzietako emaitzetan. Gai hori ISEI-IVEIk ikertuko du modu zehatzean.

Egoera hori gogoratzeko, konpetentzia bakoitzeko emaitza orokorren grafikoan irudi hauek erabiltzen dira.



Proba paper-euskarrian



Proba euskarri informatikoan

Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturalarako konpetentziaren emaitzen joera desberdinak konpetentzia honi zuzendutako atalean aztertuta dira.



2. EMAITZAK, OINARRIZKO KONPETENTZIEN ARABERA

- 2.1. *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia*
- 2.2. *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia*
- 2.3. *Matematikarako konpetentzia*
- 2.4. *Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzia*
- 2.5. *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia*

Konpetentzien batez bestekoak eta ikasleen ehunekoak errendimendu maila bakoitzean
EZ DIRA ELKARREKIN KONPARAGARRIAK.



Proba paper-
euskarrian



Proba euskarri
informatikoan



Emaitzen laburpen orokorra

- **Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia:**

- ED13an, konpetentzia honen batez bestekoa (256 puntu) mantendu egin da ED11koarekin alderatuta, eta ED09an (250 puntu) lortutakoarekin alderatuta, 6 puntu egin du gora puntuazioak.
- ED09 eta ED13ko emaitzak alderatzen baldin baditugu, antzeman daiteke behera egin duela hasierako mailetan (% 1) eta erdi-mailetan (% 2) dauden ikasleen ehunekoak. Maila aurreratukoak, berriz, % 2,8 igo da. Bestalde, ED11ko emaitzak ED13an lortutakoekin alderatzean, ikusten da maila aurreratuan kokatutako ikasleen ehunekoa berbera dela; % 1 baino zertxobait gehiago egiten du gora hasierako mailan eta % 1 egiten du behera erdi-mailan.

- **Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia:**

- Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian, batez bestekoak % 3 egin du gora ED09ko datuekin alderatuta, eta alde nabarmenik ez da izan ED11rekin alderatzen baldin badugu.
- Errendimendu mailen banaketari dagokionez, ikasleen % 85ek konpetentzia honetako hasierako maila gainditu du, eta horien artetik, % 29,4 maila aurreratura iritsi da.
- Errendimendu mailen bilakaerari dagokionez, ED13an, erdi-mailan eta maila aurreratuan bildutako ehunekoak % 1 egin du gora ED09rekin alderatuta, baina % 3 egin du behera ED11rekin alderatuta.

- **Matematikarako konpetentzia:**

- Matematikarako konpetentziaren emaitza orokorra nahikoa egonkorra da edizio guztietan. 2009ko edizioarekin alderatuta soilik da ED13ko puntuazioa (251) altuagoa.
- DBHko 2. mailako ikasleen ia % 85ek konpetentzia honetako hasierako maila gainditu du; horien artean, % 26,2 maila aurreratuan dago.
- Lau edizioetako errendimendu mailak alderatzean, nabari da 2013an, erdi-mailan eta maila aurreratuan, ikasleen ehunekoa 2009an bildutakoaren antzekoa (% 84,9) eta beste edizioetakoa baino altuagoa dela.

- **Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzia:**

- ED13an 12 puntuko beherakada gertatu da Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzian aurreko edizioarekin (ED09) alderatuta.
- ED13an, ED09rekin alderatuta, hasierako errendimendu mailan (% +4,2) eta erdi-mailako errendimenduan (% +6,1) kokatutako ikasleen ehunekoak gora egin du, eta errendimendu aurreratuko mailan (% -10,3) dagoen ikasleen ehunekoak behera egin du.

- **Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia:**

- ED13an 4 puntuko beherakada gertatu da Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziaren batez besteko puntuazioan, aurreko edizioarekin (ED10) alderatuta.
- ED10 eta ED13 artean errendimenduko hiru mailetan ikasleen banaketa alderatzen

baldin bada, ikusiko dugu erdi-mailan kokatutako ikasleen ehunekoa % 9,3ko igoera dagoela eta beherakada izan dela hasierako mailan (% -2,4) eta maila aurreratuan (% -6,9).

- ***Emaitzak eta ISEK:***

- ED13an, ebaluatutako bost konpetentzietan, ISEK kontrolatzean, itunpeko geruzen puntuazioak nabarmen jaisten dira, eta aldiz, A eta B geruza publikoen kasuan, puntuazioek gora egiten dute. D geruza publikoaren kasuan, aldea ez da adierazgarria.
- Ondoriozta dezakegu ED13an ISEKek eragina duela itunpeko geruza guztietako eta A eta B geruza publikoetako ebaluatutako konpetentzia guztietan.

2.1. EUSKARAZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA

2013an 256 puntuko batez besteko puntuazioa lortu da *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*. Aipatutako batez bestekoa aurreko Ebaluazio diagnostikoaren edizioan (ED11) lortutakoaren berdina eta lehen edizioan (ED09) lortutakoa baino 6 puntu altuagoa da.


ED13an, ia ikasleen % 63k konpetentzia honen hasierako maila gainditu du, eta horien artetik, ia % 21,2 maila aurreratuan kokatzera iritsi da. EDko beste edizioetan gertatu den moduan, ehunekoak oso desberdinak dira hizkuntza-eredu bakoitzean.

Errendimendu mailetako ED09 eta ED13 arteko emaitzak alderatzen baldin baditugu, ikusiko dugu hasierako mailan eta erdi-mailan kokatutako ikasleen ehunekoetan aldaketa txikiak daudela, eta % 2,8ko igoera dagoela maila aurreratuko ehunekoan.

2.1.1. EMAITZA OROKORREN BILAKAERA⁴

Ebaluazio diagnostikoko 2009ko edizioan 250 puntuko batez bestekoa ezarri zen konpetentzia guztietarako. ED13an lortutako batez bestekoa ED09an lortutakoarekin alderatzen baldin bada, batez bestekoak 6 puntu egin duela gora ikus dezakegu. Alde hori ere adierazgarria da. Hala eta guztiz ere, batez bestekoa berdin mantendu da (256 puntu) Ebaluazio diagnostikoko azken bi edizioetan (ED11 eta ED13).

2.1.1. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11-ED13. Batez besteko emaitzen bilakaera *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*.




⁴ Aurreko edizioetan bezala, emaitza orokorretan ere, konpetentzia honetako bi dimentsio soilik hartu dira kontuan: *Entzumena eta Irakurmena*. Irakurmeneko emaitzak 2.1.6. atalen ageri dira zehaztuta.

2.1.2. IKASLEEN BANAKETAREN BILAKAERA ERRENDIMENDU MAILEN ARABERA

Hurrengo grafikoan, orain arte egin diren Ebaluazio diagnostikoko lau edizioetan zehar errendimendu maila bakoitzean kokatutako ikasleen ehunekoaren bilakaera aztertu da.

2.1.2. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11-ED13. Ikasleen ehunekoa *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako* errendimendu mailen arabera.



ED09 eta ED13ko emaitzak alderatzen baldin baditugu, antzeman daiteke behera egin duela hasierako mailetan (% 1) eta erdi-mailetan (ia % 2) dauden ikasleen ehunekoak. Maila aurreratukoak, berriz, % 2,8 egin du gora. Bestalde, ED11ko emaitzak ED13an lortutakoekin alderatzean, ikusten da maila aurreratuan kokatutako ikasleen ehunekoa berbera dela; % 1 baino zertxobait gehiago egiten du gora hasierako mailan eta % 1 egiten du behera erdi-mailan.

2.1.3. EMAITZAK GERUZEN ARABERA HIZKUNTZA EREDUA ETA HEZKUNTZA SAREA

a) EMAITZA OROKORREN BILAKAERA

Hurrengo grafikoan, geruza bakoitzeko emaitzek Ebaluazio diagnostikoko 4 edizioetan izan duten bilakaera antzematen da.


Ebaluazio diagnostikoko lehen edizioko (ED09) geruza guztien puntuazioak azken Ebaluazio diagnostikoko puntuazioekin (ED13) alderatzen baldin badira, honako hau antzemango dugu:

- A publikoa (12 puntu), D publikoa (1 puntu), itunpeko A (11 puntu) eta itunpeko D (7 puntu) geruzetan eskolatutako ikasleen puntuazioetan gorakada adierazgarria gertatu da.
- B geruza publikoko eta itunpeko B geruzako ikasleek lortutako puntuazioek nabarmen egin dute behera, 14 eta 6 puntu, hurrenez hurren.

Bestalde, emaitzak Ebaluazio diagnostikoko azken bi edizioetako (ED11 eta ED13) geruzen arabera alderatzean, honako hau ondorioztatuko dugu:

- A eta D geruza publikoetako puntuazio-aldaketak, eta itunpeko A eta D geruzetakoak ez dira adierazgarriak.
- B geruza publikoko eta itunpeko B geruzako ikasleen batez besteko puntuazioek 11 eta 4 puntu egin dute behera hurrenez hurren, eta puntuazioko bi aldaketak estatistikoki adierazgarriak dira.

2.1.3.a. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11-ED13. *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako* emaitzen bilakaera geruzen arabera.




Geruzen emaitzak eredu bakoitzeko sareen arabera alderatzen baldin baditugu, ED09 eta ED13 artean, eta ED11 eta ED13 artean, honako hau ondorioztatuko dugu:

- Emaitzarik baxuenak A geruza publikoak eta itunpeko A geruzak lortu dituzte. Puntuazioetako aldeak adierazgarriak dira gainerako geruza publikoekin eta itunpekoekin alderatuta.
- A geruza publikoak itunpeko A geruzak baino puntuazio baxuagoak ditu. Puntuazioetako aldea estatistikoki adierazgarria da.
- Emaitzarik altuenak D geruza publikoak eta itunpeko D geruzak lortu dituzte. Puntuazioetako aldeak adierazgarriak dira gainerako geruza publikoekin eta itunpekoekin alderatuta.
- D geruza publikoak itunpeko D geruzak baino puntuazio baxuagoak ditu. Puntuazioetako aldea estatistikoki adierazgarria da.
- Itunpeko B geruzak B geruza publikoak baino puntuazio altuagoak lortu ditu. Aldeak adierazgarriak dira.


b) BANAKETAREN BILAKAERA ERRENDIMENDU MAILEN ARABERA

Hurrengo sei grafikoetan, orain arte egindako Ebaluazio diagnostikoaren edizio guztietan (ED09-ED10-ED11-ED13), ikasleen banaketan errendimendu mailen arabera izan den bilakaera aztertu da.


2.1.3.b. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11-ED13. A publikoko ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailen arabera Euskarazko hizkuntza-komunikazioan.




2.1.3.c. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11-ED13. Itunpeko A geruzako ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailen arabera Euskarazko hizkuntza-komunikazioan..




2.1.3.d. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11-ED13. B publikoko ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailen arabera Euskarazko hizkuntza-komunikazioan.




2.1.3.e. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11-ED13. Itunpeko B geruzako ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailen arabera Euskarazko hizkuntza-komunikazioan.



2.1.3.f. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11-ED13. D publikoko ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailen arabera Euskarazko hizkuntza-kompetentzian.



2.1.3.g. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11-ED13. Itunpeko D geruzako ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailen arabera Euskarazko hizkuntza-komunikazioan.




Ebaluazio diagnostikoko edizio guztietan zehar A geruza publikoa eta itunpeko A geruza alderatzen baldin baditugu, ikus daiteke populazio ehuneko altua hasierako mailan dagoela (% 73,5 eta % 96,9 artean). Bi geruzetan, ikasleen % 3,1 eta % 22,6 artean, erdi-mailan dago. Errendimenduko maila honetan dauden ikasleen ehunekoa altuagoa da itunpeko A geruzan. Konpetentzia honetako maila aurreratuko emaitzak lortu dituzten bi geruzetako ikasleen ehunekoa oso baxua da (% 0 eta % 3,9 artean).

Bestalde, B geruza publikoari dagokio hasierako mailan dagoen populazioaren ehunekorik altuena (% 49,8 eta % 65,9 artean); itunpeko B geruzan ere hori gertatzen da (ED13an izan ezik) erdi-mailako errendimenduan (% 42,1 eta % 47,4 artean). Nabarmendu beharrekoa da ED13an, B geruza publikoan eta itunpeko B geruzan igoera gertatu dela hasierako mailan kokatutako populazioari dagokionez, eta ondorioz, ikasleen ehunekoa murriztu egin da bai erdi-mailan, bai maila aurreratuan. B geruza publikoko erdi-mailan eta maila aurreratuan biltzen diren ikasleen ehunekoa itunpeko B geruzakoak baino baxuagoak dira Ebaluazio diagnostikoko edizio guztietan.

D geruza publikoan eta itunpekoan erdi-maila da nagusi eta oso antzeko balioak dituzte. Itunpeko D geruzako errendimendu aurreratuko mailan dagoen ikasleen ehunekoa D geruza publikokoa baino altuagoa da Ebaluazio diagnostikoko edizio guztietan.

c) EDI3KO EMAITZA OROKORRAK GERUZEN ETA ISEK MAILEN ARABERA

2.1.3.h. grafikoa, ED13an ikasleek lortutako emaitzak aztertu dira geruzetan banatuta.



Datuen arabera, A geruza publikoan eta itunpeko A geruzan eskolatutako ikasleek dituzte puntuaziorik baxuenak. Itunpeko A geruzak A publikoak baino 27 puntu gehiago lortu ditu. Aldiz, D geruza publikoko eta itunpeko D geruzako ikasleek lortu dituzte puntuaziorik altuenak. Kasu honetan, itunpeko D geruzaren batez bestekoa D publikoarena baino 11 puntu altuagoa da.


Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian, sare publikoan eta itunpekoan D ereduetan eskolatutako ikasleek soilik gainditzen dute EAEk batez besteko puntuazio orokorra (256 puntu). Gainerako geruzetan eskolatutako ikasleek, konpetentzia honetan, batez besteko orokorrak baino batez besteko puntuazio baxuagoak lortu dituzte.

Itunpeko B geruzako ikasleen batez besteko puntuazioa B geruza publikoko ikasleen puntuazioa baino 22 puntu altuagoa da.

Geruza guztietako batez besteko puntuazioen arteko aldeak estatistikoki nabarmenak dira.

Hurrengo grafikoan, geruza bakoitzak konpetentzia honetan lortutako batez besteko puntuazioa (kolore iluneko zutabea) eta indize sozioekonomikoaren eta kulturalaren (ISEK) efektua kontrolatuko balitz, maila horietako bakoitzak lortuko lukeen (kolore argiko zutabea) batez besteko puntuazioa ageri da; hau da, ikasle guztiek ISEK berbera izango balute abiapuntu gisa.⁵

2.1.3.i. grafikoa: ED13-DBHko 2. maila. Batez besteko puntuazioa eta Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian ISEK kontrolatu osteko puntuazioa.



Aurreko grafikoan ikus daiteke A eta B geruza publikoek nabarmen igo dutela batez besteko puntuazioa, +10 eta +6 puntu hurrenez hurren, ISEK-en efektua kontrolatzen denean. D geruza publikoko bi puntuazioen arteko aldea (+1 puntu) ez da adierazgarria. Hala eta guztiz ere, itunpeko geruza guztietan, ISEK kontrolatzean, batez besteko puntuazioa murriztu egiten da.

Hori dela eta, A eta B geruza publikoetako eta itunpekoetako ikasleen kasuan ISEK indizeak emaitzetan eragiten duen arren, D geruza publikoko ikasleekin ez da gauza bera gertatzen. Horien puntuazioa, ISEK kontrolatzean, ez da nabarmen aldatzen.

ISEK kontrolatuta batez besteko puntuazioei dagozkien zutabeak (kolore argiko zutabeak) aztertzen baldin baditugu, honako hau ondoriozta dezakegu:

⁵ ISEK indizeak emaitzetan izan duen eragina galdera-sortan indize honekin lotutako galderei erantzun dieten ikasleekin soilik kalkulatu da; ikasle batzuei buruz ez dugu informazio hori eta ikasle horiek ez daude kalkulu honetan sartuta.

- Geruza guztietako puntuazioen (ISEK kontrolatuta) arteko aldeak estatistikoki adierazgarriak dira.
- ISEK kontrolatzean, puntuaziorik baxuenak, A geruza publikoak eta itunpeko A geruzak lortu dituzte, eta horien artean, A geruza publikoarena da batez bestekorik baxuena.
- ISEK kontrolatu ostean, D geruza publikoak eta itunpeko D geruzak lortu dituzte emaitzarik onenak, eta bien artean, itunpeko D geruzak du batez bestekorik altuena.

2.1.4. EMAITZAK FAMILIA-HIZKUNTZAREN ARABERA


a) EMAITZA OROKORREN BILAKAERA

Ikasleen galdetegian, ebaluazio honetan parte hartu zuten ikasle guztien familia-hizkuntza hartu zen aintzat. Ikaslea familia euskaldunekotzat hartzen da aitak edota amak euskaraz hitz egiten dutenean eta etxean euskaraz hitz egiten dutenean beti edo ia beti. Gainerako kasuak “Euskara ez dena” kategorian sartzen dira. Gehienak etxean gaztelaniaz hitz egiten dutenak dira, baina badira familia-hizkuntza beste bat duten ikasleak ere.

2.1.4.a. grafikoak adierazitakoaren arabera, familia-hizkuntza euskara duten ikasleek eta familia-hizkuntza euskara ez dutenek ED09 eta ED13an lortutako batez besteko puntuazioak alderatzeko garaian, 6 puntuko igoera nabarmena gertatu da lehen kasuan (“Euskara”) eta 3 puntukoa bigarrean (“Euskara ez dena”) *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*. Bestalde, Ebaluazio diagnostikoaren bi edizioetan (ED09 eta ED13), familia-hizkuntza euskara duten ikasleen batez besteko puntuazioak familia-hizkuntza euskara ez duten ikasleen puntuazioak baino altuagoak dira.

Aldiz, EDren azken bi edizioak (ED11 eta ED13) alderatzean, familia-hizkuntza euskara duten ikasleek eta familia-hizkuntza euskara ez den hizkuntzaren bat dutenek konpetentzia honetan lortutako batez besteko puntuazioek ez dute alde nabarmenik erakusten edo egonkor mantentzen dira. EDren bi edizioetan, familia-hizkuntza euskara duten ikasleek familia-hizkuntza euskara ez dutenek baino puntuazio altuagoak lortu dituzte.

2.1.4.a. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11-ED13.
Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzen
bilakaera familia-hizkuntzaren arabera.




* Grafikoaren eskala 200ean hasten da, puntuazioen arteko aldeak hobeto nabari daitezen.

b) BANAKETAREN BILAKAERA D EREDUKO IKASLEEN ERRENDIMENDU MAILEN ARABERA

2009ko eta 2013ko Ebaluazio diagnostikoko edizioen artean familia-hizkuntza euskara duten D ereduko populazioaren emaitzak alderatzen baldin baditugu, konturatuko gara *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren* maila aurreratuan kokatzen den populazioak % 8 egin duela gora, eta hasierako mailan (% 2) eta erdi-mailan (% 5,9) kokatu diren ikasleek behera egin dutela. Bestalde, familia-hizkuntza euskara ez duten D ereduko populazioaren ehunekoak alderatzen baldin baditugu 2009ko eta 2013ko Ebaluazio diagnostikoko edizioen artean, ondorioztatuko dugu maila aurreratuan dagoen ikasleen ehunekoa egonkor mantentzen dela, konpetentzia honetan hasierako mailan dagoen populazioaren ehunekoak gora (% +3,4) egin duela eta erdi-mailako errendimenduan dagoen ikasleen ehunekoak behera (% -3,3) egin duela.

2011ko Ebaluazio diagnostikoko emaitzak 2013an lortutakoekin alderatzen baldin baditugu, antzemango dugu hasierako mailan igoera arina (% 1,4) izan dela, eta maila aurreratuan % 0,2ko igoera izan da familia-hizkuntza euskara duten D ereduko ikasleen ehunekoan. Hala eta guzti zere, ikasle horietan, % 1,5eko beherakada gertatu da erdi-mailan. Bestalde, familia-hizkuntza euskara ez duten ikasleen kasuan, igoera gertatu da hasierako errendimendu mailan kokatuta dagoen ikasleen ehunekoan (% + 2,5) eta ehunekoa murriztu egin da erdi-mailan (% -1,5) eta maila aurreratuan (% -0,8).

2.1.4.b. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED11-ED13. *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako* errendimendu maila bakoitzean D ereduko ikasleen ehunekoaren bilakaera familia-hizkuntzaren arabera.



*ED09an, familia-hizkuntzaren arabera azterketa Ebaluazio diagnostikoko hurrengo edizioetan ez bezala egin zen. Familia-hizkuntza euskara ez zuten ikasleen artean, bi talde osatu ziren: Gaztelaniaz hitz egiten zuten ikasleak eta beste hizkuntza batzuetan hitz egiten zuten ikasleak. D ereduaren kasuan, gaztelaniaz hitz egiten zuten populazioa 6.383 ikaslekoa zen, eta beste hizkuntza batzuetan hitz egiten zuten populazioa 96 ikaslekoa zen. Hemen ageri diren datuak gaztelaniaz hitz egiten duten ikasleei soilik dagokie⁶

Oro har, *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia*n, aurreko grafikoan aztertutako Ebaluazio diagnostikoko hiru edizioetan, D ereduko ikasle gehienak erdi-mailako errendimenduan kokatzen dira (% 46,3 eta % 50,8 artean). Familia-hizkuntza euskara duten D ereduko ikasleak dira konpetentzia honetan aztertutako EDren hiru edizioetan errendimendu maila aurreratuan populazioaren ehunekorik altuenak dituztenak (% 31,3 eta % 39,3 artean).

⁶ Ikus www.isei-ivei.net "2009ko emaitzen txosten orokorra" Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila.


2.1.5. EMAITZAK KONPETENTZIAKO DIMENTSIOEN ARABERA: ENTZUMENA ETA IRAKURMENA⁷

Lehen esan denez, konpetentzia osatzen duten bost dimentsioetatik, Ebaluazio diagnostikoaren puntuazioa kalkulatzeko bi dimentsio aintzat hartu dira: *Entzumena* eta *Irakurmena*. *Irakurmena* lagin batetik ebaluatu zen, eta emaitzak geroago aztertuko ditugu. Aldiz, *Mintzamena* eta *Ahozko elkarrekintza* dimentsioak ez ditugu ebaluatu, kudeatzeak, antolatzeak eta eman beharko zen denborak ekartzen duten eragozpenengatik.

Ikus daitekeen moduan, *Entzumena* dimentsioan lortu dute ikasleek batez bestekorik altuena Ebaluazio diagnostikoko lehen ediziotik. Gainera, *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren* batez besteko orokorra baino altuagoa da (256 puntu). *Irakurmena*, aldiz, *Entzumena* baino 16 puntu beherago dago.

2.1.5. grafikoa EAEEn egindako Ebaluazio diagnostikoko lau edizioetan adierazitako bi dimentsioen emaitzen bilakaera adierazten digu.

2.1.5. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11-ED13.
Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren
emaitzak dimentsioen arabera.



* Grafikoa eskala 240an hasten da, puntuazioen arteko aldeak hobeto nabari daitezela.

Ebaluazio diagnostikoko lehen eta azken edizioa (ED09 eta ED13) eta azken bi edizioak alderatzen baldin badira, jokaera desberdina nabaritu dugu bi dimentsioetan.

2009ko eta 2013ko edizioak alderatzen baldin badira, honako hau ondorioztatu dugu:

- *Entzumena*: 16 puntuko igoera gertatu da puntuazioan.
- *Irakurmena*: puntuazioa egonkor mantendu da.

⁷ Litekeena da *Irakurmeneko* emaitzei modu negatiboan eragitea proban egindako euskarri aldaketak; hau da, paperetik ordenagailura aldatzeak. Hala ere, ez dugu hipotesi hori bermatzen duen daturik. ISEI-IVEIk horri buruzko ikerketa zehatza egingo du probetan euskarria aldatzeak emaitzetan eragingo duen argitzeko helburuarekin. Gainera, eragin horren dimentsioa ere aztertuko du.

2011n eta 2013an egindako EDko edizioak alderatzean, honako hau ondorioztatu da:

- *Entzumena*: 9 puntuko igoera adierazgarria gertatu da puntuazioan.
- *Irakurmena*: 5 puntuko jaitsiera adierazgarria gertatu da puntuazioan.

2.1.6. EMAITZAK IDAZMENEAN


Euskaraz, *Idazmena* dimentsioa 2.438 ikaslek osatutako lagin baten bidez ebaluatu zen. 2013ko⁸ edizioan parte hartu zuten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztietako ikasleek parte hartu zuten. Ikasleek komunikazio-egoera zehatz batean kokatutako testu bat idatzi behar zuten. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasleen kasuan, gazteen artean sare sozialekin zerikusia duen azalpen testu bat idazteko eskatu zitzairen. Eskatzen zitzairen gutxieneko luzera 150 hitzekoa zen.

Dimentsio honetako emaitzak ezin dira aurreko edizioekin alderatu; izan ere, aplikazio bakoitzean, *Idazmeneko* proba guztiz aldatzen da eta publikoki ematen da ezagutzera.

a) EMAITZAK ERRENDIMENDU MAILEN ARBERA

2.1.7.a. grafikoa, errendimendu maila bakoitzeko ikasleen ehunekoa adierazten da.

2.1.7.a. grafikoa: ED13-DBHko 2. maila. Euskarazko Idazmenean ikasleen ehunekoa errendimendu mailen arabera.




2013ko edizio honetan, ikasleen ia % 61ek gainditu du hasierako maila, eta horien artetik, % 16 maila aurreratuan kokatzera iritsi da

⁸ Autonomia erkidego mailan emaitzak lortzeko kontrolatutako laginaz gain, ED13an, *Idazmeneko* ebaluazioa egitea planteatu zaie ikastetxeetako irakasleei. Ebaluazioa hori borondatezkoa izango da eta Ebaluazio diagnostikoaren baitan egongo da. Eraginkor bihurtzeko, ikastetxeei testu-ereduak, jarraibideak eta ebaluazio-irizpideak eman zitzaizkien. Material horiek *Idazmeneko* kanpo-aplikazioan erabilitako berberak dira. Parte hartu zuten ikastetxe guztietako ikasle askori aplikatu zitzairen, Euskadiko hezkuntza sistemaren egoera ezagutzera emateko helburuarekin.

b) EMAITZAK GERUZEN ARABERA

Hurrengo grafikoak geruza bakoitzean eskolatutako ikasleek *Idazmenean* lortutako ED13ko batez bestekoak adierazten dizkigu.

2.1.7.b. grafikoa: ED13-DBHko 2. maila. Euskarazko hizkuntza-komunikazioko Idazmeneko emaitzak geruzen arabera.




Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren dimentsio honetako puntuaziorik altuenak D ereduetan eskolatutako ikasleek lortutakoak dira, bai itunpeko sarekoek, bai sare publikokoek, eta aldiz, puntuaziorik baxuenak A ereduko ikasleek lortu dituzte, bai sare publikokoek, bai itunpeko sarekoek. Itunpeko A geruzako ikasleek A geruza publikoko ikasleek baino 47 puntu altuagoko batez bestekoa dute. Itunpeko D geruzaren batez bestekoa D geruza publikoko ikasleena baino 6 puntu altuagoa da.

Geruzen batez besteko puntuazioen arteko alde guztiak adierazgarriak dira.

c) SEXUAREN ARABERAKO EMAITZAK

Hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan, neskek mutilek baino 16 puntu gehiago lortu dituzte euskarazko *Idazmenean*.

2.1.7.d. grafikoa: ED13-DBH 2. maila. Euskarazko hizkuntza-komunikazioko Idazmeneko emaitzak sexuaren arabera.



2.2. GAZTELANIAZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORA-KO KONPETENTZIA

Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian, ED13an, DBHko 2. mailako ikasleek 253 puntu eskuratu dituzte, ED09an baino 3 puntu gehiago. ED1 Irekin alderatuta ez da alde adierazgarririk izan.

Errendimendu mailen banaketari dagokionez, ikasleen % 85ek konpetentzia honetako hasierako maila gainditu du, eta horien artetik, % 29,4 maila aurreratura iritsi da.


Errendimendu mailen bilakaerari dagokionez, ED13an, erdi-mailan eta maila aurreratuan bildutako ehunekoak % 1 egin du gora ED09rekin alderatuta, baina % 3 egin du behera ED1 Irekin alderatuta.

2.2.1. EMAITZA OROKORREN BILAKAERA⁹

Ebaluazio diagnostikoko 2009ko edizioan 250 puntuko batez bestekoa ezarri zen konpetentzia guztietarako. 2013ko proban, *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* ikasleek lortutako batez bestekoa 253 puntukoa izan da, 2009ko proban lortutakoa baino hiru puntu altuagoa eta 2011n lortutako baino puntu bat baxuagoa. Azken bi proben artean ez dago alde adierazgarririk; hala ere, lehen edizioko emaitzekin alderatuta aldea nabari da.

2.2.1. grafikoa: DBH 2. maila. ED09-ED10-ED11-ED13.

Emaitzen bilakaera *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*.




Batez besteko puntuazioetako aldeak estatistikoki adierazgarriak dira, ED1 Ikoak eta ED13koak izan ezik.

⁹ Aurreko edizioetan bezala, emaitza orokorretan, konpetentzia honetako bi dimentsio soilik hartu dira kontuan: Entzumena eta Irakurmena. Idazmeneko emaitzak modu zehatzean ageri dira 2.2.6. atalean.

2.2.2. IKASLEEN BANAKETAREN BILAKAERA ERRENDIMENDU MAILEN ARABERA

2.2.2. grafikoa, orain arte egin diren Ebaluazio diagnostikoko lau edizioetan zehar errendimendu maila bakoitzean kokatutako ikasleen ehunekoaren bilakaera aztertu da.

2.2.2. grafikoa: DBH 2. maila. ED09-ED10-ED11-ED13. Emaitzen bilakaera errendimendu mailen arabera *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian.*



ED09 eta ED13 alderatzean, beherakada arina gertatu da hasierako mailan kokatutako ikasleen ehunekoan (% 1,1), eta igoera arina gertatu da erdi-mailan (% 1) eta maila aurreratuan (% 0,1).

Hautsi egin da aurreko probetako bilakaera positiboa; izan ere, hasierako mailako ehunekoa 2009koa baino % 1,1 baxuagoa den arren, 3 puntuko igoera izan du 2011ko datuei dagokienez, eta erdi-mailan jaitsi egin da.

2.2.3. EMAITZAK GERUZEN ARABERA: HIZKUNTZA EREDUA ETA HEZKUNTZA SAREA

a) EMAITZA OROKORREN BILAKAERA

Hurrengo grafikoa eta taula, geruza bakoitzeko emaitzek Ebaluazio diagnostikoko 4 edizioetan izan duten bilakaera ikusiko dugu.


Ebaluazio diagnostikoko lehen edizioa (ED09) geruza guztien puntuazioak azken Ebaluazio diagnostikoko puntuazioekin (ED13) alderatzen baldin badira, honako hau antzemango dugu:

- A geruza publikoan (13 puntu), D publikoan (3 puntu), itunpeko A geruzan (4 puntu) eta itunpeko D geruzan (4 puntu) eskolatutako ikasleen batez bestekoan igoera nabarmena gertatu da.
- B geruza publikoko ikasleek lortutako emaitzek behera egin dute (9 puntu) eta itunpeko B geruzan ez dago alde adierazgarririk.

Bestalde, emaitzak azken bi edizioetako geruzen (ED11 eta ED13) arabera alderatzean, honako hau ondorioztatzen da:

- Emaitzak jaitsi egin dira. B geruza publikoan 12 puntu, itunpeko A geruzan 4 puntu eta itunpeko B geruzan 3 puntu.
- A geruza publikoan igoera nabarmena gertatu da (7 puntu).
- D geruza publikoa eta itunpeko D geruza berdin mantentzen dira, alde adierazgarririk gabe.

2.2.3.a. grafikoa: DBH 2. maila. ED09-ED10-ED11-ED13. *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako* emaitzen bilakaera geruzen arabera.




Geruza batzuen eta besteen emaitzak alderatzen baldin baditugu, ED09 eta ED13 artean, eta ED11 eta ED13 artean, honako hau ondorioztatuko dugu:

- Emaitzarik baxuenak A eta B geruza publikoek lortu dituzte.
- Konpetentzia honetan, emaitzarik onenak itunpeko A eta B geruzek lotu dituzte. Era berean, beren artean ez dute alde nabarmenik.
- D geruza publikoak eta itunpeko D geruzak A eta B geruza publikoek baino batez besteko emaitza altuagoak lortu dituzte, baina estatistikoki itunpeko A eta B geruzek baino baxuagoak. Beren artean, aldeak adierazgarriak dira itunpeko D ereduaren mesedetarako.
- *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian baino txikiagoak dira geruzen arteko aldeak.*


b) BANAKETAREN BILAKAERA ERRENDIMENDU MAILEN ARABERA

Hurrengo sei grafikoetan, *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*, orain arte egindako Ebaluazio diagnostikoaren edizio guztietan (ED09-ED10-ED11-ED13), ikasleen banaketan errendimendu mailen arabera izan den bilakaera aztertu da.


2.2.3.b.grafikoa.: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11-ED13. Errendimendu mailen arabera bilakaera A geruza publikoan Gaztelaniazko hizkuntza komunikazioan.




2.2.3.c.grafikoa.: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11-ED13. Errendimendu mailen arabera bilakaera itunpeko A geruzan Gaztelaniazko hizkuntza komunikazioan.




2.2.3.d.grafikoa.: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11-ED13. Errendimendu mailen arabera bilakaera B geruza publikoan Gaztelaniazko hizkuntza komunikazioan.




2.2.3.e.grafikoa.: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11-ED13. Errendimendu mailen arabera bilakaera itunpeko B geruzan Gaztelaniazko hizkuntza komunikazioan.



2.2.3.f.grafikoa.: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11-ED13. Errendimendu mailen arabera bilakaera D geruza publikoan Gaztelaniazko hizkuntza komunikazioan.



2.2.3.g.grafikoa.: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11-ED13. Errendimendu mailen arabera bilakaera itunpeko D geruzan Gaztelaniazko hizkuntza komunikazioan.



Ebaluazio diagnostikoko edizio guztietan zehar A geruza publikoa aztertuz gero, ondorioztatuko dugu DBHko 2. mailako populazioaren herena baino gehiago hasierako mailan dagoela. Geruza horretan bakarrik gertatzen da hori. Gainerako geruzetan, edizio desberdinen artean aldatzen joan da, % 8,4 itunpeko B geruzan ED10ean, eta % 27,5 B geruza publikoan ED13an.

A geruza publikoan, maila aurreratuari dagokion inoiz baino ehuneko altuagoa da. Hala ere, beste geruzekiko urruti dago.

Itunpeko A geruzan, erdi-mailako eta maila aurreratuko errendimenduak, elkarrekin, ED09an baino zertxobait altuagoak dira, baina 2011ko aurreko edizioak baino baxuagoak.

B geruza publikoak Ebaluazio diagnostikoko 4 edizioetako errendimendu mailen ehunekoen arabera emaitzarik okerrenak eskuratu ditu.

Itunpeko B geruzak 2011ko edizioan baino emaitza baxuagoak lortu ditu. Zehazki, hasierako mailan kokatuta dagoen ikasleen ehunekoak hiru puntu egin du gora. Bestalde, ED09ko antzeko emaitzak lortu ditu.


D geruza publikoko eta itunpeko D geruzako errendimendu mailak aztertuz, gaztelaniaz irakas-hizkuntzako ordu gutxien dituzten geruzak hain zuzen, ondoriozta dezakegu bi kasuetan hasierako mailek gora egin dutela EDI Iko datuekin alderatuta.

Erdi-mailak eta maila aurreratuak elkarrekin aintzat hartzen baldin badira, EDI 3an, B geruza publikoak izan ezik, gainerako geruzek, maila horietan, ED09ko ikasle kopuru berbera edo handiagoa dute. Hala eta guztiz ere, EDI Iko datuekin alderatuz gero, erdi-mailako eta maila aurreratuak errendimenduetako ehunekoak, batera aztertuta, jaitsi egin dira EDI 3an Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian.

Inongo geruza ez da iristen % 90era, erdi-maila eta maila aurreratuak batera hartuta. Aldiz, EDI In, ehuneko hori itunpeko sareko geruza guztiek gainditu zuten. Aldiz, EDI In, ehuneko hori itunpeko sareko geruza guztiek gainditu zuten.

c) EDI3KO EMAITZA OROKORRAK GERUZEN ETA ISEK MAILEN ARABERA

Grafiko honetan ageri da geruza bakoitzak lortu duen batez besteko puntuazioa:




Maila guztien artean, puntuazioan alde adierazgarriak daude, itunpeko A eta B geruzen artean izan ezik.

A geruza publikoa gainerako geruzen azpitik kokatzen da nabarmen; aldiz, itunpeko A eta B geruzak gainerako geruzen gainetik daude nabarmen.

2.2.3.i. grafikoa, konpetentzia honetan, geruza bakoitzean, (kolore iluneko zutabea) EDI 3an lortutako batez besteko puntuazioa ageri da, baita ISEK indizea kontrolatuko balitz horietako

bakoitzak lortuko lukeen batez besteko puntuazioa ere (kolore argiko zutabea); hau da, ikasle guztiek ISEK berbera izango balute abiapuntu gisa¹⁰.

2.1.3.i. grafikoa: ED13-DBHko 2. maila. Batez besteko puntuazioa eta Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian ISEK kontrolatu osteko puntuazioa.



Grafikoan ikus daiteke ISEKen efektua kontrolatzean A eta B geruza publiko nabarmen hobetu dutela batez besteko puntuazioa, baina D geruza publikoa berdin gelditu dela. Itunpeko sareko geruzek emaitza baxuagoak lortuko zituzten eta emaitza orokorren eta ISEK efektua kenduta lortutakoen arteko aldeak adierazgarriak dira.

ISEK kontrolatuta (kolore argiko zutabeak) batez besteko puntuazioei dagozkien zutabeak aztertzen baldin baditugu, honako hau ondoriozta dezakegu:

- ISEK indizea kontrolatuta A (240 puntu) eta B geruza publikoek (243 puntu) lortutako puntuazioak estatistikoki ez dira adierazgarriak.
- ISEK indizea berdintzean, D geruza publikoko ikasleek itunpeko A eta D geruzakoen emaitza berberak lortu dituzte; izan ere, aldeak ez dira adierazgarriak, eta itunpeko B geruzako ikasleek lortu dute geruzen arteko batez bestekorik altuena.

2.2.4. EMAITZAK FAMILIA-HIZKUNTZAREN ARABERA

a) EMAITZA OROKORREN BILAKAERA

Ebaluazioan parte hartu zuten ikasle guztien familia-hizkuntzaren datua bildu zen galdetegian. Ikaslea familia euskaldunekotzat hartzen da aitak edota amak euskaraz hitz egiten dutenean eta etxean euskaraz hitz egiten dutenean beti edo ia beti. Gainerako kasuak “Euskara ez dena” kategorian sartzen dira. Gehienak etxean gaztelaniaz hitz egiten dutenak dira, baina badira familia-hizkuntza beste bat duten ikasleak ere.


¹⁰ ISEK indizeak emaitzetan izan duen eragina galdera-sortan indize honekin lortutako galderei erantzun dieten ikasleekin soilik kalkulatu da; ikasle batzuei buruz ez dugu informazio hori eta ikasle horiek ez daude kalkulu honetan sartuta.

DBHko 2. mailako ikasleen artean, *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia*n, familia-hizkuntza euskara ez duten ikasleek (gehienetan gaztelania edo beste batzuk) ED11n baino puntu bat gutxiago lortu dutela ikusten da, eta alde hori adierazgarria da. 2013ko edizioako emaitza ED09koa¹¹ baino altuagoa da estatistikoki (2 puntu). Familia-hizkuntza euskara duten ikasleek ED11n lortutako emaitza berbera lortu dute, baina ED09an lortutakoa baino nabarmen altuagoa.

Hala eta guztiz ere, ED13an familia-hizkuntza euskara duten eta euskara ez duten ikasleen arteko emaitzak alderatzen baldin badira, etxean euskaraz hitz egiten ez duten ikasleek (gehienetan gaztelania edo beste batzuk) 254 puntuko emaitza lortu dute; 2 puntu altuagoa, baina alde hori estatistikoki ez da adierazgarria.

Bestalde, bi taldeen arteko aldeak murriztu egin dira Ebaluazio diagnostikoko edizioetan zehar.

2.2.4. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11-ED13.
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako
emaitzen bilakaera familia-hizkuntzaren arabera.



* Grafikoaren eskala 240an hasten da, puntuazioen arteko aldeak hobeto nabari daitezen.

2.2.5. EMAITZAK KONPETENTZIAKO DIMENTSIOEN ARABERA: ENTZUMENA ETA IRAKURMENA¹²

Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia bost dimentsiotan dago egituratuta (Entzumena, Irakurmena, Idazmena, Mintzamena eta Ahozko elkarrekintza), eta bost horietatik honako hiru hauek ebaluatu dira: *Entzumena* eta *Irakurmena* populazio osoari, eta *Idazmena* lagin bati. Azken hori bereizita aztertu dute eta ondoren egin da horren azterketa. *Mintzamena*


¹¹ ED09n, familia-hizkuntzaren arabera azterketa egiteko, gaztelaniaz hitz egiten zuten ikasleak (12.736) eta beste hizkuntza batzuk hitz egiten zituztenak (314) banatu ziren. Hemen ageri diren datuak gaztelaniaz hitz egiten duten ikasleei soilik dagokie.

¹² Litekeena da *Irakurmeneko* emaitzei modu negatiboan eragitea proban egindako euskarri aldaketak; hau da, paperetik ordenagailura aldatzeak. Hala ere, ez dugu hipotesi hori bermatzen duen daturik. ISEI-IVEIk horri buruzko ikerketa zehatza egingo du probetan euskarria aldatzeak emaitzetan eragingo duen argitzeko helburuarekin. Gainera, eragin horren dimentsioa ere aztertuko du.

eta Ahozko elkarrekintza konpetentziak ez dira ebaluatu; izan ere, kudeaketa, antolaketa eta denbora aldetik zailtasunak eragiten dituzte.

2.2.5. *grafikoak* EAEn egindako Ebaluazio diagnostikoko lau edizioetan adierazitako bi dimentsioen emaitzen bilakaera adierazten digu.

2.2.5. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11-ED13.
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako
emaitzen bilakaera dimentsioen arabera.



* Grafikoa eskala 240an hasten da, puntuazioen arteko aldeak hobeto nabari daitezzen.

Ikus daitekeen moduan, *Entzumena* dimentsioan lortu dute ikasleek batez bestekorik altuena, eta konpetentziako batez besteko orokorra (253 puntu) baino altuagoa da.

Datuen arabera, bi dimentsioetan, emaitzak nabarmen jaits idira ED11ekin alderatuta. ED09ri dagokionez, nabarmen hobetu da *Entzumenean* (6 puntu), baina ez da gauza bera gertatu *Irakurmenean*.

2.2.6. EMAITZAK IDAZMENEAN


Gaztelaniaz, *Idazmena* dimentsioa 2.434 ikaslek osatutako lagin baten bidez ebaluatu zen. 2013ko edizioan parte hartu zuten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztietako ikasleek parte hartu zuten.¹³

a) EMAITZAK ERRENDIMENDU MAILEN ARBERA

2.2.6.a. grafikoa, Gaztelaniazko *Idazmenean* errendimendu maila bakoitzeko ikasleen ehunekoa adierazten da.

¹³ Autonomia erkidego mailan emaitzak lortzeko kontrolatutako laginaz gain, ED13an, *Idazmeneko* ebaluazioa egitea planteatu da ikastetxeetako irakasleek. Ebaluazioa hori borondatezkoa izango da eta Ebaluazio diagnostikoaren baitan egongo da. Eraginkor bihurtzeko, ikastetxeei testu-ereduak, jarraibideak eta ebaluazio-irizpideak eman zitzaizkien. Material horiek *Idazmeneko* kanpo-aplikazioan erabilitako berberak dira. Parte hartu zuten ikastetxe guztietako ikasle askori aplikatu zitzaizen, Euskadiko hezkuntza sistemaren egoera ezagutzera emateko helburuarekin.

2.2.6.a. grafikoa: ED13-DBHko 2. maila. Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko Idazmeneko emaitzak errendimendu mailen arabera .




2013ko edizio honetan, DBHko 2. mailako ikasleen ia bi heren erdi-mailan dago kokatuta, % 6ren inguruan hasierako mailan eta ia % 21 maila aurreratuan. Ikasleen % 94 baino pixka bat gehiago hasierako maila gainditu du dimentsio honetan.

b) EMAITZAK GERUZEN ARABERA

Hurrengo grafikoak geruza bakoitzean eskolatutako ikasleek Idazmenean lortutako ED13ko batez bestekoak adierazten dizkigu.

2.2.6.b. grafikoa: ED13-DBH 2. maila. Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko Idazmeneko emaitzak geruzen arabera.




Idazmena dimentsioko emaitzek, espero zen bezala, itunpeko A geruzak izan ezik, konpetentziaren guztizko puntuazioen antzeko eskala jarraitzen dute, nahiz eta puntuazioak baxuagoak izan.

Dimentsio honetan, emaitzarik onenak itunpeko geruzek lortu dituzte; izan ere, puntuazioetan aldeak izan arren, alde horiek estatistikoki ez dira adierazgarriak. A eta B geruza publikoek lortu dituzte emaitzarik baxuenak eta bien artean ez dago alde adierazgarriarik. D geruza publikoko eta itunpeko A eta D geruzetako batez besteko puntuazioen artean ez dago alde adierazgarriarik, baina itunpeko B geruzaren batez bestekoarekin aldea dago.

c) SEXUAREN ARABERAKO EMAITZAK

Gaztelaniazko *Idazmenean*, neskek mutilek baino emaitza nabarmen altuagoak erdietsi dituzte (19 puntu).

2.2.6.c. grafikoa: ED13-DBHko 2. maila. Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko Idazmeneko emaitzak sexuaren arabera.



2.3. MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA

Matematikarako konpetentziaren emaitza orokorra nahikoa egonkorra da edizio guztietan. 2009ko edizioarekin alderatuta soilik da ED13ko puntuazioa altuagoa.

DBHko 2. mailako ikasleen ia % 85ek konpetentzia honetako hasierako maila gainditu du; horien artean, % 26,2 maila aurreratuan dago.


Lau edizioetako errendimendu mailak alderatzean, nabari da 2013an, erdi-mailan eta maila aurreratuan, ikasleen ehunekoa 2009an bildutakoaren antzekoa (% 84,9) eta beste edizioetako baina altuagoa dela.

2.3.1. EMAITZA OROKORREN BILAKAERA

Ebaluazio diagnostikoko 2009ko edizioan 250 puntuko batez bestekoa ezarri zen konpetentzia guztietarako; izan ere, lehen aldiz egin ziren honelako ebaluazioak. Beraz, 250 puntuko batez bestekoa hartu behar da erreferentziatzat alderaketak ezartzeko garaian.

2013ko Ebaluazio diagnostikoan, *Matematikarako konpetentzian* lortutako batez bestekoa 251 puntukoa da, ED11n bezalaxe. ED09ri dagokionez, puntu bateko aldea estatistikoki adierazgarria da.

2.3.1. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11-ED13.
Emaitza orokorren bilakaera *Matematikarako konpetentzian*.




Matematikarako konpetentzian, ED11 eta ED13 artean, batez besteko puntuazioen aldeak ez dira adierazgarriak, ez eta ED09ekin alderatuta ere.

2.3.2. IKASLEEN BANAKETAREN BILAKAERA ERRENDIMENDU MAILEN ARABERA

2.3.2. grafikoa ikus daitekeen moduan, 2013ko *Matematikarako konpetentziaren* Ebaluazio diagnostikoan, 2009koarekin alderatuta, behera egin du erdi-mailan kokatzen den ikasleen

ehunekoak (% 1,4). Aldiz, hasierako mailako ehunekoa mantendu egin da eta maila aurreratuak hobera egin du (% 1,3). Errendimendu mailen arabera emaitzak EDIIkoen oso antzekoak dira. Oro har, konpetentzia honetako emaitzetan egonkortasun handia dagoela esan daiteke.

2.3.2. grafikoa: DBH 2. maila. ED09-ED10-ED11-ED13. Errendimendu mailen bilakaera Matematikarako konpetentzian.




2.3.3. EMAITZAK GERUZEN ARABERA: HIZKUNTZA EREDUA ETA HEZKUNTZA SAREA

a) EMAITZA OROKORREN BILAKAERA

Hurrengo taulan eta grafikoan, Ebaluazio Diagnostikoko lau edizioetan geruzek lortutako puntuazioak ageri dira.


2.2.3.a. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11-ED13. Eraitzen bilakaera geruzen arabera Matematikarako konpetentzian.



Ebaluazio diagnostikoko lehen edizio (ED09) geruza guztien puntuazioak azken Ebaluazio diagnostikoko puntuazioekin (ED13) alderatzen baldin badira, honako hau antzemango dugu:

- A eta B geruza publikoek nabarmen egin dute behera.
- Itunpeko A eta B geruzak mantendu egiten dira.
- Sare publikoko eta itunpeko sareko D ereduak igo egin dira zertxobait.


2.3.3.b. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED13. Puntuazio orokorraren bilakaera Matematikarako konpetentzian geruzen arabera.



Hala eta guztiz ere, alderaketa hori azken edizioarekin, ED11rekin ezartzen da, honakoa esan daiteke:

- D geruza publikoan, emaitza orokorretan, igoera nabari da.
- A geruza publikoa, eta itunpeko B eta D geruzak mantendu egin dira (aldaketa ez da esanguratsua).
- B publikoa eta itunpeko A geruza nabarmen jaitsi dira.


2.3.3.c. grafikoa: DBHko 2. maila. ED11-ED13. Puntuazio orokorraren bilakaera *Matematikarako konpetentzian* geruzen arabera.




b) BANAKETAREN BILAKAERA ERRENDIMENDU MAILEN ARABERA

Hurrengo sei grafikoetan, *Matematikarako konpetentzian*, orain arte egindako Ebaluazio diagnostikoaren edizio guztietan (ED09-ED10-ED11-ED13), ikasleen banaketan errendimendu mailen eta geruzen arabera izan den bilakaera aztertu da.


2.3.3.d. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11-ED13. Errendimendu mailen bilakaera *Matematikarako konpetentzian A geruza publikoan*.




2.3.3.e. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11-ED13. Errendimendu mailen bilakaera *Matematikarako konpetentzian itunpeko A geruzan*.




2.3.3.f. *grafikoa*: DBHko 2.maila. ED09-ED10-ED11-ED13. Errendimendu mailen bilakaera Matematikarako konpetentzia B geruza publikoan.




2.3.3.g. *grafikoa*: DBHko 2.maila. ED09-ED10-ED11-ED13. Errendimendu mailen bilakaera Matematikarako konpetentzia itunpeko B geruzan.



2.3.3.h. *grafikoa*: DBHko 2.maila. ED09-ED10-ED11-ED13. Errendimendu mailen bilakaera Matematikarako konpetentzia D geruza publikoan.



2.3.3.i. *grafikoa*: DBHko 2.maila. ED09-ED10-ED11-ED13. Errendimendu mailen bilakaera Matematikarako konpetentzia itunpeko D geruzan.



Geruza guztietan, erdi-mailako errendimenduan biltzen da ikasleen ehunekorik altuena, A geruza publikoan izan ezik. Bertan, ehunekorik altuena hasierako mailan biltzen da.

Ebaluazio diagnostikoko edizio guztietan zehar A geruza publikoa aztertuz gero, ondorioztatuko dugu konpetentzia honetako hasierako mailan dagoela ikasleen ia % 40. Geruza horretan bakarrik gertatzen da hori. Gainerako geruzetan, hasierako maila % 10 (itunpeko D) eta % 29 (B geruza publikoan ED13an) artekoa izan ohi da.

Erdi-maila eta maila aurreratua biltzen baldin badira, A geruza publikoak, ED13, joera hobetu du (% 53,7) ED11ko aurreko edizioarekin alderatuta (% 44,9). Hala eta guztiz ere, ED09rekin alderatuta, emaitzak baxuagoak dira.

ED13an, *Matematikarako konpetentzia*, itunpeko A geruzan, errendimendu mailen arabera emaitzak aurreko edizio guztietakoak baino baxuagoak dira: ikasleen ehunekoak 15etik 18ra egin du gora; aldiz, erdi-maila eta maila aurreratua % 85 inguruko ehunekoan mantentzen ziren, eta % 3 inguru egin dute behera.

Itunpeko sareko hiru geruzen artetik, itunpeko A geruza da erdi-mailako edo maila aurreratuko ikasleen ehunekorik baxuenak lortu dituen.

B geruza publikoko emaitzek nabarmen egin dute behera aurreko edizioarekin alderatuta. Hasierako mailan ED11n baino 2 puntu gehiago lortu dituzte eta ED09an baino 10 puntu gehiago. Hasierako mailetako igoerak, batez ere, maila aurreratuetako ehunekoetan eragin du (ED09an eta ED11 baino 5 puntu gehiago).

Hala eta guztiz ere, itunpeko B ereduak datuak oso egonkorak dira: hasierako mailak ikasleen % 13 inguruan kokatzen dira, eta erdi-mailak eta maila aurreratuak ikasleen % 86 eta % 87 artean dabilta.


D geruza publikoko eta itunpeko D geruzako errendimendu mailak aztertuz, ikus daiteke D geruza publikoak hobera egin duela gainerako edizio guztiekin alderatuta, eta erdi-mailan eta maila aurreratuan gora egin du.

Itunpeko D geruza nahikoa egonkorra da Ebaluazio diagnostikoko edizio guztietan, eta era berean, itunpeko ikastetxeen sareen baitan, errendimendu mailen arabera emaitzarik onenak lortu ditu: erdi-mailan eta maila aurreratuan dauden ikasleen ehunekoa % 89,5 ingurukoa da beti, eta hasierako mailako ehunekoak geruza guztien artean baxuenak ditu.

c) 2013KO EMAITZA OROKORRAK GERUZEN ETA ISEK MAILEN ARABERA

Matematikarako kompetentzian, geruza desberdinetako batez bestekoetan dauden aldeak estatistikoki adierazgarriak dira, Itunpeko A ereduaren eta D eredu publikoaren artean izan ezik, horien emaitzak estatistikoki berdinak baitira.

2.3.3.j. grafikoa: ED13-DBHko 2. maila. Emaitzen bilakaera geruzen arabera Matematikarako kompetentzian.




2.3.3.k. grafikoan, ED13an lortutako batez besteko puntuazioa ageri da geruza bakoitzaren arabera banatuta (kolore iluneko zutabea), baita Indize Sozioekonomikoa eta Kulturalaren (ISEK) efektua kontrolatuko balitz geruza horietako bakoitzak lortuko lukeen batez besteko puntuazioa ere (kolore argiko zutabea); hau da, ikasle guztiek ISEK¹⁴ indize berbera abiapuntu hartuta.

Ikus daitekeen moduan, ISEK indizearen efektua kontrolatuta, A eta B geruza publikoek batez besteko puntuazioa hobetzen dute. Igoera hori estatistikoki adierazgarria da. D geruza

¹⁴ ISEK indizeak emaitzetan izan duen eragina galdera-sortan indize honekin lotutako galderei erantzun dieten ikasleekin soilik kalkulatu da; ikasle batzuei buruz ez dugu informazio hori eta ikasle horiek ez daude kalkulu honetan sartuta.

publikoa berdin mantentzen da. Bestalde, itunpeko geruzetan, ikasleen ISEK berbera hartuko balitz abiapuntu gisa, geruza guztietan emaitza baxuak lortuko lirateke.

2.3.3.k. grafikoa: ED13-DBHko 2. maila. Batez besteko puntuazioa eta ISEK kontrolatu osteko puntuazioa *Matematikarako konpetentzian* geruzen arabera.



Batez besteko puntuazioak ISEK kontrolatuta (zutabe argiak) aztertzen baldin badira, honako hau ondoriozta dezakegu:

- Geruza publikoetako puntuazioen arteko aldeak estatistikoki nabarmenak dira. D geruza publikoko ikasleek dute puntuaziorik altuena geruza publikoen artean, eta A publikokoek baxuena.
- ISEK berdintzean, geruza desberdinetan lortuko liratekeen puntuazioek alde adierazgarria dute beren artean, D geruza publikoak eta itunpeko B geruzak izan ezik. Horiek berdindu egingo lirateke.
- ISEK kontrolatu ostean, itunpeko sareko geruzen artean, itunpeko A geruzako ikasleek lortu dute batez bestekorik baxuena.


2.3.4. EMAITZAK PROBAKO HIZKUNTZAREN ETA FAMILIA-HIZKUNTZAREN ARABERA

a) EMAITZAK PROBAKO HIZKUNTZAREN ARABERA

Ikastetxeek ikasleek proba egin zezaten hizkuntza hautatzeko bi aukera izan dituzte: euskara edo gaztelania. Konpetentzia honetan, A ereduiko ikastetxe gehienek aukeratu dute gaztelania, eta D eredukoek, aldiz, euskara (% 99). Aldiz, B ereduetan, % 95ek proba gaztelaniaz egin dute.

2.3.4.a grafikoa, datu orokorrak aurkezten dira ED09, ED10, ED11 eta ED13an *Matematikarako konpetentziako* proba egin zuten ikasleen hizkuntzaren arabera.

2.3.4.a. grafikoa: DBHko 2.maila. ED09-ED10-ED11-ED13.
Emaizten bilakaera *Matematikarako konpetentzia*n probako
hizkuntzaren arabera.



* Grafikoa eskala 240ean hasten da, puntuazioen arteko aldeak hobeto nabari daitezzen.


Argi ikusten da edizio guztietan, proba gaztelaniaz egin duten ikasleen emaitzak euskaraz egin dituztenak baino baxuagoak direla (-5 ED09an, -7 ED10ean, -6 ED11n eta -10 ED13an). Gainera, alde horiek gora doaz. 2011ko eta 2013ko emaitzen arteko 2 puntuko aldea estatistikoki adierazgarria da.

Proba euskaraz egiten duten ikasleen bilakaerari begira, azken edizioan hobera egin duela konturatu gara. ED11 eta ED13ren arteko 2 puntuko aldea adierazgarria da.

Hau da, lau edizioen ostean, badirudi joera bat dagoela; hau da, *Matematikarako konpetentzia* proba gaztelaniaz egiten duten ikasleek emaitzak okertu egiten dituzte, eta euskaraz egiten duten ikasleek emaitzak hobetu egiten dituzte.

Datu horiek errendimendu mailen banaketaren arabera aztertzen baldin badira, ondoriozta genezake emaitza orokorretan gertatzen zen moduan, proba gaztelaniaz egiten duten ikasleen artean ikasleen ehuneko gutxiago dagoela hasierako mailetan (% 17 eta % 19 artean). Aldiz, proba euskaraz egiten duten ikasleek % 12 eta % 14 arteko ehunekoak dituzte maila horretan. Aldiz, maila aurreratuetan, ikasleen % 23-% 24k Matematikarako proba gaztelaniaz egiten dute, eta ikasleen % 26-% 27k euskaraz egiten dute.

2.3.4.b. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11-ED13.
Matematikarako konpetentzian errendimendu mailen bilakaera
probako hizkuntzaren arabera.



Bilakaera aztertuz gero, ED09tik proba gaztelaniaz egiten duten ikasleen ehunekoek hasierako mailak hobetu dituzte, batez ere, erdi-mailen kalterako. Hala eta guztiz ere, proba euskaraz egiten duten ikasleek pixkanaka ehunekoak hobetu dituzte maila aurreratueta (% 26tik % 27,8ra), eta hasierako mailetan beherakada izan dute (% 13,5etik % 12,5era).

b) EMAITZAK FAMILIA-HIZKUNTZAREN ARABERA¹⁵

Hurrengo taulan *Matematikarako konpetentziaren* ebaluazioan kontuan hartu den DBHko 2. mailako ikasleak daude adierazita, baita horien familia-hizkuntza ere.

Maila honetan, ikasleen % 20 baino pixka bat gehiagoren familia-hizkuntza euskara da. Hori dela eta, ia % 80k gaztelania edo beste hizkuntza batzuk hitz egiten ditu etxean.


	Euskara		Euskara ez dena	
	Kop.	%	Kop.	%
Guztira: 16.302	3.307	% 20,29	12.995	% 79,71

2.3.4.c. grafikoa, ikus dezakegu familia-hizkuntza euskara duten ikasleek, batez beste, ED13an, *Matematikarako konpetentzian*, 267 puntu lortu dituztela, familia-hizkuntza gaztelania edo beste hizkuntza batzuk dituztenek baino 19 puntu gehiago. Kasu honetan, batez besteko puntuazioa 248koa izan da. Aldea adierazgarria da.

Bilakaerari begira, ondoriozta dezakegu Ebaluazio diagnostikoko edizio guztietan gertatzen dela hori.

¹⁵ Ikasleen galdetegian, ebaluazio honetan parte hartu zuten ikasle guztien familia-hizkuntza hartu zen aintzat. Ikaslea familia euskaldunekotzat hartzen da aitak edota amak euskaraz hitz egiten dutenean eta etxean euskaraz hitz egiten dutenean beti edo ia beti. Gainerako kasuak "Euskara ez dena" kategorian sartzen dira. Gehienak etxean gaztelaniaz hitz egiten dutenak dira, baina badira familia-hizkuntza beste bat duten ikasleak ere.


**2.3.4.c. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11-ED13.
Matematikarako konpetentzian emaitzen bilakaera etxeko
hizkuntzaren arabera.**



* Grafikoa eskala 230an hasten da, puntuazioen arteko aldeak hobeto nabari daitezkeen.

2.3.4.d. grafikoa, 4 edizioetan konpetentzia honetako errendimendu maila bakoitzean kokatzen den ikasleen ehunekoa ageri da (2009, 2010, 2011 eta 2013).

**2.3.4.d. grafikoa: DBHko 2.maila. ED09-ED10-ED11-ED13. Matematikarako
konpetentzian errendimendu mailen bilakaera etxeko hizkuntzaren arabera.**



*ED09an, familia-hizkuntzaren arabera azterketa egiteko, gaztelaniaz hitz egiten zuten ikasleak (12.804) eta beste hizkuntza batzuk hitz egiten zituztenak (314) banatu ziren. Hemen ageri diren datuak gaztelaniaz hitz egiten duten ikasleei soilik dagokie¹⁶

ED13an, familia-hizkuntza euskara duten ikasleen % 92k hasierako mailako errendimendua gainditzen du. Aldiz, familia-hizkuntza gaztelania edo beste hizkuntza batzuk dituzten ikasleen artean, ehuneko hori 8,5 puntu baxuagoa da.

¹⁶ Ikus www.isei-ivei.net "2009ko emaitzen txosten orokorra" Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila.



Edizio guztietan familia-hizkuntzaren araberrako bilakaerari erreparatzeko garaian, ikus genezake euskaraz hitz egiten ez duten (gaztelania edo beste hizkuntza batzuk) ikasleen artean, hasierako mailan, ikasleen % 15,5 eta % 18,1 artean dagoela. Hori dela eta, ikasleen % 82- % 84,5 inguru erdi- mailan eta maila aurreratuan kokatzen da. Ikasle horien artean, maila aurreratuak ia-ia ez dira aldatu ere egiten (% 24 inguru).

Etxean euskaraz hitz egiten duten ikasleen artean, emaitza orokorretan ikusten zen moduan, mailen araberrako jokaera hobe da. Ikasleen % 8- % 9,5 artean hasierako mailan dago. Hori dela eta, DBHko 2. mailako euskaraz hitz egiten duten ikasleen % 92 inguruk erdi-maila edo maila aurreratua du *Matematikarako konpetentzian*. Maila aurreratuko ikasleen ehunekoak hobera egin du edizio bakoitzean (% 33,8tik % 37ra).



2.4. ZIENTZIA-, TEKNOLOGIA-, ETA OSASUN-KULTURARAKO KONPETENTZIA.

ED13an 12 puntuko beherakada gertatu da *Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzia*¹⁷ aurreko edizioarekin (ED09) alderatuta.


Ikasleen % 78k hasierako errendimendu maila gainditu du, eta horien artetik, ia % 15 maila aurreratuan kokatzen da.

2.4.1. EMAITZA OROKORREN BILAKAERA

Ebaluazio diagnostikoko azken edizioan (ED13), bigarren aldiz ebaluatu da *Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzia*. Hori dela eta, konpetentzia hau EDko bi ediziotan soilik aztertu da, eta emaitzak alderatzeko, ED09 eta ED13 soilik ditugu.

Hurrengo grafikoan, aurreko edizioarekin alderatuta (ED09), *Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzia* lortutako emaitza orokorren bilakaera aztertu da.

2.4.1. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED13. *Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzia* emaitza orokorren bilakaera.



Aurreko grafikoan ikus daitekeen moduan, batez besteko puntuazioak 12 puntu egin du behera ED09an lortutako batez bestekoarekin alderatuta. Jaitsiera hori estatistikoki adierazgarria da.

Puntuazioaren jaitsiera esanguratsu hori elkar daiteke, alde batetik, proba neurtzeko egin diren funtsezko aldagetekin eta, bestaldetik, probak aplikatzeko erabili den euskarriaren aldagetekin.

¹⁷ *Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako* eta *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziak* batera ebaluatu ziren bien itemez osatutako bi koadernotan banatutako proba misto baten bidez. Ikasleek, bi konpetentzia horietan, ez dituzte galdera berberak erantzun. Izan ere, koaderno bakoitzean, zati bat komuna edo berdina zen, eta beste zati bat desberdina. Horrela, konpetentzia bakoitza zabalago ebaluatu ahal izan da, baina ezin dira banakako emaitzak eman.

- *Aldaketak errendimenduko proban:* 1.1 atalean adierazi zen moduan, 2009an, konpetentzia hau neurtzeko arkatz eta paperezko proba espezifiko erabili zen, eta 2013an, konpetentzia hau *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziarekin* batera ebaluatu da. *Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzia* neurtzeko 2013an erabili diren item guztiak 2009an ere erabili ziren arren, azken edizioan bi koadernotan banatu ziren eta itemen gutzizko kopurua 2009an baino baxuagoa izan zen ¹⁸.
- *Probak aplikatzeko euskarriaren aldaketa:* erantzun egokien ehunekoa gutxitu da % 53,4tik % 52ra. Probaren euskarria aldatzeagatik, zuriz utzitako ehunekoa gutxitu da % 9,3tik % 2,7ra, eta horregatik errakuntzen ehunekoa handitu da % 37,3tik % 45ra. Beraz, errakuntzak kenduta, erantzun egokien ehunekoa gutxitzen da % 58,91tik % 53,76ra eta errakuntzak handitzen dira % 41,09tik % 46,24ra ¹⁹.

Beraz, aurkeztutako datuak ikusita, nabaria da *Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentziaren* proba antolatzeke era desberdinak eragin dezakeela, hein batean, ebaluatutako konpetentzien emaitzetan. Halaber, euskarriaren aldaketak eragin du zuriz utzitako erantzunen funtsezko murrizketa eta horrek dakar erantzun okerren handitze nabarmena. Horrek guztiak emaitzen murrizketa eragin du. Hala ere, ezin da gutziz baztertu ikasleek erakutsitako konpetentziaren berezko gaitasunetan murrizketa gertatu ahal izan dela.


2.4.2. IKASLEEN BANAKETAREN BILAKAERA ERRENDIMENDU MAILEN ARABERA

ED13an, *Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzia*n, 2.4.2. grafikoan ikus daitekeen moduan, % 63,1 konpetentzia honetako erdi-mailan kokatzen da eta ia % 15ek lortu du probako ariketarik zailenak egin eta maila aurreratuan kokatzea. % 22k ez du hasierako maila gainditu.

¹⁸ Ikasle guztiak egin zituzten 41 itemek osatzen zuten 2009ko proba. 2013an, berriz, 32 item erabili ziren, bi koadernotan banatuta 23 itemekin, haietariko 14 item komunak ziren eta 9 item desberdinak.

¹⁹ Gogoratu behar da, PISA 2012an ere Euskadiko emaitzak Matematika eta ordenagailuz egindako Irakurmenean lortutako emaitzak baino apalagoak izan direla, paperez egindakoekin alderatuz: Irakurmena 496tik 487ra jaitsi da, hau da, 9 puntu; Matematiketan 505tik 490ra jaitsi da, hau da, 15 puntu. Nazioarteko emaitzen aurkezpenean, ELGAko Arazoen ebazpena 2012 probari buruz honakoa aipatu zen: ordenagailuz egindako probetan informazioaren irudikapen mentala eta informazioa lotzeko pentsamendu dinamikoa behar da; paperean egindako probetan, aldiz, pentsamendu lineala gailentzen da. Eragile horiek azaldu lituzkete, nolabait, probaren emaitzen arteko aldeak, euskarri bat edo bestea erabiltzen denean.

2.4.2. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED13. Errendimendu mailen bilakaera Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzian.




Konpetentzia hau ebaluatua izan den Ebaluazio diagnostikoko bi edizioetan (ED09 eta ED13) errendimendu mailetan ikasleen ehunekoak alderatzen baldin badira, ikus daiteke ED13an gora egin duela hasierako mailako (% +4,2) eta erdi-mailako errendimenduetan (% +6,1) kokatu den ikasleen ehunekoak, eta ondorioz, errendimendu maila aurreratuan kokatutako ikasleen ehunekoak behera egin du (% -10,3).

2.4.3. EMAITZA OROKORRAK GERUZEN ARABERA: HIZKUNTZA EREDUA ETA HEZKUNTZA SAREA

a) EMAITZA OROKORREN BILAKAERA

Hurrengo grafikoan, ED09an eta ED13an, Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzian lortutako emaitza orokorren bilakaera aztertu da.

2.4.3.a. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED13. Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzian emaitzen bilakaera geruzen arabera.



Ikus daitekeen moduan, ED13an, puntuazioan jaitsiera adierazgarria izan da geruza guztietan ED09rekin alderatuta. Batez bestekoaren jaitsierarik handiena B geruza publikoan (15 puntu) gertatu da eta txikiena A geruza publikoan (8 puntu) izan da.


Konpetentzia honetan, Ebaluazio diagnostikoko bi edizioetan (ED09 eta ED13), itunpeko geruza gehienek geruza publikoek baino emaitza hobeak dituzte. Bi salbuespen daude: ED09an, D geruza publikoaren eta itunpeko B geruzaren puntuazioen artean ez dago alde adierazgarriarik, eta ED13ren kasuan ere ez dago alde handirik D geruza publikoa eta itunpeko B geruzaren artean.

ED13an, *Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzian* geruzek duten jokia beste oinarritzko konpetentzietan izan ohi dutenaren desberdina da; izan ere, arraroa da A geruza publikoak B geruza publikoaren puntuazioa gainditzea.


b) BANAKETAREN BILAKAERA ERRENDIMENDU MAILEN ARABERA

Hurrengo sei grafikoetan, orain arte egindako Ebaluazio diagnostikoaren bi edizioetan (ED09 eta ED13) *Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzian* errendimendu mailen arabera ikasleen banaketaren bilakaera aztertu da.


2.4.3.b. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED13. A publikoko ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailen arabera *Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzian*.




2.4.3.c. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED13. Itunpeko A geruzako ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailen arabera *Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzian*.




2.4.3.d. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED13. B publikoko ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailen arabera *Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzian*.




2.4.3.e. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED13. Itunpeko B geruzako ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailen arabera *Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzian*.



2.4.3.f. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED13. D publikoko ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailen arabera Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzian.



2.4.3.g. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED13. Itunpeko D geruzako ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailen arabera Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzian.



Errendimendu mailen arabera ikasleen banaketaren bilakaera alderatzen baldin badugu, ikusiko dugu Ebaluazio diagnostikoko bi edizioetan (ED09 eta ED13), geruza publiko guztiek ikasleen ehuneko handia biltzen dutela errendimenduko hasierako mailan. Hizkuntza eredu berberako itunpeko geruzetan baino ikasle gehiago biltzen da. Era berean, maila aurreratuan ikasle kopuru txikiagoa dago.

ED09an, geruza guztiek % 50 eta % 60 arteko ikasleen ehunekoa dute errendimendu erdi-mailan. ED13an, itunpeko geruza guztiek eta D geruza publikoak maila honetan kokatutako herritarren ehunekoan gora egin dute, % 63 gaindituz. A geruza publikoan ere ikasleen ehunekoak gora egin du errendimenduko erdi-mailan, % 55,8ra iritsiz. B geruza publikoak soilik izan du ED13an jaitsiera maila honetan kokatutako ikasleen ehunekoan.

c) EMAITZA OROKORRAK GERUZEN ETA ISEK MAILEN ARABERA


Hurrengo grafikoa, geruza bakoitzak ED13an, Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzian, lortu dituen emaitza orokorrak erakusten dira.

Itunpeko A eta D geruzek soilik gainditu duten modu adierazgarrian konpetentzia honetako batez besteko orokorra (238 puntu). Itunpeko A geruzak lortu du batez bestekorik altuena (251 puntu). D geruza publikoko ikasleek (237 puntu) eta EAEko batez besteko orokorrak lortutako batez besteko puntuazioaren artean ez dago alde adierazgarriarik. Gainerako geruzetako populazioak batez besteko orokorren azpitik kokatzen duten puntuazioak lortu ditu, eta aldeak adierazgarriak dira. A eta B geruza publikoetako ikasleek dute batez bestekorik baxuena Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzian (221 eta 217 puntu hurrenez hurren. Bi geruzen artean dagoen 4 puntuko aldea ez da adierazgarria).

Konpetentzia honetan, itunpeko geruzek geruza publikoek baino emaitza hobeak lortu dituzte, itunpeko B geruzak izan ezik, batez beste D geruza publikoak baino 2 puntu gutxiago lortu baititu, eta aldea ez da adierazgarria.

A eta B geruza publikoen arteko ED13ko puntuazioetako aldeak ez dira adierazgarriak eta D geruza publikoaren eta itunpeko B geruzaren arteko aldeak ere ez dira esanguratsuak. Hala eta guztiz ere, gainerako geruza guztietan dauden puntuazioen arteko aldeak estatistikoki adierazgarriak dira.


2.4.3.h. grafikoa: ED13-DBHko 2.maila. Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako kompetentzia emaitzen bilakaera geruzen arabera.



Jarraian, 2.4.3.i. grafikoa, geruza bakoitzak kompetentzia honetan lortutako batez besteko puntuazioa (kolore iluneko zutabea) eta indize sozioekonomikoaren eta kulturalaren (ISEK) efektua kontrolatuko balitz, maila horietako bakoitzak lortuko lukeen (kolore argiko zutabea) batez besteko puntuazioa ageri da; hau da, ikasle guztiek antzeko ISEK izango balute abiapuntu gisa.²⁰

Grafikoa ikus daiteke geruza publiko guztiek batez besteko puntuazioa hobetzen dutela ISEK indizearen efektua kontrolatzen denean. Hala ere, D geruza publikoaren kasuan, puntu bateko igoera izan da eta hori ez da adierazgarria. Aldiz, itunpeko geruzetan, ISEK indizea kontrolatzean, batez besteko puntuazioak behera egiten du. Jaitsiera hori estatistikoki adierazgarria da. Horrek esan nahi du ISEKek eragina duela itunpeko geruzen emaitzan eta A eta B geruza publikoetan, baina D geruza publikoan ez du eraginik.

2.4.3.i. grafikoa: ED13-DBHko 2. maila. Batez besteko puntuazioa eta Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako kompetentzia ISEK kontrolatu osteko puntuazioa.



²⁰ ISEK indizeak emaitzetan izan duen eragina galdera-sortan indize honekin lotutako galderei erantzun dieten ikasleekin soilik kalkulatu da; ikasle batzuei buruz ez dugu informazio hori eta ikasle horiek ez daude kalkulu honetan sartuta.

ISEK kontrolatuta batez besteko puntuazioei dagozkien zutabeak (kolore argiko zutabeak) aztertzen baldin baditugu, honako hau ondoriozta dezakegu:

- Geruza publikoen puntuazioen arteko aldeak eta itunpeko geruzen puntuazioen arteko aldeak (ISEK kontrolatuta) estatistikoki adierazgarriak dira.
- Geruzen puntuazioen arteko aldeak, ISEK kontrolatu ostean, adierazgarriak dira, A geruza publikoko eta itunpeko B geruzako I puntuko aldea izan ezik.
- ISEK kontrolatuta, B geruza publikoak lortu ditu puntuaziorik baxuenak, eta itunpeko A geruzak altuenak.

Hala eta guztiz ere, ohiko joera nahasten duen fenomeno gertatu da: ISEK indizea kontrolatzean, A geruza publikoak 13 puntu egin du gora eta 10 punturekin gainditu du B geruza publikoaren puntuazioa eta puntu batekin itunpeko B geruzarena (azken joera hori estatistikoki ez da adierazgarria).

2.4.3.a atalean dagoeneko adierazi dugu *Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako kompetentziako* geruzen jokaera gainerako oinarritzko kompetentziek izaten dutenekiko desberdina dela, eta egiaztatu ahal izan den moduan, geruzen emaitzetan ISEKen eragina kentzean, ezohiko joera hori berresteaz gain, joera areagotu egiten da.

2.4.4. EMAITZAK PROBAKO HIZKUNTZAREN ETA FAMILIA-HIZKUNTZAREN ARABERA

a) EMAITZAK PROBAKO HIZKUNTZAREN ARABERA


Hurrengo taulan, *Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako kompetentzian* proba egindako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasleak ageri dira:

	Euskara		Gaztelania	
	Kop.	%	Kop.	%
Guztira: 17.063	13.468	% 78,93	3.595	% 21,07

Hezkuntza maila honetan, ia % 79k kompetentzia honetako proba euskaraz egin zuen, eta % 21ek baino zertxobait gehiagok gaztelaniaz egin zuen.

Hurrengo grafikoan, emaitza orokorrak aurkezten dira ED09 eta ED13ko Ebaluazio diagnostikoetan ikasleek *Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako kompetentziako* proba egindako hizkuntzaren arabera.

2.4.4.a. grafkoa. DBHko 2. maila. ED09-ED13. Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzian emaitzen bilakaera probako hizkuntzaren arabera.




* Grafikoaren eskala 220an hasten da, puntuazioen arteko aldeak hobeto nabari daitezen.

2.4.4.a. grafikoan ikus daiteke ED09an eta ED13an proba euskaraz egin zuten eta gaztelaniaz egin zuten ikasleek lortutako batez besteko puntuazioak alderatzean, bi kasuetan (“Euskara” eta “Gaztelania”), Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzian, batez bestekoa nabarmen jaitsi dela, 12 puntu, hain zuzen. Bestalde, ikus daiteke aipatu berria den konpetentzian proba gaztelaniaz egin zuten ikasleen batez besteko puntuazioak proba euskaraz egin zuten ikasleek lortutakoak baino altuagoak direla. Ebaluazio diagnostikoko bi edizioetan (ED09 eta ED13) gertatu zen hori. Kasu guztietan, aldeak estatistikoki adierazgarriak dira.

Hurrengo grafikoan, 2009 eta 2013ko Ebaluazio diagnostikoko edizioetan, Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzian, errendimendu mailen arabera ikasleen ehunekoaren banaketa ikus daiteke probako hizkuntzaren arabera.

2.4.4.b. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED13. Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzian, probako hizkuntzaren arabera, errendimendu mailen arabera ikasleen ehunekoaren banaketaren bilakaera.



Datuek erakusten dute ED13an, errendimenduko erdi-mailan, proba gaztelaniaz egiten duen ikasleen ehunekoa euskaraz egiten duenaren berdina da (% 63,1); hala eta guztiz ere, hasierako mailan proba euskaraz egin duten ikasleen ehunekoa handiagoa da (% +4,7) proba gaztelaniaz egiten dutenena baino. Aldiz, proba errendimenduko maila aurreratuan egin duten ikasleen ehunekoa baxuagoa da gaztelaniaz egin dutenena baino (% -4,7).

Bestalde ED09 eta ED13 artean ikasleen banaketa errendimendu mailen arabera alderatzen baldin badugu, ikusiko dugu bi ebaluazioetan, ikasle gehienak erdi-mailan kokatzen direla, bai proba euskaraz egin denean, bai gaztelaniaz egin denean (% 54,4 eta % 63,1 artean). Bi egoeretan, ED13an gora egin dute. Errendimenduko maila aurreratuan kokatutako ikasleen ehunekoak behera egin du ED13an, bai proba euskaraz egin denean, bai gaztelaniaz egin denean. Aldiz, hasierako mailan kokatutako ikasleen ehunekoak gora egin du bi egoeretan.

b) EMAITZAK FAMILIA-HIZKUNTZAREN ARABERA²¹


Hurrengo taulan, *Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzian* aintzat hartu diren DBHko 2. mailako ikasleak ageri dira, baita horien familia-hizkuntza ere:

	Euskara		Euskara ez dena	
	Kop.	%	Kop.	%
Guztira: 16.869	3.382	% 20,05	13.487	% 79,95

Hezkuntza maila honetan, ikasleen % 20 ingururen familia-hizkuntza euskara da eta % 80 baino zertxobait gehiagoren familia-hizkuntza da gaztelania edo besteren bat.

Hurrengo grafikoan, ED09 eta ED13ko Ebaluazio diagnostikoetan ikasleek *Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzian* lortutako emaitza orokorrak aurkezten dira.

2.4.4.c. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED13. *Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzian* emaitzen bilakaera etxeko hizkuntzaren arabera.



* Grafikoa eskala 220an hasten da, puntuazioen arteko aldeak hobeto nabari daitezten.


2.4.4.c. grafikoa ikus daiteke familia-hizkuntza euskara duten ikasleek ED09 eta ED13an lortutako batez besteko puntuazioak familia-hizkuntza euskara ez duten ikasleen puntuazioekin alderatzean, 13 puntuko jaitsiera adierazgarria gertatu dela lehen kasuan ("Euskara") eta 14 puntuko bigarren kasuan ("Euskara ez dena") *Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzian*. Bestalde, ikusi dugu Ebaluazio diagnostikoaren bi edizioetan (ED09 eta ED13),

²¹ Ikasleen galdetegian, ebaluazio honetan parte hartu zuten ikasle guztien familia-hizkuntza hartu zen aintzat. Ikaslea familia euskaldunekotzat hartzen da aitak edota amak euskaraz hitz egiten dutenean eta etxean euskaraz hitz egiten dutenean beti edo ia beti. Gainerako kasuak "Euskara ez dena" kategorian sartzen dira. Gehienak etxean gaztelaniaz hitz egiten dutenak dira, baina badira familia-hizkuntza beste bat duten ikasleak ere.

aipatu berri dugun konpetentzian, familia-hizkuntza euskara duten ikasleen batez besteko puntuazioen familia-hizkuntza euskara ez duten ikasleen puntuazioen arteko aldeak adierazgarriak direla.

Hurrengo grafikoan, 2009 eta 2013ko Ebaluazio diagnostikoko edizioetan, *Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzian*, errendimendu mailen arabera ikasleen ehunekoaren banaketa ikus daiteke.

2.4.4.d. grafikoa: 2º ESO. ED09-ED13. Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzian, familia-hizkuntzaren arabera, errendimendu mailen arabera ikasleen ehunekoaren banaketaren bilakaera.



*ED09an, familia-hizkuntzaren arabera azterketa egiteko, gaztelaniaz hitz egiten zuten ikasleak (13.066 eta beste hizkuntza batzuk hitz egiten zituztenak (341) banatu ziren. Hemen ageri diren datuak gaztelaniaz hitz egiten duten ikasleei soilik dagokie²²

Datuen arabera, ED13an, erdi-mailako errendimenduan eta maila aurreratuan kokatutako (% +1,7 eta % +7,9, hurrenez hurren) ikasleen ehunekoa altuagoa da familia-hizkuntza euskara duten ikasleen kasuan familia-hizkuntza euskara ez dutenen kasuan baino. Aldiz, ehunekoa, hasierako mailan baxuagoa da (% -9,6).

Bestalde ED09 eta ED13 artean ikasleen banaketa errendimendu mailen arabera alderatzen baldin badugu, ikusiko dugu bi ebaluazioetan, ikasle gehienak erdiko mailan kokatzen direla, bai proba euskaraz egin denean, bai euskara ez den beste hizkuntza batean egin denean (% 57,2 eta % 64,4 artean). Bi egoeretan, ED13an gora egin dute. Errendimenduko maila aurreratuan kokatutako ikasleen ehunekoak behera egin du ED13an, bai proba euskaraz egin denean, bai gaztelaniaz egin denean. Aldiz, hasierako mailan kokatutako ikasleen ehunekoak gora egin du bi egoeretan.

²² Ikus www.isei-ivei.net "2009ko emaitzen txosten orokorra" Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila.

2.5. GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO KONPETENTZIA


ED13an 4 puntuko beherakada gertatu da *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziaren*²³ batez besteko puntuazioan, aurreko edizioarekin (ED10) alderatuta.

Ikasleen % 85k hasierako errendimendu maila gainditu du, eta horien artetik, % 24 baino zertxobait gehixeago maila aurreratuan kokatzen da.

2.5.1. EMAITZA OROKORREN BILAKAERA

Ebaluazio diagnostikoko aurtengo edizioan (ED13), bigarren aldiz ebaluatu da *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia*. Hori dela eta, konpetentzia hau EDko bi edizioetan soilik aztertu da, eta emaitzak alderatzeko, ED10 eta ED13 soilik ditugu.

2.5.1. grafikoa, ikasleek, ebaluatuak izan diren EDko bi edizioetan (ED10 eta ED13), *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian* lortutako emaitza orokorrak ageri dira.



Grafikoa ikus daitekeen moduan, ED13an, puntuazioak 4 puntu egin du behera, eta aldea adierazgarria da.

Puntuazioaren jaitsiera esanguratsu hori elkar daiteke, alde batetik, proba neurtzeko egin diren funtsezko aldatetekin eta, bestaldetik, probak aplikatzeko erabili den euskarriaren aldatetekin.

²³ *Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako eta Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziak* batera ebaluatu ziren bien itemez osatutako bi koadernotan banatutako proba misto baten bidez. Ikasleek, bi konpetentzia horietan, ez dituzte galdera berberak erantzun. Izan ere, koaderno bakoitzean, zati bat komuna edo berdina zen, eta beste zati bat desberdina. Horrela, konpetentzia bakoitza zabalago ebaluatu ahal izan da, baina ezin dira banakako emaitzak eman.

- *Aldaketak errendimenduko proban:* I.I atalean adierazi zen moduan, 2009an, konpetentzia hau neurtzeko arkatz eta paperezko proba espezifikoak erabili zen, eta 2013an, konpetentzia hau *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziarekin* batera ebaluatu da. *Kultura-zientziako konpetentzia* neurtzeko 2013an erabili diren item guztiak 2009an ere erabili ziren arren, azken edizioan bi koadernotan banatu ziren eta itemen guztizko kopurua 2009an baino baxuagoa izan zen²⁴.
- *Probak aplikatzeko euskarriaren aldaketa:* erantzun egokien ehunekoa gutxitu da % 60,0tik % 59,7ra. Probaren euskarria aldatzeagatik, zuriz utzitako ehunekoa gutxitu da % 8,9tik % 2,7ra, eta horregatik errakuntzen ehunekoa handitu da % 31,1etik % 37,6ra. Beraz, errakuntzak kenduta, erantzun egokien ehunekoa gutxitzen da % 65,85tik % 61,37ra eta errakuntzak handitzen dira % 34,15tik % 38,63ra²⁵.

Beraz, aurkeztutako datuak ikusita, nabaria da *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziaren* proba antolatzeak era desberdinak eragin dezakeela, hein batean, ebaluatutako konpetentzien emaitzetan. Halaber, euskarriaren aldaketak eragin du zuriz utzitako erantzunen funtsezko murrizketa eta horrek dakar erantzun okerren handitze nabarmena. Horrek guztiak emaitzen murrizketa eragin du. Hala ere, ezin da guztiz baztertu ikasleek erakutsitako konpetentziaren berezko gaitasunetan murrizketa gertatu ahal izan dela.

2.5.2. IKASLEEN BANAKETAREN BILAKAERA ERRENDIMENDU MAILEN ARABERA


Jarraian, 2.5.2. *grafikoan*, 2010 eta 2013ko Ebaluazio diagnostikoko edizioetan errendimendu maila bakoitzean kokatutako ikasleen ehunekoaren bilakaera ageri da.

ED13an, ikasleen % 85 gainditu du hasierako maila, eta horien artetik, % 24 inguru errendimendu maila aurreratuan dago *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian*.

²⁴ Ikasle guztiek egin zituzten 42 itemek osatzen zuten 2010eko proba. 2013an, berriz, 20 item erabili ziren A koadernoan eta 22 item B koadernoan, haietarik 13 item komunak eta 7 edo 9 desberdinak.

²⁵ Gogoratu behar da, PISA 2012an ere Euskadiko emaitzak Matematika eta ordenagailuz egindako Irakurmenean lortutako emaitzak baino apalagoak izan direla, paperez egindakoekin alderatuz: Irakurmena 496tik 487ra jaitsi da, hau da, 9 puntu; Matematiketan 505tik 490ra jaitsi da, hau da, 15 puntu. Nazioarteko emaitzen aurkezpenean, ELGAko Arazoen ebazpena 2012 probari buruz honakoa aipatu zen: ordenagailuz egindako probetan informazioaren irudikapen mentala eta informazioa lotzeko pentsamendu dinamikoa behar da; paperean egindako probetan, aldiz, pentsamendu lineala gailentzen da. Eragile horiek azaldu lituzkete, nolabait, probaren emaitzen arteko aldeak, euskarri bat edo bestea erabiltzen denean.

2.5.2. grafikoa: DBHko 2. maila. ED10-ED13. *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian* ikasleen banaketaren bilakaera errendimendu mailen arabera.




ED10 eta ED13 artean errendimenduko hiru mailetan ikasleen banaketa alderatzen baldin bada, ikusiko dugu erdi-mailan kokatutako ikasleen ehunekoan % 9,3ko igoera dagoela eta beherakada izan dela hasierako mailan (% -2,4) eta maila aurreratuan (% -6,9).

2.5.3. EMAITZA OROKORRAK GERUZEN ARABERA: HIZKUNTZA EREDUA ETA HEZKUNTZA SAREA

a) EMAITZA OROKORREN BILAKAERA

Hurrengo grafikoa, ED09an eta ED13an, *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian* lortutako emaitza orokorren bilakaera aztertu da.

2.5.3.a. grafikoa: DBHko 2. maila. ED10-ED13 Emaizten bilakaera geruzen arabera *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian*.



ED10i dagokionez, ED13an beherakada nabarmena izan da B geruza publikoko ikasleek (-6 puntu) eta itunpeko B geruzakoek (-12 puntu) lortutako puntuazioetan. Hala eta guztiz ere, Ebaluazio diagnostikoko bi edizioen artean (ED10 eta ED13), itunpeko A eta D geruzen


puntuazioetako aldeak ez dira adierazgarriak. Bestalde, D geruza publikokoaren puntuazioa egonkor mantendu da eta A geruza publikoak 6 puntu egin du gora. Aldea adierazgarria da.

Konpetentzia honetan, ED10ean eta ED13an, itunpeko geruzek geruza publikoek baino emaitza hobeak dituzte, eta puntuazioetako aldea estatistikoki adierazgarria da. Era berean, bi edizioetan, *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian*, emaitzarik onenak itunpeko A geruzako ikasleek lortu dituzte eta okerrenak B geruza publikoko ikasleek.


b) BANAKETAREN BILAKAERA ERRENDIMENDU MAILEN ARABERA

Hurrengo sei grafikoetan, orain arte egindako Ebaluazio diagnostikoaren bi edizioetan (ED10 eta ED13) *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian* errendimendu mailen arabera ikasleen banaketaren bilakaera aztertu da.


2.5.3.b. grafikoa: DBHko 2. maila. ED10-ED13.
A publikoko ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailen arabera *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian*.




2.5.3.c. grafikoa: DBHko 2. maila. ED10-ED13.
Itunpeko A geruzako ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailen arabera *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian*.




2.5.3.d. grafikoa: DBHko 2. maila. ED10-ED13.
B publikoko ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailen arabera *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian*.




2.5.3.e. grafikoa: DBHko 2. maila. ED10-ED13.
Itunpeko B geruzako ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailen arabera *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian*.



2.5.3.f. grafikoa: DBHko 2. maila. ED10-ED13.
D publikoko ikasleen ehunekoaren bilakaera
errendimendu mailen arabera Gizarterako eta
herritartasunerako konpetentzian.



2.5.3.g. grafikoa: DBHko 2. maila. ED10-ED13.
Itunpeko D geruzako ikasleen ehunekoaren
bilakaera errendimendu mailen arabera
Gizarterako eta herritartasunerako
konpetentzian.



Konpetentzia honetan errendimendu mailen arabera ikasleen banaketaren bilakaera alderatzen baldin badugu, ikusiko dugu Ebaluazio diagnostikoko bi edizioetan (ED10 eta ED13), geruza publiko guztiek ikasleen ehuneko handia biltzen dutela errendimenduko hasierako mailan. Hizkuntza eredu berbereko itunpeko geruzetan baino ikasle gehiago biltzen da. Era berean, maila aurreratuan ikasle kopuru txikiagoa dago.

Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziaren bi ebaluazioetan, geruza guztiek, populazioaren ehunekorik altuena erdi-mailako errendimenduan biltzen dute (% 45,8 eta % 64,2 artean). ED13an, geruza guztiek gainditu dute maila honetan kokatutako populazioaren ehunekoa, eta D geruza publikoak eta itunpekoak % 61 egin du gora. Itunpeko A geruzan ehunekorik handiena biltzen da errendimenduko maila aurreratuan Ebaluazio diagnostikoko bi edizioetan (% 42,4 ED10ean eta % 46,7 ED13an). Gainera, EDko bi edizioetan, geruza honetan dago populazioaren ehunekorik txikiena hasierako mailan (% 7,5 ED10ean eta % 5,9 ED13an).

c) EMAITZA OROKORRAK GERUZEN ETA ISEK MAILEN ARABERA


Hurrengo grafikoan, geruza bakoitzak ED13an, Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian, lortu dituen emaitza orokorrak erakusten dira.

ED13an, itunpeko geruzek geruza publikoek baino emaitza hobeak lortu dituzte konpetentzia honetan eta aldeak adierazgarriak dira. Itunpeko B geruza EAEko batez besteko orokorrera (246 puntu) iritsi da eta itunpeko A eta D geruzek modu adierazgarrian gainditu dute, +21 eta +5 puntu, hurrenez hurren. Itunpeko A geruzako ikasleek lortu dute batez bestekorik altuena (267 puntu) eta B geruza publikoko ikasleek dute batez bestekorik baxuena (227 puntu).

Geruzen arteko ED13ko puntuazioetako alde guztiak, A geruza publikoaren eta D geruza publikoaren artean daudenak izan ezik, estatistikoki adierazgarriak dira.

Ikus daitekeen moduan, Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian, geruzen jokaera oinarritzko beste konpetentzia batzuetan izaten denetik desberdina da: A geruza publikoak B geruza publikoak baino 15 puntu gehiago lortu ditu eta itunpeko B geruzak baino puntu bat gehiago. Azken hori ez da alde adierazgarria.

2.5.3.h. grafikoa: ED13-DBHko 2. maila. Emaitzen bilakaera geruzen arabera Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian.




Jarraian, 2.5.3.i. grafikoan, geruza bakoitzak konpetentzia honetan lortutako batez besteko puntuazioa (kolore iluneko zutabea) eta indize sozioekonomikoaren eta kulturalaren (ISEK) efektua kontrolatuko balitz, maila horietako bakoitzak lortuko lukeen (kolore argiko zutabea) batez besteko puntuazioa ageri da; hau da, ikasle guztiek antzeko ISEK izango balute abiapuntu gisa.²⁶

Grafikoan ikus daiteke geruza publiko guztiek batez besteko puntuazioa hobetzen dutela ISEK indizearen efektua kontrolatzen denean. Hala ere, D geruza publikoaren kasuan, puntu bateko igoera izan da eta hori ez da adierazgarria. Aldiz, itunpeko geruzetan, ISEK indizea kontrolatzean, batez besteko puntuazioak behera egiten du. Jaitsiera hori estatistikoki adierazgarria da. Horrek esan nahi du ISEKek eragina duela itunpeko geruzen emaitzan eta A eta B geruza publikoetan, baina D geruza publikoan ez du eraginik.

²⁶ ISEK indizeak emaitzetan izan duen eragina galdera-sortan indize honekin lotutako galderei erantzun dieten ikasleekin soilik kalkulatu da; ikasle batzuei buruz ez dugu informazio hori eta ikasle horiek ez daude kalkulu honetan sartuta.

2.5.3.i. grafikoa: ED13-DBHko 2. maila. Batez besteko puntuazioa eta Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian ISEK kontrolatuz ateratako puntuazioa.



ISEK kontrolatuta batez besteko puntuazioei dagozkien zutabeak (kolore argiko zutabeak) aztertzen baldin baditugu, honako hau ondoriozta dezakegu:

- Geruza guztietako puntuazioen (ISEK kontrolatuta) arteko aldeak estatistikoki adierazgarriak dira.
- ISEK kontrolatuta, B geruza publikoak lortu ditu puntuaziorik baxuenak, eta itunpeko A geruzak altuenak.

Hala eta guztiz ere, ohiko joera okertu duen fenomeno bat gertatu da: A geruza publikoak, ISEK maila baxuena duenak, II punturekin egin du gora puntuazioan, eta gainerako geruzak gainditu (itunpeko A geruza izan ezik) eta alde adierazgarria ezarri du.

2.5.3.a atalean dagoeneko adierazi dugu *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian* geruzen jokaera gainerako oinarrizko konpetentziek izaten dutenekiko desberdina dela, eta egiaztatu ahal izan den moduan, geruzen emaitzetan ISEKen eragina kentzean, ezohiko joera hori berrestez gain, joera areagotu egiten da.

Egoera hori ikusten da *Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentziarekiko* harremanean ere, neurri txikiagoan bada ere.

2.5.4. EMAITZAK PROBAKO HIZKUNTZAREN ETA FAMILIA-HIZKUNTZAREN ARABERA

a) EMAITZAK PROBAKO HIZKUNTZAREN ARABERA


Hurrengo taulan, *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia* proba egindako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasleak ageri dira, baita proba egindako hizkuntza ere:

	Euskara		Gaztelania	
	Kop.	%	Kop.	%
Guztira: 17.058	13.465	% 78,94	3.593	% 21,06

Hezkuntza maila honetan, ia % 79k konpetentzia honetako proba euskaraz egin zuen, eta % 21ek baino zertxobait gehiagok gaztelaniaz egin zuen.

Hurrengo grafikoan, emaitza orokorrak aurkezten dira ED10 eta ED13ko Ebaluazio diagnostikoetan ikasleek *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziako* proba egindako hizkuntzaren arabera.

2.5.4.a. grafikoa: DBHko 2. maila. ED10-ED13. Emaitzen bilakaera probako hizkuntzaren arabera *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian*.




* Grafikoaren eskala 230an hasten da, puntuazioen arteko aldeak hobeto nabari daitezen.

2.5.4.a. grafikoan, ikus dezakegu ED10ean eta ED13an, proba euskaraz eta gaztelaniaz egin zuten ikasleek lortutako batez besteko puntuazioak alderatzean, beherakada nabarmena gertatu dela *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian*; hau da, 1 puntu lehen kasuan (*“Euskara”*) eta 4 puntu bigarrenetan (*“Gaztelania”*). Bestalde, ikus daiteke aipatu berria den konpetentzian proba gaztelaniaz egin zuten ikasleen batez besteko puntuazioak proba euskaraz egin zuten ikasleek lortutakoak baino altuagoak direla. Ebaluazio diagnostikoko bi edizioetan (ED10 eta ED13) gertatu zen hori. Kasu guztietan, aldeak estatistikoki adierazgarriak dira.

Hurrengo grafikoan, 2010 eta 2013ko Ebaluazio diagnostikoko edizioetan, *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian*, errendimendu mailen arabera ikasleen ehunekoaren banaketa ikus daiteke probako hizkuntzaren arabera.

2.5.4.b. grafikoa: DBHko 2. maila. ED10-ED13. Gizartearen eta herritartasunaren konpetentzian, probako hizkuntzaren arabera, errendimendu mailen arabera ikasleen ehunekoaren banaketaren bilakaera.



Taulan argi ikusten da ED13an, erdi-mailako errendimenduan (% +9,5) eta hasierakoan (% +7,4) kokatutako ikasleen ehunekoa altuagoa dela *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziako* proba euskaraz egin duten ikasleen kasuan, gaztelaniaz egin dutenen kasuan baino; aldiz, maila aurreratuan kokatutako ikasleen ehunekoa handiagoa da (% +17) proba gaztelaniaz egin dutenen kasuan, euskaraz egin dutenen kasuan baino.

Bestalde ED10 eta ED13 artean ikasleen banaketa errendimendu mailen arabera alderatzen baldin badugu, ikusiko dugu *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziaren* bi ebaluazioetan, ikasle gehienak erdi-mailan kokatzen direla, bai proba euskaraz egin denean, bai gaztelaniaz egin denean (% 47,7 eta % 62,9 artean). Bi egoeretan, ED13an gora egin dute. Hasierako errendimendu mailan eta errendimenduko maila aurreratuan kokatutako ikasleen ehunekoak behera egin du ED13an, bai proba euskaraz egin denean, bai gaztelaniaz egin denean. EDren bi edizioetan, proba gaztelaniaz egin duten ikasleek biltzen dute ehunekorik baxuena hasierako mailan (% 9,8 ED10ean eta % 9,2 ED13an). Era berean, horiek dute ehunekorik altuena errendimendu maila aurreratuan (% 42,6 ED10ean eta % 37,5 ED13an).

b) EMAITZAK FAMILIA-HIZKUNTZAREN ARABERA²⁷

Hurrengo taulan, *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian* aintzat hartu diren DBHko 2. mailako ikasleak ageri dira, baita horien familia-hizkuntza ere:


	Euskara		Euskara ez dena	
	Kop.	%	Kop.	%
Guztira: 16.866	3.382	% 20,05	13.484	% 79,95

²⁷ Ikasleen galdetegian, ebaluazio honetan parte hartu zuten ikasle guztien familia-hizkuntza hartu zen aintzat. Ikaslea familia euskaldunekotzat hartzen da aitak edota amak euskaraz hitz egiten dutenean eta etxean euskaraz hitz egiten dutenean beti edo ia beti. Gainerako kasuak "Euskara ez dena" kategorian sartzen dira. Gehienak etxean gaztelaniaz hitz egiten dutenak dira, baina badira familia-hizkuntza beste bat duten ikasleak ere.

Hezkuntza maila honetan, ikasleen % 20 ingururen familia-hizkuntza euskara da eta % 80 baino zertxobait gehiagoren familia-hizkuntza da gaztelania edo besteren bat.

Hurrengo grafikoan, ED10 eta ED13ko Ebaluazio diagnostikoetan ikasleek *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziako* proban lortutako emaitza orokorrak aurkezten dira.

2.5.4.c. grafikoa: DBHko 2. maila. ED-10-ED13. Emaizten bilakaera etxeko hizkuntzaren arabera *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian*.




* Grafikoa eskala 230ean hasten da, puntuazioen arteko aldeak hobeto nabari daitezkeen.

2.5.4.c. grafikoa, ondoriozta daiteke ED10ean eta ED13an, familia-hizkuntza euskara duten eta euskara ez duten ikasleek *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian* lortutako batez besteko puntuazioak alderatzean, lehen kasuko ("Euskara") 2 puntuko jaitsiera ez dela adierazgarria, eta bigarreneko 5 puntukoa ("Euskara ez dena"), aldiz, adierazgarria da. Bestalde, ikusi dugu Ebaluazio diagnostikoaren bi edizioetan (ED10 eta ED13), aipatu berri dugun konpetentzian, familia-hizkuntza euskara duten ikasleen batez besteko puntuazioen familia-hizkuntza euskara ez duten ikasleen puntuazioen arteko aldeak adierazgarriak direla.

Hurrengo grafikoan, 2010 eta 2013ko Ebaluazio diagnostikoko edizioetan, *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian*, errendimendu mailen arabera ikasleen ehunekoaren banaketa ikus daiteke familia-hizkuntzaren arabera.

2.5.4.d. grafikoa: DBHko 2. maila. ED10-ED13. Gizartearen eta herritartasunaren konpetentzian, etxeko hizkuntzaren arabera, errendimendu mailen arabera ikasleen ehunekoaren banaketaren bilakaera.



Grafikoko datuek erakusten dute ED13an, erdiko eta hasierako errendimendu mailetan kokatutako ikasleen ehunekoa baxuagoa dela (% -0,9 eta % -5,3, hurrenez hurren) familia-hizkuntza euskara duten ikasleen kasuan, familia-hizkuntza besteren bat dutenekin alderatuta; aldiz, maila aurreratuan ehunekoa altuagoa da (% +6,2).

Bestalde ED10 eta ED13 artean ikasleen banaketa errendimendu mailen arabera alderatzen baldin badugu, ikusiko dugu bi ebaluazioetan, ikasle gehienak erdiko mailan kokatzen direla, bai familia-hizkuntza euskara denean, bai euskara ez den beste hizkuntza batean egin denean (% 50,7 eta % 61,1 artean). Bi egoeretan, ED13an gora egin dute. Errendimenduko hasierako mailan eta maila aurreratuan kokatutako ikasleen ehunekoak behera egin du ED13an, bai familia-hizkuntza euskara denean, bai euskara ez denean.



3. EMAITZAK, ZENBAIT ALDAGAIEN ARABERA



Aldagaien laburpena

• Emaitzak, ikasleen sexuaren arabera

- Nesken errendimendua handiagoa da mutilena baino ebaluatutako bi *Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzietan*, *Zientzia-*, *teknologia-*, eta *osasun-kulturarako konpetentzian*, eta *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian*. *Matematikarako konpetentzian*, mutilek neskek baino askoz ere puntuazio hobekak lortu dituzte.
- ED09an eta ED13an lortutako batez bestekoak alderatzen baldin badira, ondoriozta dezakegu *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* mutilen eta nesken igoera adierazgarria ikusten dela eta mutilena soilik *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* eta *Matematikarako konpetentzian*. Era berean, *Zientzia-*, *teknologia-*, eta *osasun-kulturarako konpetentzian* nesken eta mutilen batez besteko puntuazioetan jaitsiera adierazgarria izan da.
- ED11ko eta ED13ko emaitzak alderatuz gero, ikusiko dugu puntuazioetako alde adierazgarri bakarra neskena dela; izan ere, *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*, batez bestekoan, behera egin dute.
- Neskek batez besteko puntuazio baxuagoa lortu dute *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian* (ED10-ED13).

• Emaitzak ikaslearen jaiotza-urtearen arabera

- Adinaren arabera dagokion irakasmailan eskolatutako ikasleek, ebaluatuko konpetentzia guztietan, errendimendu nabarmen altuagoa lortu dute adinarekiko urtebeteko edo bi urteko atzerapenen bat duten ikasleekin alderatuta. Egoera hori ohikoa da ikasketak eta ikerketa guztietan.
- Adin-egokitasun egoeran dauden ikasleak Euskadiko batez bestekoaren gainetik kokatzen dira ED13an ebaluatutako konpetentzia guztietan.
- ED09ko eta ED13ko emaitzak alderatzean, ikasleek, bai adin-egokitasun egoeran daudenek, bai 1 edo 2 urteko atzerapena dutenek, emaitzak hobetu dituzte *Hizkuntza-kompetentzietan* eta mantendu egin dira *Matematikarako konpetentzian*.
- Hala eta guztiz ere, ED13ko eta aurreko edizioako (ED11) emaitzak alderatzen baldin badira, adin-egokitasun egoeran dauden ikasleek emaitza berberak lortu dituzte *Matematikarako konpetentzian* eta *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*, baina puntu bat egin dute behera *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*. Jaitsiera adierazgarria da.
- Ikasturte honetan, beste behin ebaluatu dira *Zientzia-*, *teknologia-*, eta *osasun-kulturarako konpetentzia* eta *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia*. Konpetentzia horiek 2009ko eta 2010eko edizioetan ere ebaluatu ziren. Bi konpetentzietan, 2013ko edizioan, adin-egokitasun egoeran dauden ikasleek emaitza nabarmen baxuagoak lortu dituzte. Datu hori bat dator konpetentzia horietan Euskadiko batez bestekoan izandako jaitsierarekin.



Atal honetan, Euskadiko ikasleen emaitzetan azalpen-gaitasun handia duten bi aldagai garrantzitsu aukeratu dira: ikasleen sexua eta dagokion irakasmailan egotea. Bakoitzarekin azterketa laburra egiten da eta dagozkien emaitzak eskaintzen dira; era berean, 2009, 2010, 2011 eta 2013ko aplikazioaren emaitzen artean alderaketa egiten dira ebaluatutako konpetentzietan.

Txosteneko atal honetako grafikoetan irakurketa errazteko konpetentzia bakoitzeko emaitzak batera agertzen diren arren, ez da egokia horietako bakoitzean lortutako errendimendua zuzenean alderatzea, izan ere, ezarritako ebaketa-puntuak ez dira berdinak.

3.1. EMAITZAK IKASLEEN SEXUAREN ARABERA

Nesken errendimendua handiagoa da mutilena baino ebaluatutako bi Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzietan, Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako kompetentzian, eta Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian. Matematikarako kompetentzian, mutilek neskek baino askoz ere puntuazio hobeak lortu dituzte.

3.1.1. EMAITZA OROKORREN BILAKAERA SEXUAREN ARABERA

Hurrengo taulan, ED13an ebaluatutako bost kompetentzietan lortutako emaitzen arteko alderaketa ikus daiteke, ikasleen sexuaren arabera, betiere.


ED13-DBH 2. maila Ikaslearen sexuaren arabera ebaluatutako kompetentzietan lortutako puntuazioak				
Kompetentziak	Nesak	Mutlak	Aldea	Adierazgarritasuna
Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia	263	250	13	Bai
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia	254	251	3	Bai
Matematikarako kompetentzia	250	253	-3	Bai
Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako kompetentzia	240	236	4	Bai
Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia	252	240	12	Bai

BAI: % 95eko alde adierazgarria

Aurreko taulan ikus daiteke neskek eta mutilek bost kompetentzietan puntuazioen artean lortutako aldeak estatistikoki adierazgarriak direla.

3.1.1.a grafikoan ikus daiteke mutilek eta neskek ED13an ebaluatutako bost kompetentzietan lortutako emaitza orokorrak.

3.1.1.a. grafikoa: ED13-DBHko 2. maila .Ebaluatutako konpetentzietako emaitza orokorrak sexuaren arabera.




ED13an, ikasleen sexuaren araberako emaitzek berretsi egiten dituzte Ebaluazio diagnostikoko beste edizioetako aldeak: neskek mutilek baino emaitza nabarmen altuagoak lortu dituzte *Euskarazko eta Gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzietan* eta mutilek errendimendu maila altuagoa dute *Matematikarako konpetentzian*.

Bestalde, aurreko EDko edizioetan gertatu zen moduan, neskek mutilek baino puntuazio altuagoa lortu dituzte *Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzian* eta *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian*.

Hurrengo grafikoa, Ebaluazio diagnostikoko edizio guztietan modu finkoan ebaluatzen diren konpetentzietan emaitza orokorren bilakaera ikus daiteke: *Euskarazko eta Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziak* eta *Matematikarako konpetentzia*.

3.1.1.b. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED11-ED13. *Gaztelaniazko eta Euskarazko hizkuntza-komunikazioan eta Matematikarako konpetentzian* sexuaren araberako emaitza orokorren bilakaera.



* Grafikoa eskala 230an hasten da, puntuazioen arteko aldeak hobeto nabari daitezen.

Ikus dezakegu aurreko grafikoan ageri diren EDko hiru edizioetan (ED09, ED11 eta ED13), neskek mutilek baino batez besteko nabarmen altuagoak dituztela *Euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzietan*. Hala eta guztiz ere, *Matematikarako konpetentzian*, mutilek neskek baino emaitza altuagoak lortu dituzte ED11n eta ED13an. Hala eta guztiz ere, ED09an, bi sexuen arteko puntuazio-aldea ez zen adierazgarria izan.

ED09ko eta ED13ko emaitzak alderatzen baldin badira, honako hau ondorioztatuko dugu:


- *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*, mutilen eta nesken kasuan, batez besteko puntuazioetan igoera handia gertatu da.
- *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* eta *Matematikarako konpetentzian*, mutilen puntuazioan igoera adierazgarria gertatu da. Bi konpetentzia horietan, nesken batez besteko igoera ez da adierazgarria.

ED11ko eta ED13ko emaitzak alderatzen baldin badira, honako hau ondorioztatuko dugu:

- Puntuazioetako aldaketa adierazgarri bakarra neskena izan da; izan ere, *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*, batez bestekoan behera egin dute.

Hurrengo grafikoan ikus daiteke Ebaluazio diagnostikoaren bi edizioetan soilik ebaluatu diren konpetentzietako emaitza orokorren bilakaera ikus daiteke: *Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzia* (ED09 y ED13) eta *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia* (ED10 eta ED13).

3.1.1.c. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED13 y ED10-ED13.
Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzian eta
Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian sexuen
araberako emaitza orokorren bilakaera.



* Grafikoaren eskala 230an hasten da, puntuazioen arteko aldeak hobeto nabari daitezen.


Grafikoan ikus daiteke bi konpetentzietan eta bi konpetentziak ebaluatu diren bi edizioetan, neskek mutilek baino emaitza hobeak lortu dituztela eta aldeak adierazgarriak dira.

Gainera, *Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzian* aztertutako ebaluazio-diagnostikoko bi edizioen artean, mutilen eta nesken batez besteko puntuazioetan jaitsiera adierazgarria izan dela nabari da. Hala eta guztiz ere, *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziako* puntuazioaren jaitsiera nesken kasuan soilik da adierazgarria.

3.1.2. IKASLEEN BANAKETAREN BILAKAERA SEXUAREN ARABERA ERRENDIMENDU MAILETAN


Hurrengo grafikoetan, ebaluatutako bost konpetentzietan, errendimendu mailetan, sexuaren arabera ikasleen banaketa ikus daiteke.

3.1.2.a. grafikoa: ED13-DBHko 2. maila. Euskaraz eta gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian eta Matematikarako konpetentzian ikasleak sexuaren arabera errendimendu mailetan banatzea.



ED 13an, neskek mutilek baino ehuneko txikiagoa dute errendimenduko hasierako mailan; aldiz, Euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian, Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzian eta Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian, ehuneko altuagoa dute erdi-mailako errendimenduan eta maila aurreratuan. Hala eta guztiz ere, hasierako mailan eta erdi-mailan mutil gutxiago dago neskak baino, Matematikarako konpetentzian, maila aurreratuan, mutilen ehuneko altuagoa da.


3.1.2.b. grafikoa: ED13-DBHko 2. maila. Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzian eta Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian ikasleak sexuaren arabera errendimendu mailetan banatzea.



a) Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako errendimendu mailetan sexuen arabera ikasleen banaketaren bilakaera

3.1.2.c. grafikoan, ED09-ED10-ED11-ED13 edizioetan, Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian, errendimenduko hiru mailetan bi sexuetako ikasleen ehunekoaren bilakaera ikus daiteke.

3.1.2.c. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11-ED13. Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako errendimendu mailetan sexuen arabera ikasleen banaketaren bilakaera.




Ebaluazio diagnostikoaren edizio guztietan zehar, konpetentzia honetan, mutilek neskek baino ikasleen ehuneko altuagoa bildu zuten errendimenduko hasierako mailan. Aldiz, errendimenduko erdi-mailako errendimenduan eta maila aurreratuan, nesken ehuneko mutilena baino altuagoa da. Konpetentzia honetako errendimendu mailetak jokoera Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziakoaren antzekoa da.

b) Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian, errendimendu mailetan, ikasleak sexuaren arabera banatzea.

3.1.2.d. grafikoan, ED09-ED10-ED11-ED13 edizioetan, Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian, errendimenduko hiru mailetan bi sexuetako ikasleen ehunekoaren bilakaera ikus daiteke.

3.1.2.d. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11-ED13. *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*, errendimendu mailetan, ikasleen sexuaren arabera banaketa.




Ebaluazio diagnostikoaren edizio guztietan zehar, konpetentzia honetan, mutilek neskek baino ikasleen ehuneko altuagoa bildu zuten errendimenduko hasierako mailan. Aldiz, errendimenduko erdi-mailan eta maila aurreratuan, nesken ehunekoa mutilena baino altuagoa da. Konpetentzia honetako errendimendu mailetako jokaera *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziakoaren* antzekoa da.

c) *Matematikarako konpetentziako errendimendu mailetan, ikasleen banaketan izandako bilakaera sexuaren arabera*

3.1.2.e. grafikoa, ED09-ED10-ED11-ED13 edizioetan, *Matematikarako konpetentzian*, errendimenduko hiru mailetan bi sexuak ikasleen ehunekoaren bilakaera ikus daiteke.

3.2.1.e. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11-ED13. *Matematikarako konpetentzian* ikasleak errendimendu mailetan sexuaren arabera banatzea.




Ebaluazio diagnostikoaren edizio guztietan zehar, konpetentzia honetan, mutilek neskek baino ikasleen ehuneko altuagoa bildu zuten errendimenduko hasierako mailan. Aldiz, erdi-mailako errendimenduan, nesken ehunekoa mutilena baino altuagoa da. ED10, ED11 eta ED13ko edizioetan, hasierako errendimendu mailan, nesken ehunekoa mutilena baino altuagoa da, baina ED09an, hasierako mailan kokatu ziren nesken ehunekoa mutilena baino baxuagoa izan zen.

d) Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentziako errendimendu mailetan, sexuaren arabera, ikasleen banaketan izan den bilakaera.

3.1.2.f. grafikoan, konpetentzia honen ebaluazioa egin den bi edizioetan (ED09 eta ED13), Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzian errendimenduko hiru errendimendu mailetan bi sexuetako ikasleen ehunekoaren bilakaera ikus daiteke.

3.2.1.f. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED13. Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzian ikasleak sexuaren arabera errendimendu mailetan banatzea.




Grafikoan ikus daiteke Ebaluazio diagnostikoko bi edizioetan (ED09 eta ED13), konpetentzia honetan, mutilen artean ikasle ehuneko altuagoa dagoela hasierako mailan nesken artean baino, eta aldiz, errendimendu maila aurreratuan, bi sexuetan ehunekoa antzekoa da. Erdi-mailako errendimenduan, neskek mutilek baino ehuneko altuagoa biltzen dute bai ED09an, bai ED13an.

e) Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziako errendimendu mailetan ikasleen sexuen arabera banaketaren bilakaera.

3.1.2.g. grafikoan, konpetentzia honen ebaluazioa egin den bi edizioetan (ED10 eta ED13), Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian, hiru errendimendu mailetan bi sexuetako ikasleen ehunekoaren bilakaera ikus daiteke.

3.2.1.g. grafikoa: DBHko 2. maila. ED10-ED13. Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia ikasleak errendimendu mailetan sexuaren arabera banatzea.



Grafikoan ikus daiteke Ebaluazio diagnostikoko bi edizioetan (ED10 eta ED13), konpetentzia honetan, mutilen artean, ikasleen ehuneko altuagoa dagoela hasierako mailan nesken artean baino, eta aldiz, erdi-mailako errendimenduan eta errendimendu maila aurreratuan, bi sexuetan ehunekoa antzekoa da.

3.2. DAGOKION IKASMAILAN EGOTEA

Adin-egokitasun egoeran dauden ikasleek (1999. urtean jaiotakoak) konpetentzia guztietan errendimendu nabarmen altuagoa lortu dute adinarekiko urtebeteko edo bi urteko atzerapenen bat duten ikasleekin alderatuta. Era berean, urtebeteko atzerapena duten ikasleek bi urteko atzerapena duten ikasleek baino emaitza nabarmen altuagoak lortu dituzte.

3.2.1. EMAITZA OROKORREN BILAKAERA JAIOTZA URTEAREN ARABERA


Ebaluazio honetan parte hartu duten DBHko 2. mailako ikasleen % 19 inguru 1997 eta 1998 urteetan jaio da, eta, beraz, ikasturte hau egiteko adin egokiarekiko (1999an jaiotakoak) urte bateko edo biko atzerapena du. Atzerapena ikasturte bat edo bi errepikatu izanaren ondorioa izan daiteke, edo ikaslea urte bat edo bi beranduago eskolatu delako. Ikasle multzo horrek adin egokiko ikasleek baino emaitza nabarmen baxuagoak lortu ditu konpetentzia guztietan.

Hurrengo taulan, ikasleen adin-egokitasun egoeraren edo egokitasun-egoera ezaren arabera konpetentzia bakoitzean lortutako batez besteko puntuazioak ageri dira.

ED13-EMAITZAK KONPETENTZIEN ETA ADIN-EGOKITASUN EGOERAREN ARABERA					
Jaiotza-urtea	Matematikarako konpetentzia	Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia	Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia	Zientzia-, teknologia-, eta kulturarako konpetentzia	Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia
1999. urtea (egokitasuna)	260	259	264	245	252
1998. urtea	216	226	221	209	223
1997. urtea	201	219	210	203	218

3.2.1. grafikoak jaiotza-urtearen arabera ikasleek DI3an ebaluatutako konpetentzia guztietan lortutako errendimendua erakusten du.

3.2.1.a. grafikoa: ED13-DBHko 2. maila. Konpetentzietako emaitzak jaiotza-urtearen arabera.



Emaitzen arteko aldeak adierazgarriak dira konpetentzia guztietan; hau da, adin-egokitasun egoeran dauden ikasleek, 1999an jaiotakoek, 1998an jaiotakoek baino (urtebeteko atzerapena dute) emaitza nabarmen altuagoak dituzte; azken horiek, era berean, bi urteko atzerapena dutenek baino emaitza altuagoak lortu dituzte.


Adin-egokitasun egoeran dauden ikasleen emaitzak Euskadiko batez bestekoa baino altuagoak dira konpetentzia bakoitzean. *Euskarazko hizkuntza-komunikazioko konpetentziako* batez bestekoa 256 puntukoa izan da, *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko konpetentziako* 253 puntukoa, *Matematikarako konpetentziako* 251 puntukoa, *Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentziako* 238koa, eta *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziako* 246 puntukoa.

Ondorio hori bat dator 2009, 2010 eta 2011n egindako Ebaluazio diagnostikoekin. Era berean, beste ebaluazio batzuek ere (PISA 2003, PISA 2006, 2004ko Lehen Hezkuntzako Ebaluazioa eta TIMSS 2007) ondorio berbera bildu zuten. Gertaera hori ikertu ere egin zuten: “Ikaslearen irakaskuntza-ikasketa prozesuan ikasmaila errepikatzeak duen eragina”²⁸.

Hurrengo grafikoa, emaitzen bilakaera ageri da konpetentzien eta ikasleen jaiotza-urtearen arabera.

²⁸ www.isei-ivei.net Argitalpenen atala: PISA 2003. PISA 2006. Lehen Hezkuntzaren Ebaluazioa 2004. TIMSS 2007. Ikaslearen irakaskuntza-ikasketa prozesuan ikasmaila errepikatzeak duen eragina.

3.2.2.b. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11-ED13.
Gaztelaniazko eta euskarazko hizkuntza-komunikaziorako
konpetentzian eta Matematikarako konpetentzian emaitzen
bilakaera jaiotza-urtearen arabera.




* Grafikoaren eskala 200ean hasten da, puntuazioen arteko aldeak hobeto nabari daitezzen.

Lau edizioetan egindako Ebaluazio diagnostikoko emaitzak alderatzen baldin badira, honako hau ondorioztatuko dugu:

- Edizio guztietan, adin-egokitasun egoeran dauden ikasleek urtebeteko edo bi urteko atzerapena duten ikasleek baino puntuazio nabarmen hobeak lortu dituzte.
- Lau edizioetan, urtebeteko atzerapena daramaten ikasleek bi urte atzerapena daramatenek baino puntuazio hobeak lortu dituzte.
- *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*, EDI I rekin alderatuta, 3 egoeretan (adin-egokitasun egoeran dauden ikasleak eta eskolatzean urtebeteko edo gehiagoko atzerapena dutenak), estatistikoki emaitza berberak lortu dituzte. Puntuazio guztiak 2009koak baino altuagoak dira.
- *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*, EDI I ko emaitzekin alderatuta, adin-egokitasun egoeran dauden ikasleek puntu adierazgarri bat egin dute behera eta adin-egokitasun egoeran ez dauden ikasleak mantendu egin dira. ED09 rekin alderatuta, ikasle guztiek hobetu dituzte emaitzak.
- *Matematikarako konpetentzian*, adin-egokitasun egoeran dauden eta ez dauden ikasleek (urtebete edo gehiagoko atzerapena) ez dute alde adierazgarririk lortu EDI I rekin alderatuta. Aldiz, ED13ko emaitzak ED09ko emaitzekin alderatzen baldin badira, joera desberdina da: adin-egokitasun egoeran dauden ikasleen artean mantendu egiten da, 1 urteko atzerapena duten ikasleen artean igo egin da eta 2 urteko eskola-atzerapena duten ikasleen artean jaitsi egin da.

Hurrengo grafikoan, Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentziaren (ED09-ED13) eta Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziaren (ED10-ED13) bilakaera datuak ageri dira.

3.2.2.c. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED13. Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzia eta Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia emaitzen bilakaera jaiotza-urtearen arabera.



* Grafikoen eskala 200ean hasten da, puntuazioen arteko aldeak hobeto nabari daitezzen.

Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian, emaitzek, ED09koekin alderatuta, jaitsiera nabarmena izan dute hiru egoeretan (adin-egokitasun egoeran dauden ikasleak, eskolatzean urtebeteko edo gehiagoko atzerapena dutenak). Datu hori bat dator Euskadiko emaitza orokorrekin; izan ere, nabarmen egin dute behera.

ED13an, ED10ekin alderatuta, Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian, adin-egokitasun egoeran dauden ikasleen emaitzetan 6 puntuko jaitsiera adierazgarria nabari da. Hala eta guztiz ere, urtebete edo bi urteko atzerapenarekin eskolatutako ikasleek ED10ean lortutako emaitzak hobetu dituzte.

4. HOBEKUNTZA-PROZESUEN AZTERKETA DBHKO 2. MAILAN, 2009TIK 2013RA BITARTE



Ebaluazio diagnostikoa funtsean hezkuntza-sistemaren eta ikastetxeetako emaitzen etengabeko hobekuntzara dago lotuta oinarrizko konpetentzia bakoitzean. Ebaluazio honen luzetarako izaera, eta beraz, ikastetxe bakoitzeko eta sistemaren emaitzak edizio desberdinen artean berme teknikoekin alderatzeko aukeraren bidez, jakin dezakegu zer ikastetxeen eta ikasleen ehunekok hobetu, okertu edo mantendu dituen emaitzak 2009ko lehen ediziotik 2013an egindako azken aplikaziora arte. Bost ikasturteko aldia da, eta urte horietan, diru publikoekin lagundutako ikastetxe guztiek hobekuntza-planak jarri dituzte martxan, orain arte ebaluazio honetan egindako edizio desberdinetan, eta askotan, konpetentzia bakoitzean lortutako emaitzekin daude lotuta.

2009ko Ebaluazio diagnostikoaren lehen edizioaren garapenarekin batera, Hezkuntza Sailak emaitzak hobetzeko Hobekuntza-plana jarri zuen martxan. Beste hainbat helbururen artean, izaera kuantitatiboko bat planteatzen zen. Ebaluatutako oinarrizko konpetentzien errendimendu mailen 5 puntuko hobekuntzarekin zerikusia du, eta konpetentzia bakoitzeko hasierako mailan kokatutako ikasleen ehunekoa bost puntu jaistean eta maila aurreratuan kokatutako ikasleetan ehuneko hori igotzean zehazten da.

Jarraian, hobekuntza-prozesu honen azterketa eta balorazioa egiten da, erreferentzia gisa bi datu hartuta:

1. **Batez besteko emaitza orokorrak.** Ikuspegi honetatik, DBHko ikastetxe bakoitzean, **batez besteko emaitza orokorretan dauden aldeen adierazgarritasuna** aztertzen da. Analisi horren bidez hauxe egiaztatu nahi izan dugu: 2009-2013 aldian, oinarrizko bost konpetentzietako bakoitzean, zenbat ikastetxek puntuazioa estatistikoki nabarmen igo edo jaitsi duten, eta zenbat ikastetxek mantendu diren aldaketarik gabe.
2. **Errendimendu mailak** Errendimendu mailen bilakaeraren azterketa bi alorretan garatzen da. Beren artean koherenteak diren arren, bilakaera honen ondorio osagarriak eskaintzen dizkigute:
 - a. **Ikastetxe bakoitzean, hasierako mailan eta maila aurreratuan, ikasleen ehunekoetan izandako bilakaeratik abiatuta,** lehen adierazitako hobekuntzaren % 5eko helburua erreferentzia gisa hartuta. Galdera honi erantzun nahi zaio: *DBHko zenbat ikastetxek lortu dute hasierako mailan ikasleen ehunekoa murriztea eta zenbatek lortu dute maila aurreratuan ehunekoa handitzea?*
 - b. **EAE mailan hasierako mailan eta maila aurreratuan kokatutako ikasleen ehuneko orokorren artean alderaketa** eginda. Kasu honetan, erreferentziak ez dira ikastetxeak izan, alderatzen diren bi edizio bakoitzean ebaluatutako ikasleak baizik. Azterketa honetan, bilakaera baloratzeko % 5eko helburua ere erabiltzen dugu. Galdera honi erantzun nahi zaio: *euskal hezkuntza-sisteman, oro har, zer bilakaera gertatu da 2009 eta 2013 artean DBHko 2. mailan hasierako mailan eta maila aurreratuan ikasleen ehunekoa alderatzen baldin badugu, eta zer neurritan lortu da % 5eko helburua erdiestea?*



4.1. AZTERKETA EMAITZA OROKORRETATIK ABIATUTA. Ikastetxeen puntuazioaren murrizketa eta igoera adierazgarria 2009 eta 2013 artean.


2013ko Ebaluazio diagnostikoan, DBHko 2. mailako 324 ikastetxek hartu zuten parte. Hala eta guztiz ere, ikastetxe guztietan, edizio honetako emaitzak ezin dira 2009ekoekin alderatu hainbat arrazoi direla eta: aldi honetan, zenbait ikastetxek beste batzuekin bat egin dute, eta ondorioz, desagertu egin dira; eta, aldiz, ikastetxe berriek ez dituzte 2009ko emaitzak. Ikastetxearen tamaina da beste kontu bat; izan ere, ikasle kopuru baxua duten ikastetxeen kasuan, ezin dira behar bezalako bermearekin eta fidagarritasun teknikoarekin bi emaitzak alderatu. Eta azkenik, edizio batean edo bitan, informazio-galera kasuak daude arrazoi teknikoak edo aplikazioan izan diren arazoak direla medio.

Alderaketak egin ezin diren ikastetxe kopurua desberdina da aztertutako konpetentzia bakoitzean: 16 Euskarazko hizkuntza-komunikazioan, 30 Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioan, 5 Matematikarako konpetentzian, 7 Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzian (aurrerantzean, Konpetentzia zientifikoa) eta 6 Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian.

Hurrengo taulak erakusten du, kopuru absolutuetan eta ehunekoetan, 2009 eta 2013 artean, konpetentzia bakoitzean, zenbat ikastetxek igo, mantendu edo murriztu duten puntuazio orokorra modu adierazgarrian:

ED2009-ED2013 DBHko 2. maila	Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia		Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia		Matematikarako konpetentzia		Konpetentzia zientifikoa		Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia	
	Ikastetxe kopurua	Ikastetxe %	Ikastetxe kopurua	Ikastetxe %	Ikastetxe kopurua	Ikastetxe %	Ikastetxe kopurua	Ikastetxe %	Ikastetxe kopurua	Ikastetxe %
Puntuazioak gora egin du	57	17,6	31	9,6	47	14,5	13	4,0	30	9,3
Puntuazioa ez da aldatu	228	70,4	245	75,6	244	75,3	202	62,3	228	70,4
Puntuazioa murriztu dute	23	7,1	18	5,6	28	8,6	102	31,5	60	18,5
Ezin da alderatu	16	4,9	30	9,3	5	1,5	7	2,2	6	1,9
Guztira	324	100	324	100	324	100	324	100	324	100

4.1.a. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED13. Ikastetxeen 2009-2013ko puntuazioen arteko aldaketaren ehunekoak.



1. Hau da ondorioz argiena: ikastetxe gehienek –hamarretik zazpi lau konpetentzietan eta hamarretik sei *Konpetentzia zientifikoa*- ez dute puntuazioa nabarmen aldatu.
2. Gainera, oro har, gehiago dira emaitzak nabarmen hobetzea lortu duten ikastetxeak emaitzek nabarmen behera egin duten ikastetxeak baino.
Hala eta guztiz ere, azterketa honetan, bi konpetentzia taldeen artean alde argia nabari da: batetik, konpetentzia finkoetan, edizio guztietan ebaluatzen direnetan, puntuazioa hobetu duten ikastetxeak gehiago dira txikitu dutenak baino (% 17,6 vs % 7,1 *Euskarazko hizkuntza-komunikazioan*; % 14,5 vs % 8,6 *Matematikarako konpetentzian* eta % 9,6 vs % 5,6 *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioan*). Bestalde, bi konpetentzia aldakorretan, bi edizioetan soilik ebaluatutakoak, kontrakoa gertatzen da eta oso deigarria da *Konpetentzia zientifikoko* datua, izan ere, % 4 egin dute onera eta % 31,5 egin dute txarrera. Datua bat dator batez besteko puntuazio orokorraren txartzearekin, hau da, 2009ko 250etik 2013ko 238ra pasatzearekin.
3. Datu horien koherentziaren inguruan, eta oro har, ikastetxeetako hobekuntza-prozesuetan lagun dezakeen azterketa osagarri bat izango litzateke bost konpetentzietan ikastetxe bateko emaitzen artean loturarik badagoen aztertzea, eta bereziki, hiru konpetentzia finkoetan.
Azterketa hau egiteko, 2009an eta 2013an bost konpetentzietan puntuazioa duten ikastetxeak soilik hartuko ditugu kontuan. DBHko 2. mailako 324 ikastetxetatik, 292tan gertatzen da egoera hori; aldiz, 32 ikastetxetan, edizioetakoren batean, ez dute konpetentzia baten edo askoren daturik.
Hurrengo taulan eta grafikoan, puntuazioen igoera, jaitsiera eta mantentzearen arteko lotura erakusten da ebaluatutako bost konpetentzietan.

DBHko 2. maila Aldeen alderaketa ED2009-ED2013		Euskarazko hizkuntza- komunikaziorako konpetentzia			Gaztelaniazko hizkuntza- komunikaziorako konpetentzia			Matematikarako konpetentzia			Konpetentzia zientifikoa			Gizarterako eta herritartasunerak o konpetentzia		
		Behera egin du	Mantendu egin da	Igo egin da	Behera egin du	Mantendu egin da	Igo egin da	Behera egin du	Mantendu egin da	Igo egin da	Behera egin du	Mantendu egin da	Igo egin da	Behera egin du	Mantendu egin da	Igo egin da
<i>Euskarazko hizkuntza- komunikaziorako konpetentzia</i>	Behera egin du	20	0	0	6	14	0	9	11	0	16	4	0	9	10	1
	Mantendu egin da	0	218	0	12	194	12	17	179	22	69	141	8	40	160	18
	Igo egin da	0	0	54	0	36	18	2	30	22	8	42	4	5	39	10
<i>Gaztelaniazko hizkuntza- komunikaziorako konpetentzia</i>	Behera egin du	6	12	0	18	0	0	8	9	1	14	4	0	11	7	0
	Mantendu egin da	14	194	36	0	244	0	19	198	27	77	160	7	40	183	21
	Igo egin da	0	12	18	0	0	30	1	13	16	2	23	5	3	19	8
<i>Matematikarako konpetentzia</i>	Behera egin du	9	17	2	8	19	1	28	0	0	22	6	0	12	16	0
	Mantendu egin da	11	179	30	9	198	13	0	220	0	68	147	5	38	162	20
	Igo egin da	0	22	22	1	27	16	0	0	44	3	34	7	4	31	9
<i>Konpetentzia zientifikoa</i>	Behera egin du	16	69	8	14	77	2	22	68	3	93	0	0	31	61	1
	Mantendu egin da	4	141	42	4	160	23	6	147	34	0	187	0	23	140	24
	Igo egin da	0	8	4	0	7	5	0	5	7	0	0	12	0	8	4
<i>Gizarterako eta herritartasunerak o konpetentzia</i>	Behera egin du	9	40	5	11	40	3	12	38	4	31	23	0	54	0	0
	Mantendu egin da	10	160	39	7	183	19	16	162	31	61	140	8	0	209	0
	Igo egin da	1	18	10	0	21	8	0	20	9	1	24	4	0	0	29


Azterketa hau gehiegi ez luzatzeko, konpetentzia guztietan joera antzekoa baita, adibide bat ikusiko dugu azterketaren ardatz gisa *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako* emaitzen azterketa hartuta:

- a. Hasteko, 244 ikastetxek puntuazioa mantendu dute konpetentzia honetan. Horien artetik, gehienek *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* (194), *Matematikarako konpetentzian* (198) eta *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian* (183) ere mantendu dute; *Konpetentzia zientifikoaren* kasuan, kopurua nabarmen baxuagoa (160) da. Hau da, 2013an konpetentzia honetan puntuazioa aldaketa nabarmenik gabe mantendu duten ikastetxe gehienek gainerako konpetentzietan ere ez dute puntuazioa nabarmen aldatu. Bestalde, *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioan* puntuazioa mantendu duten 244 ikastetxe horien artetik, 36k hobetu egin dute *Euskarazko hizkuntza-komunikazioan*, eta 14k okerrera egin dute nabarmen. *Matematikarako konpetentziaren* kasuan, 27k egin dute hobera eta 19k okerrera. *Konpetentzia zientifikoaren* eta *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziaren* kasuan, behera egin dutenak (77 eta 40, hurrenez hurren) gehiago dira gora egin dutenak (7 eta 21, hurrenez hurren) baino.
 - b. Bigarren lekuan, 2009 eta 2013 artean, 18 ikastetxek egin dute nabarmen okerrera *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioan*; horien artetik, 6k puntuazioan behera egin dute *Euskarazko hizkuntza-komunikazioan*, 8k *Matematikarako konpetentzian*, 14k *Konpetentzia zientifikoan* eta 11k *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian*.
 - c. Azkenik, 30 ikastetxek nabarmen hobetu dute puntuazioa *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioan*; horien artetik, 18k gora egin dute *Euskarazko hizkuntza-komunikazioan*, 16k *Matematikarako konpetentzian*, 5ek *Konpetentzia zientifikoan* eta 8k *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian*.
4. Azken finean, hurrengo taulan eta grafikoan ikus daitekeen moduan, lehen taldean, ikastetxeen % 30 inguruk puntuazioa mantendu dute ebaluatutako bost konpetentzietan eta, gainera, % 27k baino zertxobait gehiagok gora egin du konpetentzia batean behintzat. Konpetentzia bakar batean ere okerrera egin ez duen edo konpetentziaren batean edo gehiagotan nabarmen gora egin duen ikastetxe talde hau hamar ikastetxetik 6ri dagokio. Horiez gain, beste 19 ikastetxek (% 6,5ek) gutxienez konpetentzia batean egin dute gora, baina gutxienez beste konpetentzia batean egin dute behera.

Oro har positiboak diren datu horien aurrean, bada beste talde bat ere, konpetentzia bakar batean ere gora egin ez duen eta batean edo gehiagotan behera egin duten ikastetxeen heren batez baino gehiagoz osatua. 2009 eta 2013 artean bost konpetentzietan emaitzek nabarmen gora egin duten DBHko 2. mailako ikastetxe bat bakarra dago eta hiru ikastetxek nabarmen egin dute behera bost konpetentzietan.

DBHko 2. maila. Irabaziak eta galerak			
Konpetentzien banaketa	Kopurua	%	% taldekatuta
5etan gora egin du	1	0,3	0,3
4etan gora egin du eta 1ean mantendu egin da	5	1,7	27,1
3etan gora egin du eta 2tan mantendu egin da	11	3,8	
2tan gora egin du eta 3tan mantendu egin da	24	8,2	
1ean gora egin du eta 4etan mantendu egin da	39	13,4	
5etan mantendu egin da	87	29,8	29,8
Batean behintzat gora egin du eta batean behintzat behera egin du	19	6,5	6,5
Batean behera egin du eta beste lautan mantendu egin da	58	19,9	36,4
Bitan jaitsi egin da eta hirutan mantendu egin da	26	8,9	
Hirutan jaitsi egin da eta bitan mantendu egin da	13	4,5	
Lautan jaitsi egin da eta batean mantendu egin da	6	2,1	
Bostetan jaitsi egin da	3	1,0	100
Guztira	292	100	

4.1.b. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED13. Ikastetxeko puntuazioen arteko lotura oinarritzko konpetentzietan.



5. Edizio guztietan ebaluatutako hiru konpetentziak bakarrik kontuan hartzen baldin badira, egoera oso desberdina da eta nabarmen egiten du hobera. Kasu honetan, hamar ikastetxetatik zortzi mantendu egiten da ebaluatutako hiru konpetentzietan edo batzuetan mantendu eta gainerako konpetentzietan igo egiten da. Hori dela eta:

- 12 ikastetxetan (% 4,1) emaitzek nabarmen egin dute gora hiru konpetentzietan 2009 eta 2013 artean;
- lau ikastetxetatik ia batek (% 23,6) gora egin du konpetentzia batean edo bitan, eta mantendu egin da gainerakoetan;

- c. ikastetxeen erdiak baino gehiagok (% 56,2) emaitzak mantendu egin ditu ebaluatutako hiru konpetentzietan;
- d. % 15,1ek ez du konpetentzia bakar batean ere gora eta behera egiten.
- e. Hiru ikastetxek (% 1ek) gora egin dute konpetentzia batean edo bitan eta beste batean jaitsi egin dute.

DBHko 2. maila. Irabaziak eta galerak			
Konpetentzien banaketa	Kopurua	%	% taldekatuta
Gora egin du hiruretan	12	4,1	4,1
Gora egin du bitan eta bestean mantendu egin da	19	6,5	23,6
Gora egin du batean eta beste bietan mantendu egin da	50	17,1	
Mantendu egin da guztietan	164	56,2	56,2
Igo egin da batean edo bitan, eta jaitsi egin da batean	3	1,0	1,0
Gora egin du batean eta beste bietan mantendu egin da	29	9,9	15,1
Gora egin du bitan eta bestean mantendu egin da	11	3,8	
Behera egin du hiruretan	4	1,4	
Guztira	292	100	100



4.2. AZTERKETA ERRENDIMENTU MAILETATIK ABIATUTA

Dagoeneko adierazi dugun moduan, 2009ko Ebaluazio diagnostikoko lehen edizioko emaitzen aurkezpenarekin batera, hobekuntza-helburua proposatu zen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe bakoitzerako eta euskal hezkuntza-sistema osorako. Bi erreferentzia-puntu osagarrietan zehazten zen:

- 5 puntuko beherakada hasierako mailako ikasleen ehunekoan.
- 5 puntuko igoera maila aurreratuko ikasleen ehunekoan.

Jarraian, datu hori bi ikuspegitatik aztertzen da: etapa honetako ikastetxeetan errendimendu mailen arabera ehunekoetan izandako bilakaerarekin lotuta eta Euskadiko ehuneko orokorrekin lotuta.

4.2.1. Hasierako mailan eta maila aurreratuan, ikastetxeen arabera, bilakaera ikasleen ehunekoetan

Azterketa honek lehen egindako galderari erantzun nahi dio: *DBHko zenbat ikastetxek lortu dute hasierako mailan ikasleen ehunekoa murriztea eta zenbatek lortu dute maila aurreratuan ehunekoa handitzea?* Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan hobekuntza-prozesuen irudia lortzeko helburuarekin.

Hurrengo taulan ikus daitekeen moduan, ebaluazio honetako lehen ediziotik bost ikasturte igaro ostean, ikastetxeetan bi helburuen betetze maila desberdina da:

BBHko 2. maila ED2009-ED2013		Euskarazko hizkuntza- komunikaziorako konpetentzia		Gaztelaniazko hizkuntza- komunikaziorako konpetentzia		Matematikarako konpetentzia		Konpetentzia zientifikoa		Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Hasierako mailako ikasleak	5 puntu baino gehiago egin du behera	122	38,2	121	37,9	91	28,5	78	24,5	121	38,1
	3 puntu baino gutxiago egin du behera	25	7,8	42	13,2	40	12,5	26	8,2	33	10,4
	3 eta 5 puntu artean egin du behera	20	6,3	17	5,3	28	8,8	17	5,3	25	7,9
	Behera egin du guztira	167	52,4	180	56,4	159	49,8	121	37,9	179	56,3
Maila aurreratuko ikasleak	3 eta 5 puntu artean egin du gora	114	35,7	110	34,5	126	39,5	29	9,1	64	20,1
	3 puntu baino gutxiago egin du gora	34	10,7	26	8,2	28	8,8	21	6,6	20	6,3
	5 puntu baino gehiago egin du gora	23	7,2	12	3,8	25	7,8	10	3,1	19	6,0
	Gora egin du guztira	171	53,6	148	46,4	179	56,1	60	18,8	103	32,4

- *Hasierako mailan:*
 - Ikastetxeen % 40 inguruk *Euskarazko hizkuntza-komunikazioan* (% 38,2), *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian* (% 38,1) eta *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioan* (% 37,9) planteatutako helburuak lortu ditu, eta hamarretik hiruk baino zertxobait gutxiagok *Matematikarako konpetentziako* (% 8,5) eta ikastetxeetatik laurden batek baino apur bat gutxiagok *Konpetentzia zientifikoko* helburuak % 24,5) bete dituzte.
 - Ikastetxeen erdiak inguru *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioan* (% 56,4), *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian* (% 56,3), *Euskarazko hizkuntza-komunikazioan* (% 52,4) eta *Matematikarako konpetentzian* (% 49,8) hasierako mailan

kokatutako ikasleen ehunekoa murriztea (neurri handiagoan edo txikiagoan) lortu du.

- Hala eta guztiz ere, ikastetxeen erdiak inguruk bilakaera negatiboa du; izan ere, konpetentzia desberdinetan hasierako mailan kokatutako ikasleen ehunekoak gora egin du. Halaber, goraipatzekoa da ikastetxe kopuru handi batek hasierako mailan kokatzen diren ikasleen ehunekoa bost puntu baino gehiago handitu duela (110 ikastetxe *Euskarazko hizkuntza-komunikazioan*, 68 *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioan*, 98 *Matematikarako konpetentzian*, 139 *Konpetentzia zientifikoan* eta 69 *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian*. Datu guztiak 117 eta 118 orrietan ikus daitezke.
- *Maila aurreratuan:*
 - Ikastetxeen % 35-% 40 inguruk *Matematikarako konpetentzian* (% 39,5), *Euskarazko hizkuntza-komunikazioan* (% 35,7) eta *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioan* (% 34,5) planteatutako helburuak lortu dituzte. *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian*, ehunekoa erdia da (% 20,1) eta % 9,1k soilik lortu du *Konpetentzia zientifikoan*.
 - Ikastetxeen erdiak inguruk, neurri handiagoan edo txikiagoan, ikasleen ehunekoa gora egin du *Matematikarako konpetentzian* (% 56,1), *Euskarazko hizkuntza-komunikazioan* (% 53,6) eta *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioan* (% 46,4); hirutik batek soilik egin du gora *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian* (% 32,4) eta bostetik batek soilik *Konpetentzia zientifikoan* (% 18,8).
 - Hasierako mailan bezala, ikastetxeen erdiak inguruk ere maila aurreratuko ikasleen ehunekoa jaisten du, eta, ondorioz, bilakaera ez da positiboa izan. Aipagarria da ikastetxe kopuru handi batek bost puntu baino gehiago murriztu duela maila honetan kokatutako ikasleen ehunekoa: 78 *Euskarazko hizkuntza-komunikazioan*, 110 *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioan*, 86 *Matematikarako konpetentzian*, 211 *Konpetentzia zientifikoan* eta 157 *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian*. Datu guztiak 117 eta 118 orrietan ikus daitezke.

Ikastetxeen % 35-% 40 inguruk helburu horiek lortu izana euskal hezkuntza-sistamarako joera ona izan daiteke. Horrek adierazten du askotan ahalegin handia egin dela bai ikastetxeen, bai hezkuntza-sistemaren eta, orobat, Administrazioaren aldetik. Baina era berean, ez dugu ahaztu behar ikastetxe askok ez dutela bi helburuetako bakar bat ere lortu eta ikastetxeen ia erdiaren joera negatiboa dela eta hobekuntza-planen inguruan lan gehiago egiten jarraitu behar dutela.

4.2.2. Ikasleen ehunekoen arteko aldeak errendimendu mailen eta konpetentzien arabera 2009 eta 2013 artean Euskadin

Atal honetan, hasieran egindako galderari erantzun nahi zaio hobekuntza-planen planteatutako helburuaren betetze maila orokorra egiaztatzeko helburuarekin: *euskal hezkuntza-sisteman, oro har, zer bilakaera gertatu da 2009 eta 2013 artean DBHko 2. mailan hasierako mailan eta maila aurreratuan dauden ikasleen ehunekoa alderatzen baldin badugu, eta zer neurritan lortu da % 5eko helburua erdiestea?*


Aurreko atalean adierazi den moduan, ikastetxeen erdiak inguruk ez du lortu hasierako mailan ikasleen ehunekoa murriztea eta maila aurreratuan kokatutako ikasle kopurua handitzea. Jarraian ikusiko dugun bezala, egoera hori argi ikusten da gutxienez bi edizioetan ebaluatutako konpetentzia bakar batean ere ez delako % 5eko helburua lortu.

Jarraian, bost grafiko ageri dira, eta horietan, ehunekoak ikus daitezke mailen eta aldean arabera. Hurrengo grafikoak ondo interpretatzeko eta % 5eko helburuaren arabera baloratzeko, beharrezkoa da kontuan izatea 2009 eta 2013ko edizioei dagozkien ehunekoen arteko aldeak negatiboa izan beharko lukeela hasierako mailaren kasuan. Horrek esan nahiko luke ikasle gutxiago dagoela mailan. Eta positiboa izan beharko luke maila aurreratuari dagokionez. Azken horrek esan nahiko luke konpetentzia maila hori egiaztatzea lortu duten ikasleen kopuruak gora egin duela.


Konpetentzia bakoitzeko egoera, errendimendu mailekin lotuta, oso desberdina da batzuen eta besteen artean. Alor batzuk nabarmendu beharko lirateke:

- Emaitzarik onenak dituen konpetentzia *Euskarazko hizkuntza-komunikazioa* (4.2.2.a. grafiko) da; izan ere, maila aurreratuko ehunekoa ia % 3 igotzea lortzen du, eta neurri txikiagoan bada ere, hasierako maila murrizten du. Hala eta guztiz ere, bistakoa da hasierako mailan ikasleen ehunekoaren % 1 soilik murrizteak ez duela lortzen maila honetan dagoen ikasleen ehuneko altua behar bezainbeste murriztea.
- *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren* (4.2.2.b. grafiko) bilakaera oso eskasa da, maila aurreratuko ehuneko ia mugitu ere ez da egiten eta hasierako maila % 1 soilik murrizten du. Konpetentzia honetan, kontuan izan behar da hasierako mailan dagoen ikasleen ehunekoaren kopuru baxua dela eta, murriztea zaila izango dela.
- *Matematikarako konpetentziak* (4.2.2.c. grafiko) aurrekoaren kontrako bilakaera erakusten du: maila aurreratuko ikasleek % 1,3 egin dute gora eta hasierako mailako datuak egonkor jarraitzen du.
- *Konpetentzia zientifikoan* (4.2.2.d. grafiko) ikusten dugu, beste ataletan adierazi dugun moduan, bilakaerarik negatiboa. Maila aurreratuan ikasleen % 10 galdu da eta hasierako mailan % 4 egin du gora.
- *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian* (4.2.2.e. grafiko) hobekuntza nabarmena gertatzen da hasierako mailan; izan ere, maila honetan ikasleen murrizketa handiena gertatzen den konpetentzia da, -2,4; baina era berean, maila aurreratuan nabarmen egiten du okerrera, ia 7 puntu.


4.2.2.a. grafiko: DBHko 2. maila. ED09-ED13. Errendimendu mailen bilakaera Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian.




4.2.2.b. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED13. Errendimendu mailen bilakaera *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian.*




4.2.2.c. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED13. Errendimendu mailen bilakaera *Matematikarako konpetentzian.*



4.2.2.d. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED13. Errendimendu mailen bilakaera *Zientzia-, teknologia-, eta osasun kulturarako konpetentzian.*



4.2.2.e. grafikoa: DBHko 2. maila. ED10-ED13. Errendimendu mailen bilakaera Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian.



DBHko 2. Maila. ED2009-ED2013. Oinarrizko konpetentzietako hasierako mailako ikasleen ehunekoa murrizten duten eta maila aurreratukoak igotzen duten ikastetxeen ehunekoa.							
Hasierako mailan dauden ikasleak ...				Maila aurreratuan dauden ikasleak ...			
Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	Kop.	%	%	Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	Kop.	%	%
5 puntu baino gehiago egin du behera	122	34,1	38,2	5 puntu baino gehiago egin du behera	78	21,8	24,5
3 eta 5 puntu artean egin du behera	20	5,6	6,3	3 eta 5 puntu artean egin du behera	15	4,2	4,7
3 puntu baino gutxiago egin du behera	25	7,0	7,8	3 puntu baino gutxiago egin du behera	34	9,5	10,7
Ez dira aldatzen	5	1,4	1,6	Ez dira aldatzen	21	5,9	6,6
3 puntu baino gutxiago egin du gora	23	6,4	7,2	3 puntu baino gutxiago egin du gora	34	9,5	10,7
3 eta 5 puntu artean egin du gora	14	3,9	4,4	3 eta 5 puntu artean egin du gora	23	6,4	7,2
5 puntu baino gehiago egin du gora	110	30,7	34,5	5 puntu baino gehiago egin du gora	114	31,8	35,7
Guztira	319	89,1	100	Guztira	319	89,1	100
Ezin dira erkatu	39	10,9		Ezin dira erkatu	39	10,9	
Guztira	358	100		Guztira	358	100	
Hasierako mailan dauden ikasleak ...				Maila aurreratuan dauden ikasleak ...			
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa	Kop.	%	%	Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa	Kop.	%	%
5 puntu baino gehiago egin du behera	121	33,8	37,9	5 puntu baino gehiago egin du behera	110	30,7	34,5
3 eta 5 puntu artean egin du behera	17	4,7	5,3	3 eta 5 puntu artean egin du behera	19	5,3	6,0
3 puntu baino gutxiago egin du behera	42	11,7	13,2	3 puntu baino gutxiago egin du behera	38	10,6	11,9
Ez dira aldatzen	6	1,7	1,9	Ez dira aldatzen	4	1,1	1,3
3 puntu baino gutxiago egin du gora	33	9,2	10,3	3 puntu baino gutxiago egin du gora	26	7,3	8,2
3 eta 5 puntu artean egin du gora	32	8,9	10,0	3 eta 5 puntu artean egin du gora	12	3,4	3,8
5 puntu baino gehiago egin du gora	68	19,0	21,3	5 puntu baino gehiago egin du gora	110	30,7	34,5
Guztira	319	89,1	100	Guztira	319	89,1	100
Ezin dira erkatu	39	10,9		Ezin dira erkatu	39	10,9	
Guztira	358	100		Guztira	358	100	

BHko 2. Maila. ED2009-ED2013. Oinarrizko konpetentzietako hasierako mailako ikasleen ehunekoa murrizten duten eta maila aurreratukoa igotzen duten ikastetxeen ehunekoak.							
Hasierako mailan dauden ikasleak ...				Maila aurreratuan dauden ikasleak ...			
<i>Matematurako konpetentzia</i>	Kop.	%	%	<i>Matematurako konpetentzia</i>	Kop.	%	%
5 puntu baino gehiago egin du behera	91	25,4	28,5	5 puntu baino gehiago egin du behera	86	24,0	27,0
3 eta 5 puntu artean egin du behera	28	7,8	8,8	3 eta 5 puntu artean egin du behera	19	5,3	6,0
3 puntu baino gutxiago egin du behera	40	11,2	12,5	3 puntu baino gutxiago egin du behera	28	7,8	8,8
Ez dira aldatzen	4	1,1	1,3	Ez dira aldatzen	7	2,0	2,2
3 puntu baino gutxiago egin du gora	38	10,6	11,9	3 puntu baino gutxiago egin du gora	28	7,8	8,8
3 eta 5 puntu artean egin du gora	20	5,6	6,3	3 eta 5 puntu artean egin du gora	25	7,0	7,8
5 puntu baino gehiago egin du gora	98	27,4	30,7	5 puntu baino gehiago egin du gora	126	35,2	39,5
Guztira	319	89,1	100	Guztira	319	89,1	100
Ezin dira erkatu	39	10,9		Ezin dira erkatu	39	10,9	
Guztira	358	100		Guztira	358	100	
Hasierako mailan dauden ikasleak ...				Maila aurreratuan dauden ikasleak ...			
<i>Konpetentzia zientifikoa</i>	Kop.	%	%	<i>Konpetentzia zientifikoa</i>	Kop.	%	%
5 puntu baino gehiago egin du behera	78	21,8	24,5	5 puntu baino gehiago egin du behera	211	58,9	66,1
3 eta 5 puntu artean egin du behera	17	4,7	5,3	3 eta 5 puntu artean egin du behera	18	5,0	5,6
3 puntu baino gutxiago egin du behera	26	7,3	8,2	3 puntu baino gutxiago egin du behera	27	7,5	8,5
Ez dira aldatzen	2	0,6	0,6	Ez dira aldatzen	3	0,8	0,9
3 puntu baino gutxiago egin du gora	36	10,1	11,3	3 puntu baino gutxiago egin du gora	21	5,9	6,6
3 eta 5 puntu artean egin du gora	21	5,9	6,6	3 eta 5 puntu artean egin du gora	10	2,8	3,1
5 puntu baino gehiago egin du gora	139	38,8	43,6	5 puntu baino gehiago egin du gora	29	8,1	9,1
Guztira	319	89,1	100	Guztira	319	89,1	100
Ezin dira erkatu	39	10,9		Ezin dira erkatu	39	10,9	
Guztira	358	100		Guztira	358	100	
Hasierako mailan dauden ikasleak ...				Maila aurreratuan dauden ikasleak ...			
<i>Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia</i>	Kop.	%	%	<i>Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia</i>	Kop.	%	%
5 puntu baino gehiago egin du behera	121	33,8	38,1	5 puntu baino gehiago egin du behera	157	43,9	49,4
3 eta 5 puntu artean egin du behera	25	7,0	7,9	3 eta 5 puntu artean egin du behera	21	5,9	6,6
3 puntu baino gutxiago egin du behera	33	9,2	10,4	3 puntu baino gutxiago egin du behera	36	10,1	11,3
Ez dira aldatzen	10	2,8	3,1	Ez dira aldatzen	1	0,3	0,3
3 puntu baino gutxiago egin du gora	32	8,9	10,1	3 puntu baino gutxiago egin du gora	20	5,6	6,3
3 eta 5 puntu artean egin du gora	28	7,8	8,8	3 eta 5 puntu artean egin du gora	19	5,3	6,0
5 puntu baino gehiago egin du gora	69	19,3	21,7	5 puntu baino gehiago egin du gora	64	17,9	20,1
Guztira	318	88,8	100	Guztira	318	88,8	100
Ezin dira erkatu	39	10,9		Ezin dira erkatu	40	11,2	
Guztira	358	100		Guztira	358	100	

5. IKASTETXEEN AZTERKETA EMAITZEN ETA ERAGINKORTASUNAREN ARABERA



5.1. IKASTETXEEN ERAGINKORTASUNA: BALIO ERANTSI HANDIA ETA TXIKIA DUTEN IKASTETXEAK

Lehen aipatu dugun moduan, ebaluazio honetan ikasleak zein ikastetxeak lortutako emaitzaren eta haien maila sozioekonomiko eta kulturalaren arteko erlazio argia dago; hori dela eta, oro har, zenbat eta ISEK altuagoa izan, orduan eta emaitza hobeak lortzen direla ondoriozta dezakegu. Dena den, txosten honetan ikusi dugun moduan, ezaugarri horrek ez ditu geruzen arteko alde guztiak baliogabetzen; izan ere, azaltzeko gaitasuna handia izan arren, mugatua da.

Emaitzetan eragin argia duten beste faktore eta aldagai batzuk ere badaude. Horien artean, “balio erantsia” izeneko aipatu behar dugu ikastetxeak duen hezkuntza-ekintza dela eta. Balio horrek benetan lortutako emaitzen eta ezaugarri sozialen, ekonomikoen eta kulturalen arabera, talde edo ikastetxe jakin baterako aurrez ikusitako lorpenaren arteko aldea erakusten du. Balio horrek ikastetxeen zenbait gaitasun adierazten ditu, besteak beste, ikasleei beren ingurune sozioekonomikoa kontuan izanik espero baino garapen-aukera handiagoak eskaintzeko gaitasuna, edo ikastetxea ikasle guztiak garapen-aukera berdina edukitzeari begira antolatzeko gaitasuna. Erantzun nahi den galdera da ikastetxe batek bere ikasleen maila ekonomikoa eta kulturala kontuan izanik espero zitezkeenak baino emaitza hobeak lor ditzakeen.

Jarraian, barreiadura-grafiko bat ageri da. Bertan, ikastetxe bakoitzak duen lekua irudikatzen du puntu bakoitzak, EDI3an *Matematikarako konpetentzia*²⁹ lortutako puntuazioaren arabera – ardatz bertikala- eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasleen maila sozioekonomikoaren eta kulturalaren arabera -ardatz horizontala-. Kontuan izan ikastetxe berbereko ebaluatutako talde guztiak hizkuntza-eredu berberekoak ez diren arren, ikastetxe hori puntu bakar batek ordezkaturiko duela, ikastetxeko batez besteko ISEKen arabera.

Bestalde, grafikoaren atzealdea lau atal bertikaletan dago banatuta. Kolorea zertxobait desberdina da, eta bakoitza ISEK banatzen den lau taldeetako bati dagokio: baxua, ertain-baxua, ertain-altua eta altua. Dakigun moduan, ISEKeko talde bakoitzak ebaluazioan parte hartu duten ikastetxeen % 25 ordezkatzeko du.

Gainera, kolore gorriko lerro batek gurutzatzen du grafikoa; *Matematikarako konpetentziaren* erregresio-lerroa da. Esan genezake lerro horren gainetik dauden ikastetxeek ISEK mailaren arabera espero zitekeena baino puntuazio hobeak lortu dutela, baita alderantziz ere, hau da, lerro gorriaren azpitik daudenek ez dute esperotako puntuazioa lortu. Hala eta guztiz ere, ikastetxe bat ISEKen arabera, errendimenduari dagokionez espero daitekeen eremuaren baitan kokatzeko, puntuazioak erregresio-lerroko ± 20 puntu inguruko marjinan egon beharko du.


Honako hau litzateke grafikoaren informazioa interpretatzeko modu erraza: lerro bertikalaren eta horizontalaren ebakiduraren emaitzak diren lau koadranteetan arreta jartzea:

- Goiko ezkerreko koadrantean daude batez bestekoa baino ISEK indize baxuagoak izan arren, konpetentziaren batez bestekoa baino errendimendu altuagoa lortu duten ikastetxeak.

²⁹ *Matematikarako konpetentzia* erabiltzen da; izan ere, egindako analisien arabera, konpetentzia horretako emaitzek gainerako konpetentzietako emaitzekiko korrelazio mailarik altuena erakusten dute. Gainera, konpetentzia ez-linguistikoa denez, hizkuntza-eredua, familia-hizkuntza edo antzeko alderdiek hein txikiagoan eragiten diote.

- Goiko koadrantean, batez bestekoa baino ISEK maila altuagoa duten, eta era berean, batez bestekoa baino puntuazio altuagoa duten ikastetxeak biltzen dira.
- Beheko ezkerreko koadrantean, ikastetxeen ISEK mailak eta konpetentziako batez bestekoa baino puntuazio baxuagoak ageri dira.
- Beheko eskuineko koadrantean, batez bestekoa baino ISEK maila altuagoa izan arren, *Matematikarako konpetentzian* batez bestekoak baino errendimendu baxuagoa lortu dutenak ageri dira.

4.1.a. grafikoa: ED13-DBHko 2. maila Ikastetxeko ISEK eta Matematikarako konpetentziako emaitzen arteko lotura



Grafikoaren irakurketatik hainbat ondorio atera daitezke:

1. **ISEK mailaren eta emaitzen arteko lotura baieztatu egiten da.** Grafikoak argi erakusten du joera hori eta diagonalaren inklinazioan edo erregresio-zuzenean ikus daiteke: zenbat eta inklinazio handiagoa, orduan eta lotura handiagoa emaitzen eta ISEK-en artean.
2. **Ikastetxeek ikasleen maila sozioekonomiko eta kulturalaren ezaugarriak gainditzeko lor dezakete.** Grafikoan ikus daiteke zenbait ikastetxeek ISEK maila berbera izan arren oso emaitza desberdinak lortu dituztela. Horrek adierazten du ikastetxearen irakaslana eta antolamendua giltzarria dela ikasleen ISEK mailak ikastetxearekiko izan ditzakeen mugak gainditzeko ala ez gainditzeko. Gainera, hori ISEK maila guztietan gertatzen da: ikastetxea edonolakoa izanik ere, bere esku hartzeak onerako ala okerrerako eragina izan dezake.

“Balio erantsi handiko ikastetxeen ezaugarri eta jardunbide egokiak” izeneko txostenean, ISEI-IVEIk eta Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) talde batek egindako ikerketaren

lehen emaitzan, ebaluatu diren oinarritzko konpetentzietan testuinguruko aldagaien efektua kendu ostean, horien artean ISEK, espero zitekeena baino puntuazio altuagoa lor dezaketen Euskal Herriko ikastetxeen ezaugarri garrantzitsuak topa daitezke.

3. **Ikastetxe gehienak ISEK mailaren arabera espero zitezkeen emaitzetatik hurbil daude.** Diagonaletik gora dauden ikastetxeek espero baino emaitza hobeak lortu dituzte. Alderantziz gertatzen da diagonaletik behera dauden ikastetxeekin. Ikastetxe gehienak, % 65, erregresio-zuzenaren inguruan daude (ISEKen arabera esperotako puntuazioa). Ehuneko hori esperotako puntuazioaren gainean edo azpitik 15 puntu inguru dituzten ikastetxeekin kalkulatu da; ondorioz, zuzenaren inguruan edo horren azpitik pilatzen dira.

Ebaluatutako ikastetxe guztien % 4k ikasleen ezaugarri sozioekonomikoak eta kulturalak kontuan hartuta espero zitezkeen emaitzak 25 punturekin edo gehiagorekin gainditzen dituzten batez besteko emaitzak lortu dituzte, eta % 8,3 erregresio-zuzenaren azpitik kokatzen da; izan ere, esperotakoa baino gutxienez 25 puntu gutxiago lortu ditu.

Ikastetxeen ia % 13k esperotakoa baino 15-25 puntu gehiago lortu dituzte; ondorioz, ISEKen arabera esperotako puntuazioa ordezkatzeko duen zuzenaren gainean kokatzen dira. Ikastetxeen % 10ek, puntu horiekin, ez du lortu bere indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera esperotakoa; ondorioz, zuzenaren azpitik kokatzen da.

ISEKen arabera 25 puntu baino gehiago esperotakoaren gainetik lortu dituzten ikastetxe taldeen ezaugarriak eta ISEKen arabera esperotako puntu horiek berak lortu ez dituzten ikastetxe taldeen ezaugarriak alderatzen baldin baditugu, ikusiko dugu azken talde horretan ikasle etorkinen ehuneko handiagoa dagoela (% +26), adin-egokitasun egoeran ez dauden ikasleen ehuneko handiagoa dagoela (% +10) eta etxean euskaraz hitz egiten duten ikasleen ehuneko baxuagoa dagoela (% -62).

ISEKen arabera 25 puntu baino gehiago esperotakoaren gainetik lortu ez dituzten ikastetxeen % 55,6 itunpeko sarekoak dira, eta 25 puntu baino gehiago esperotakoaren gainetik lortu dituzten ikastetxeen % 92,3 sare publikokoak dira.

ISEKen arabera lortutako eta esperotako puntuazioaren arteko aldea	ED11		ED13	
	Kop. Ikastetxeak	Ikastetxeen ehunekoa	Ikastetxe Kop.	Ikastetxeen ehunekoa
25 puntu baino gehiago lortu dituzte esperotakoaren gainetik	21	6,4	13	4,0
Esperotakoa baino 15-25 puntu gehiago lortu dituzte	33	10,0	41	12,7
Esperotako puntuak lortu dituzte (aldea +/- 15 puntu)	218	66,3	210	64,8
Esperotakoa baino 15-25 puntu gutxiago lortu dituzte	40	12,2	33	10,2
25 puntu baino gehiago lortu dituzte esperotakoaren azpitik	17	5,2	27	8,3
Guztira*	329	100,0	324	100,0

4.1.b grafikoa, argiago ikus daiteke informazio hau guztia. Hainbat lerro jarri dira ikastetxe bakoitzeko ISEKekin lotuta esperotako puntuazioa nabarmentzeko.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako *Matematikarako konpetentziako* emaitzei zuzendutako txosten honen 2.3 atalean ikus daitekeen moduan, konpetentzia honetan, 2013ko puntuazioa (251 puntu) 2011n lortutakoaren berdina da. Egonkortasun hori bi ebaluazioetan (ED11 eta ED13) ere nabari da aurreko taulako ikastetxeen ehunekoetan. Ehuneko horiek zertxobait aldatu dira; izan ere, ikastetxeen egoera desberdinen arteko ehunekoetako aldeak, Ebaluazio diagnostikoko bi edizioetan, % 1,5 eta % 3,1 artekoak dira.

2013an, ikastetxeen ia % 65ek eta 2011n % 66k baino zertxobait gehiagok lortu zituzten ISEKen arabera esperotako emaitzak. Esperotakoak baino 15-25 puntu gehiago lortu dituzten ikastetxeen ehunekoei dagokionez, (% +2,7), ED13an, ED11n baino emaitza hobexearagoak lortu dira, eta jaitsiera (% -2) izan da puntu-tarte berdinean, baina esperotakoaren azpitik dauden ikastetxeen ehunekoan. Aldaketarik handiena esperotakoa baino 25 puntu gutxiago lortu dituzten ikastetxeetan gertatu da; izan ere, ED13an, ED11ekin alderatuta, ikastetxeen % 3,1eko igoera izan da. Azkenik, ED13an, esperotakoaren gainetik 25 puntu baino gehiago lortu dituzten ikastetxeen ehunekoan jaitsiera arina gertatu da (% -2,4)

4.1.b. grafikoa: ED13-DBHko 2. maila Matematikarako konpetentziaren emaitzen eta ikastetxeko ISEKen arteko lotura.

